

55



LAN-KOADERNOAK  
CUADERNOS DE TRABAJO  
WORKING PAPERS

Tokiko Giza Garapena, genero-ekitatea  
eta partaidetza Euskal Lankidetzaren  
hamar urteko epean. Ekuador, Guatemala,  
Peru eta SEAD:  
1998-2008

Unai Villalba  
Mertxe Larrañaga  
Yolanda Jubeto



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL  
INBIOGINTZO LANKIDETZA ETA GARAPENARI BURUZKO IKASKETA INSTITUTUA





Tokiko Giza Garapena, genero-ekitatea  
eta partaidetza Euskal Lankidetzaren  
hamar urteko epean. Ekuador, Guatemala,  
Peru eta SEAD:  
1998-2008

Unai Villalba  
Mertxe Larrañaga  
Yolanda Jubeto

**Unai Villalba** Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ekonomia Aplikatua I Saileko irakaslea eta Hegoako ikertzailea da.

**Mertxe Larrañaga** Ekonomiako doktorea da, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ekonomia Aplikatua I Saileko irakaslea eta Hegoako ikertzailea.

**Yolanda Jubeto** Ekonomiako doktorea da, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ekonomia Aplikatua I Saileko irakaslea eta Hegoako ikertzailea.

Argitalpen hau Eusko Jaurlaritzak 2008 GLSF proiektuetarako deialdian, «Euskal lankidetzaren erakunde esparru berria: genero-ekitatearen eta tokiko partaidetzaren aldeko lana indartzeko aukera» izenburupean onartutako proiektuaren emaitza da.

Honako hauek osatu dute ikerketa taldea: Jokin Alberdi, Gloria Guzmán, Yolanda Jubeto, Luis Guridi, Mertxe Larrañaga, María López, Iván Molina eta Unai Villalba.



## HEGOA

[www.hegoa.ehu.es](http://www.hegoa.ehu.es)

UPV/EHU

Zubiria Etxea

Lehendakari Agirre etorbidea, 81 • 48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40

[hegoa@ehu.es](mailto:hegoa@ehu.es)

UPV/EHU

Carlos Santamaría

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64 • Faxe: 94 601 70 40

[hegoa@ehu.es](mailto:hegoa@ehu.es)

UPV/EHU

Arabako Campus-eko Liburutegia

138 kutzatila. • Nieves Cano, 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. • Faxe: 945 01 42 87

[hegoa@ehu.es](mailto:hegoa@ehu.es)

Tokiko Giza Garapena, genero-ekitatea eta partaidetza  
Euskal Lankidetzaren hamar urteko epean. Ekuador,  
Guatemala, Peru eta SEAD: 1998-2008

Unai Villalba, Yolanda Jubeto, Mertxe Larrañaga

Hegoaren Lan Koadernoak

55. zenbakia

2011ko maiatza

L.G.: Bi-1473-91 • ISSN: 1130-9962

Argitalpena: Lankopi, S.A.

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Testuen orrazketa: Silvia Piris



**Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Generikoa Espainia**

Dokumentu hau Creative Commons-en lizentziarekin dago. Aske zara lan hau kopiatzeko, banatzeko eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak aitortu behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza xedetarako erabili. Ezin duzu lan hau bestelakotu, eraldatu edo lan eratorririk sortu hartatik abiatuta.

Baimen osoa:

<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/2.5/es/>

# Aurkibidea

Tokiko Giza Garapena, genero-ekitatea eta partaidetza Euskal Lankidetzaren hamar urteko epean.  
Ekuador, Guatemala, Peru eta SEAD: 1998-2008

Siglen eta laburduren glosarioa	5
1. Aurkezpena: ikerketaren helburuak eta metodologia	7
2. Generoaren ikuspegia eta herritarren partaidetza Tokiko Giza Garapenean	11
3. Herrialdeen eta lankidetzaren politiken testuingurua	15
4. Azterketa kuantitatiboaren emaitzak	23
5. Azterketa kualitatiboaren emaitzak	37
6. Ondorioak eta gomendioak	53
7. Taulen eta grafikoen zerrenda	61
8. Bibliografia	63
Eranskina	65



## Siglen eta laburduren glosarioa

<b>AFA</b>	Arabako Foru Aldundia
<b>BFA</b>	Bizkaiko Foru Aldundia
<b>EAE</b>	Euskal Autonomia Erkidegoa
<b>EG</b>	Emakumeak Garapenean (ikuspegia)
<b>EJ</b>	Eusko Jaurlaritza
<b>ELGA</b>	Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea
<b>GFA</b>	Gipuzkoako Foru Aldundia
<b>GG</b>	Generoa Garapenean (ikuspegia)
<b>GG</b>	Giza Garapena
<b>GGI</b>	Giza Garapenaren Indizea
<b>GGKE</b>	Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea
<b>GKS</b>	Garapen Kontseiluen Sistema
<b>GLSF</b>	Garapenerakoa eta Lankidetzeta Sustatzeko Funtza
<b>MAI</b>	Merkataritza Askeko Ituna
<b>NBGP</b>	Nazio Batuen Garapenerako Programa
<b>NGE</b>	Nazioz Gaindiko Enpresa (NGE)
<b>OGEA</b>	Oinarrizko Gizarte Erakundea
<b>SEAD</b>	Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa
<b>TGG</b>	Tokiko Giza Garapena





# 1. Aurkezpena: ikerketaren helburuak eta metodologia

Koaderno konparatibo honetan biltzen dira “*Euskal lankidetzaren erakunde esparru berria: genero-ekitatearen eta tokiko partaidetzaren aldeko lana indartzeko aukera*” ikerketa proiektuaren esparruan osatutako lau Herrialde Txostenetatik (Peru, Guatemala, Ekuador eta SEAD) ateratako ondorio nagusiak.

Ikerketa honen helburu nagusia Tokiko Giza Garapenaren esparruan (TGG) euskal lankidetzaren kalitatearen hobekuntzan laguntzea izan zen. Azterketa giza garapenaren ikuspuntutik egin da; izan ere, egokitzen hartu zen pertsonen gaitasunetan eta horiek bizitza osoa eta betea garatzeko dituzten benetako aukeretan dagoela garapenera iristeko garrantzizko erreferentzia. Gainera, erabakigarritzat hartu zen gaitasun kolektiboak bultzatzea, hain zuzen, norbanakoaren gaitasunen ezinbesteko osagarri gisa, aztertutako komunitateetan giza garapena lortzeko eman diren urratsak aztertzeko. Era horretara, euskal lankidetzaren esparru berriak tokiko giza garapenaren funtsezko bi ardatz sendotzeko eskaintzen dituen ahalmenetan zentratu zen azterketa, bi ardatz hauetan, hain justu: herriaren partaidetza, gaitasun kolektiboak egituratzen duen ardatza, eta generoaren ikuspegia prozesu horien fase guztietan txertatzearen maila eraginkorra. Hortaz, interes nagusia hurrengo izan zen: lankidetzaren deszentralizatu eta sendo batek,

bilakatzen ari den erakunde-egitura duenak, zer ekarpen egin diezaiokeen TGG prozesu errealean babesari aztertzea, gizon eta emakumeek parte hartzeko gaitasunak areagotu ditzaten.

Oinarrizko helburu horiekin aztertu zen euskal lankidetzak 1998-2008<sup>1</sup> hamarkadan eta lau herrialde hauetan egin duen ibilbidea, eta baita eragina ere: Ekuador, Guatemala, Peru eta Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa (SEAD). Azterketa honen helbururako, praktikan, euskal lankidetzaren barruan sartu ditugu Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek diruz laguntzen dituzten urteko zein urte anitzeko lankidetzaren proiektuak, horiek baitira aipatutako erakunde horien tresna nagusiak, eta erakunde horiek dira, aldi berean, euskal lankidetzaren deszentralizatuaren emaitza nagusiak. SEADen kasuan, Euskal Fondoak eta zenbait udalek diruz lagundutako proiektuak ere hartu dira kontuan, udal lankidetzak garrantzi handia izan baitu lurralde horretan. Azpimarratu beharra dago, halaber, azterketa honen asmoa ez dela lankidetzaren proiektuen ebaluazioa egitea, ezta horietan parte hartzen duten erakundearen ebaluazioa egitea ere; aitzitik, TGGaren alorrean izandako esperientzia bakoitzetik ikaskuntzak eta erronka interesgarriak atera nahi izan dira.

<sup>1</sup> Azterketa honetan sartu dira 1998tik 2008rako deialdietan onartu eta 1999. eta 2010. urteen bitartean gauzatzen ari ziren proiektuak.

Ikerketa hau Hegoa erakundearekin –Euskal Herriko Unibertsitatearen Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuarekin– lotura duen irakasle eta ikerlari talde batek egin du: Jokin Alberdi, Luis Guridi, Gloria Guzmán, Yolanda Jubeto, Mertxe Larrañaga, María López, Iván Molina eta Unai Villalba. Aztertutako herrialde bakoitzarentzat arduradun bat hautatu zen, eta horiek izan dira dagozkion Herrialde Txostenak idaztearen eta proiektuak tokian bertan aztertzearen lana hartu dutenak. Hona hemen arduradunak: Ekuadorrekoa Unai Villalba izan da, Gloria Guzmán Guatemalako, Luis Guridi eta Iván Molina Perukoak, eta María López SEADekoa. Jokin Alberdik garapenaren aldeko lankidetzaren arkitektura berriaren azterketan jarri zuen arreta, bai nazioartean bai tokian tokiko eremuan, eta Mertxe Larrañagak eta Yolanda Jubetok era berezian lagundu zuten prozesu osoan zehar generoaren ikuspegia txertatzeko zereginen; kontuan hartu behar da, gainera, azken hori izan dela ikerketaren koordinatzaile nagusia.

Ikerketan metodologia kuantitatiboa zein kualitatiboa erabili da. Herrialde guztientzat metodologia bakar bat proposatu bazen ere, metodologia malgua izan da, ikertzaile bakoitzak ikertu beharreko errealiterara egokitzeko modukoa. Prozesu osoa hainbat etapatan burutu zen. Lehenengo etapan, diru laguntzak ematen dituzten erakundeak eta GGKEek eskaintako dokumentazioa aztertu zen, eta, horrez gainera, hainbat bisita eta bilera egin ziren Euskal Herriko GGKEekin. Bigarren etapan, berriz, irizpideak identifikatu, ikerketarako aldagaiak eta azterketa-kategoriak definitu, informazio kuantitatibo erabilgarria sistematizatu eta kasu azterketak hautatu ziren. Eta hirugarrenik, landa-lana egin zen (elkarrizketak, bilerak, etab.), herrialdez herrialde. Laugarren etapan, bildutako informazio kualitatibo guztia sistematizatu zen. Eta prozesuaren azken fasean, Herrialde Txostenak erredaktatu ziren. Horrez gainera, azken fase horretan, hainbat mintegi edo tailer antolatu dira, formatua herrialdearen arabera moldatuz; tailer horietan Txostenetako edukiari buruz eztabaidatu izan da inplikaturako eragile nagusiekin.

Lehenengo eta bigarren faseek ikerketaren alderdi kuantitatiboari egiten diote funtsean erreferentzia. Ikerketaren une horretan, Eusko Jaurlaritzaren eta hiru

Aldundien dokumentazioa aztertzea izan zen zeregin nagusia. Dokumentazio horren barruan, proiektuei buruzko oinarrizko informazioa biltzen zen, eta informazio horretatik abiatuta, ikerketarako aldagai tronkalen arabera sailkatu ziren proiektuak. Hortaz, aldagai hauen arabera antolatu ziren proiektuak:

1. Diruz laguntzen duen erakundea, hau da, aurretik aipatuak: Eusko Jaurlaritza eta hiru Foru Aldundiak.
2. Jarduera sektorea, Euskal Administrazioen eta ELGaren<sup>2</sup> beraren sailkapenak aztertu ondoren, ikerketa taldeak adostutako kategoriatzuk oinarri hartuta. Laburtuz, honako hauek dira landutako sektoreak: Emakumeak/Generoa; Haurtzaroa; Giza Eskubideak; Landaren eta Nekazaritzaren Garapena; Oinarrizko Osasun Arreta; Erabateko Garapena; Tokiko Ekonomiaren Garapena; Oinarrizko Azpiegiturak eta Gizarte Zerbitzuak; Hezkuntza; Ingurumena; Gizarte Zibila Sendotzea; eta Erakundeak Sendotzea.
3. Euskal GGKEek eta tokiko erakundeak: tokiko erakunde bakoitzari buruzko informazioa eta euskal GGKEekin eta gauzatutako proiektuei buruzko datuekin lotu ziren.
4. Geografia eremua: herrialdeak geografia eremuen arabera banatu ziren, eta geografia eremuak gauzatutako proiektuekin lotu ziren.
5. Generoaren eta Tokiko Giza Garapenaren ikuspegiak. Bi izan ziren aztertutako proiektuen unibertsoa sailkatzeko eta biltzeko erabilitako erreferentzia teoriko nagusiak: alde batetik, TGG, norbakoaren garapenak zein taldeko garapenak sortzen dituzten prozesuak *ebaluetzeko* esparru orokor gisa, eta, beste aldetik, Generoaren Ikuspegia, hori gabe ezin uler baitaiteke TGG ikuspegia.

Lehenengo sailkapenaren kasuan, proiektuak hurrengo kategoriatan antolatu ziren: *TGG esplizitua*, TGG ikuspegia erreferentziatzeko esparruan zein esku-hartzetan modu argian eta zuzenean agertzen zeneko kasuetan; *TGG implizitua*, TGG ikuspegi bera aipatu gabe ere, horren zenbait osagai agertzen baziren; eta *TGG sektoriala*, TGGaren osagaietako batzuk modu sektorialean indartzen baziren.

<sup>2</sup> Proiektuak sektoreka sailkatzeko irizpideak biltzen dituen taula erantsi da.

Bigarren kasuan, Generoaren Ikuspegia eransteari dagokionez, sailkapena honako kategoriak jarraituz egin zen: *Generoa Garapenean (GG) ikuspegi esplizitua* jarraitzen zutenak, alegia, emakumeen egoera hobetzea eta jabeakuntzarako prozesuak, bai banakakoak bai taldekoak, abian jartzea helburu duten proiektuak; *Emakumeak Garapenean (EG) ikuspegia* zutenak, hau da, emakumeak garapen jardueretan sartzera eta haien egoera hobetzea bilatzen duten proiektuak, gizonen eta emakumeen arteko botere harremanak zalantzan jarri gabe; *Generoa Garapenean ikuspegia inplizitua zutenak*, hau da, GG ikuspegia modu esplizituan aipatu gabe ere ikuspegi horren baitako hainbat gai islatzen dituztenak; eta emakumeek gizonen aldean bizi duten desberdintasun egoerari buruz inolako aipamenik egiten ez duten proiektuak diren, hasierako fitxa laburrean behintzat.

Ikerketaren hirugarren eta laugarren faseek landanari eta alderdi kualitatiboanari egiten diote erreferentzia. Azterketa kuantitatibotik hainbat proiektu hautatu ziren, honako irizpide hauei jarraituz: ikerketarako interes berezia (TGG eta generoa), proiektuen laginaren ordezkaritza (erakunde emaileen, euskal GGKEen, tokiko erakundeen, geografia esparruen arabera) edota irisgarritasuna. Landa-lanaren fase horretan, proiektuetara bisita egin zen, eta sakontasun handiagoz ezagutu ahal izan ziren bai erakunde bultzatzaileak bai proiektuekin zerikusia duten herritarak. Lau herrialdeetarako bisitak ikerketa prozesuaren hainbat unetan egin ziren.

Azterketa kualitatiboena egiteko honako tresna hauek erabili ziren: dokumentazioaren azterketa, elkarrizketa erdiegituratuak eta behaketa. Elkarrizketak egin zitzaizkien, banakakoak eta/edo taldekoak, euskal GGKEetako langileei zein tokiko erakundeetako, eta garrantzizko informazioa eman zezakeen edonori. Proiektuekin zuzenean zerikusia zuten herritarrei ere egin zitzaizkien elkarrizketak, eta jardueren zuzeneko behaketa ere egin zen.

Herrialde bakoitzarentzat Herrialde Txosten bat erre-daktatu zen. Lau txostenak argitaratuta daude, eta Hegoaren webgunean eskura daitezke; beraz, hemen biltzen den informazioa sakondu nahi izanez gero, horietara jotzea komeni da. Koaderno honen oinarriko asmoa da bai ikuspegi kuantitatibotik bai ikuspegi kualitatibotik funtsezkoak diren gaiak biltzea, lau dokumentuen azterketa konparatiboaren bitartez, eta, ahal den neurrian, euskal lankidetzarentzako hainbat gomendio eta proposamen ematea. Horrez gainera, aipatu beharra dago, Generoaren ikuspegiaren gaitasunetan sakontzearen garrantzia kontuan hartuta, berariazko Lan Koaderno bat<sup>3</sup> argitaratu behar izan dela, eta dokumentu honetan biltzen den informazioa osatu nahi izanez gero, horretara jotzea gomendatzen da. Bestalde, ikerketa prozesua osatzeko asmoz, laguntzaren arkitektura berriari eta lankidetzaren deszentralizatuak genero-ekitatearen prozesuetan<sup>4</sup> betetzen duen zereginari buruzko Lan Koaderno bat argitaratu da, bai eta Yolanda Jubetok eta Mertxe Larrañagak koordinatutako liburu bat ere, lankidetzaren deszentralizatuarekin eta tokiko giza garapenarekin<sup>5</sup> zerikusia duten gaien buruzko hainbat egileren ekarpenekin.

Halaber, ez dugu sarrera hau amaitu nahi Silvia Pirisi eskerrak eman gabe, lan handia egin baitu; izan ere, azken hilabeteetan laguntzaile gisa jardun du Ikerketa Proiektuan, eta aztertutako gaian duen esperientziari esker, funtsezko laguntza eskaini digu koaderno hau itxuratzen.

<sup>3</sup> Jubeto, Yolanda eta Larrañaga, Mertxe, *Tokiko Giza Garapena: ekarpenak, genero-ekitate-tetik*. Hegoa 2011 (argitaratzeko).

<sup>4</sup> Alberdi Bidaguren, Jokin eta Viadero Acha, Maria, *Partaidetza eta genero-ekitatea, autonomia erkidegoen lankidetzan*. Hegoa 2011 (argitaratzeko).

<sup>5</sup> Jubeto, Yolanda eta Larrañaga, Mertxe (argitaratzaileak), *Lankidetzari eta tokiko giza garapenari buruzko gogoetak: erronkak, genero-ekitate-tik eta gizarte-partaidetzatik*. Hegoa 2011 (argitaratzeko).



## 2. Generoaren ikuspegia eta herritarren partaidetza Tokiko Giza Garapenean

Tokiko Giza Garapenaren (TGG) ikuspegia da ikerketa honen abiaburua; ikuspegi hori esparru egokia baita, gure ustez, euskal lankidetzak jardundako komunitateen ongizate prozesuetan duen eragina aztertzeko. TGG ikuspegia osatzen ari den ikuspegia da, eta, horregatik, bada, gizarte egituren eta ongizate emaitzen tokiko esparruen arteko emaitzen arteko loturak ikertzen jarraitzea komeni da, betiere, kontuan hartuta beste esparru batzuekiko mendekotasunak, baita udalaz gaindikoko mendekotasunak ere. TGG ez da giza garapenaren eta tokiko garapenaren justaposizio hutsa, baina, zalantzarik gabe, giza garapenetik abiatzen da eta tokikotik abiatuta jardutearen aldeko apustua egiten du.

Tokiko esparruaren aldeko apustu horren oinarrian honako hipotesi hau dago: esparru hori dela giza garapenean oinarrituriko prozesuak aztertzeko egokiena, eta hori dela, halaber, pertsonengan eta gizartean dituzten eraginak eta horien konplexutasuna eta horiek sendotzeko aukerak azaltzen dituzten dinamikak aztertzeko egokiena. Tokiko alderdia ez da ingurunearen erantzun isolatzailetzat hartu behar; alderantziz, sistema ekonomiko eta sozial bidezkoagoa eta gizatiarragoa nola eraiki pentsatzeko lekurik egokientzat hartzen da, tokikoak komunitatearen eta lurraldearen zentzua berraurkitzeko aukera eskaintzen baitu. Giza garapenaren kategoriak tokiko estrategietan eraginkor bihurtzea da, azken batean, erronka nagusia.

Giza garapenaren ezaugarri nagusia ebaluatzeko eremu alternatibo baten proposamena da, eta eremu hori pertsonen gaitasunen barruan kokatzen da, eta ez bakarrik gizarteak oro har dituen baliabideetan. Eta ikuspegi horrek garrantzizko aldaketa bat dakar ongizatearen kontzeptu nagusiaren aurrean, zeinak baliabideen eskuragarritasun orokorrean duen erreferentzia nagusia; izan ere, *per capita* errentaren adierazle tradizionalak ahaztu egiten du pertsonen benetako egoera.

Giza garapenaren ikuspegia Garapenerako Nazio Batuen Programaren (GNBP) azterketatik haratago badoa ere, argi dago erakunde horrek giza garapenari buruz argitaratzen dituen txostenak nahitaezko erreferentzia direla TGGaren gaiari heltzeko orduan. GNBPren arabera, giza garapena prozesu bat da, pertsonen beren aukerak zabaltzea bilatzen duen prozesua, hain zuzen ere. Aukera horiek, hasiera batean, infinituak izan daitezke, eta aldatu egin daitezke denboraren joanean. Hala eta guztiz ere, badira emakumeentzat eta gizonentzat funtsezko hiru aukera garapen maila guztietan: bizitza luzea eta osasungarria edukitzeko aukera, ezagutzak eskuratu ahal izateko aukera eta bizi maila duin batez gozatzeko baliabideak eskuratzeko aukera. Eta aukera horiek oinarri-oinarritzeko dira, horiek gabe beste aukera asko ezin iritsizkoak izango baitira. Edonola ere, argitaratutako azken txostenean, 2010ekoan hain justu, giza garapena aukera

horien zabalkunde gisa deskribatzea funtsezkoa izanik ere nahikoa ez dela onartzen da, eta zenbait printzipio (ekitatea, jasangarritasuna, giza eskubideen errespetua...) funtsezkoak direla zehazten da; orobat adierazten da garrantzizkoa dela jendea pobretzen duten edo zapalkuntza eta egiturazko bidegabekeria elikatzen duten prozesuen kontra borrokatzea.

Hori dela eta, aipatutako txostenean giza garapenaren definizio hau ematen da: “pertsonek bizitza luzea, osasungarria eta sormenezkoa edukitzeko duten askatasunak zabaltzea; baliozkotzat hartzen dituzten helburuak lortzea eta garapenari forma emateko prozesuan modu aktiboan parte hartzea, berdintasunean eta jasangarritasunean eta planeta partekatu batean oinarri hartuta. Pertsonak, hortaz, giza garapenaren onuradun eta eragile dira, aldi berean, bai gizabanako gisa bai talde gisa”.

Planteamendu horren arabera, hiru faktore hauek osatzen dute giza garapena: Ongizatea (jendearen benetako askatasunak zabaltzea, aurrera egin dezaten), ahalduntzea eta eskuratzea (pertsonei eta taldeei jarduteko aukera ematea, balora daitezkeen emaitzetara iristeko) eta justizia (ekitatea zabaltzea, emaitzak denboran babestea eta giza eskubideak eta gizarteak planteatutako beste helburu batzuk errespetatzea). Giza garapena ez da paperean idatzitako askatasunekin bakarrik lotzen, eta horregatik esaten zaie gaitasunei “benetako” askatasun. Prozesu askatasunek zerikusia dute ahalduntzarekin eta hainbat mailatako jardunbide demokratikoekin, pertsonak ez baitira soilik garapenaren onuradun. Bestalde, justiziaren printzipioek esplizituak izan behar dute, eta, giza garapenean, arreta guztia esplizituki desberdintasunean jartzeta da berdintasunaren gaineko kezka eragin zuzena.

Giza garapenaren definizio berri horretan, hortaz, elkarrizketa lotuta dauden eta ikerketa honetan funtsezkoak izan diren bi dimentsioren aipamen esplizitua egiten da: partaidetza eta ekitatea, hain zuzen ere. Herritarren partaidetzaren garrantzia funtsezkoa da, eta horrela adierazten da 1993ko Giza Garapenari buruzko Txostenean. Partaidetza funtsezkoa da, alde batetik, tokikotik abiatuta egindako lanean beharrezkoa delako interesdunek beraiek definitzea gizakiaren garapena eta ongizatearen eta gaitasun kolektiboan aukerak, eta beraien errealitatek eta beraien gaitasun eta ezagutzetatik (balio instrumentala) abiatuta egitea.

Beste alde batetik, giza garapenean pertsona horiek beren garapenaren eragile bihurtu behar dute, parte hartzeko gaitasuna ongizatearen oinarritzko osagaia dela uste baita (balio finalista).

Horrekin bat eginez, TGGetik pertsonen eta taldeen benetako garapena bilatzen duten tokiko komunitateen jardura estrategia bat proposatzen da. Tokiko komunitatearen jabeakuntza lortzea da estrategia horren helburua, beraren garapen baldintzak definitzen dituzten mekanismoen gaineko kontrol handiagoa eragin dezan. Lurralde batean gizarte eragileak modu zuzenean eta pluralistan eratzeko, ezinbestekoa da gaitasunaren garapen prozesu bat eragitea, gizarte talde guztiak ez baitaude baldintza berean gizartean parte hartzeko eta gizarteari egiten dioten ekarpenari ez baitaio aitortzen bera egiten.

Ekitateari dagokionez, begien bistakoa da gizakiak ezin direla garatu, oro har, desberdintasun handiko testuinguruetan eta, bereziki, emakumeen eta gizonen artean desberdintasun handiak dituztenetan. Genero desberdintasunari buruzko GNBPre 1995eko Txostenean, honako ondorio hau ateratzen da: “giza garapena ezinezkoa da gizonen eta emakumeen arteko berdintasunik gabe. Emakumeek garapen prozesutik kanpo jarraitzen badute, prozesu hori ahula eta desorekatua izango da”. Premisa horietatik abiatuta, uste osoa dugu giza garapenak sexuen arteko berdintasunean oinarritutako garapenaren paradigma berri baten sorrera ekarri behar duela berekin: naturarekin zein gizarte mailen artean harreman berriak bilatzen dituen paradigma berria, gizarte, ekonomia eta politika desberdintasunak salatuko dituen, giza garapena lortzeko oztopo direla adieraziz. Funtsean, garapenaren ikuspegi horrek emakumeen eskubideen ikuspegi sakontzeko aukera ematen digu, herrien garapenaren funtsezko osagaia izanik.

TGGa tokiko eragileen ekintzaren ondoriozko prozesu hartzen bada, zeinetan eragile horiek beren partaidetzaren bitartez lurralde edo komunitate jakin bateko gizabanakoen gaitasunetan zein gaitasun kolektiboaren garapenean parte hartzen duten, orduan, kontuan hartu behar da eragileak ez direla generoari buruz neutroak, aitzitik, gizon eta emakume zehatzek parte hartzen dutela. Beraz, ez dago generoaren neutraltasunik TGGen, gizon eta emakumeen arteko gizarte harremanak eta horien arteko desberdintasunak biltzen

baititu, nor bere baldintza eta jarrerekin, nor bere premia, interes eta itxaropenekin, botere eta erabakiekin, etab. Generoaren ikuspegiak, era batera edo bestera, eragina du tokiko giza garapenaren aldeko apustuak proposatzen eta bultzatzen dituzten ikuspegi, proiektu eta helburuetan.

Partaidetza generoaren ikuspegitik aztertuz gero, emakumeen hurbileneko espazioak, alegia, historian zehar gizarte eragile gisa jardun duten espazioak, etxearen ingurukoak direla esan liteke: hau da, auzoa, kolonia, komunitatea, herria. Feminismoak azpimarratu du ezinbestekoa dela partaidetzaren kontzeptua berrikustea, eta, halaber, nabarmendu du garrantzizkoa dela eremu ezohikoetan jartzea arreta; esate baterako, egunerokotasunaren esparruan kokatuta egon direnak baina partaidetzari buruzko azterketetan baztertu izan direnak, eremu politikotzat hartu ez direlako.

Generoaren ikuspegi kritiko batetik azpimarratu da, hortaz, tokiko eremuek garrantzi handia dutela emakumeen partaidetza publikoari dagokionez, hurbiltasun espazialaren eta denboraren malgutasunaren eraginez bereziki. Baina aldi berean antzeman da era horretara sendotu egin litekeela “emakumearen lekua” tokiko espazioan –etxeko eremutik hurbilenekoan– dagoela aditzera ematen duen ustea, eta espazio horretan ezkutatu litezkeela, etxeko espazioan gertatzen den bezala, emakumeen kontrako zapalkuntza eta indarkeria egoerak.

Tokikoaren eremuan, generoaren ikuspegiak gizon eta emakume askori –gazteak, indigenak, nekazariak, ekintzaileak, etab.– lagunduko lieke beraien burua aurkitzen eta sendotzen. Zentzu horretan, beharrezkoa da berriro ere nabarmentzea munduko eskualde askotan, Latinoamerikan besteak beste, nagusi direla generoen, belaunaldien eta etnien arteko harreman asimetrikoak, eta horrek lurralde bateko eragile guztien dinamikari eragiten diola. Eta zalantzarik gabe, kultura aniztasuna eta onespina –mendebaldeko kulturaz bestelako kulturen ezagutzaren eta elkarren arteko errespetuaren bitartez– funtsezko osagaiak dira giza garapena berdintasunez eta modu barne hartzaile batean emango bada. Ildo horretatik, mendebaldekoak ez diren feminismoek denbora asko daramate behin eta berriro adierazten Hegoaldean sortutako ezagutza deskolonizatu behar dela.





### 3. Herrialdeen eta lankidetzaren politiken testuingurua

Atal honetan, labur-labur ikerketa honen helburu izan diren herrialdeen testuingurua azalduko dugu. Alde batetik, aztertutako lau herrialdeetako gizartearen, politikaren eta ekonomiaren egoerari buruzko zenbait xehetasun azalduko ditugu, gizarte mugimenduetan duten eragina azpimarratuz, eta, beste alde batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) aipatutako hamar urteetan lankidetzaren politikek izan duten bilakaeraren errebaso eskematikoa egingo dugu. Era horretara, aurkeztuko dugun azterketa kuantitatibo eta kualitatibotik ateratako ondorio nagusiak hobeto ulertzeko informazioa lortuko dugula uste dugu.

#### 3.1. Aztertutako lau herrialdeen egoera soziala, politikoa eta ekonomikoa

Aztertutako lau herrialdeek hainbat berezitasun dituzte beraien ibilbide politiko eta ekonomikoi dagokionez; baina antzekotasunak ere badituzte. Antzekotasun horiek nabarmenagoak dira, noski, hiru herrialde latinoamerikarren artean. Herrialde horien arteko osagai komunak identifikatzeko asmoz, honako hauek azpimarratu ditzakegu: aniztasun handia, bai alderdi geografikotik bai etnien eta kulturen alderditik; gizarte desberdintasun handiak, oro har, eta genero desberdintasunak bereziki; herri indigenen antolamendu maila handia. SEADen kasua berezia da, errefuxiatu egoeran dagoen gizartea baita, eta horrek garrantzizko ondorioak ditu herritarrengan.

Lehenik, Peruren kasuan, bi osagai nagusi bereizten dira azken urteotako ibilbidean: neoliberalismoaren eragin handia, bereziki azken hamarkadetakoa gobernuek abian

jarritako ekimen ekonomikoetan; eta Estatuaren indarkeria politikoa eta zapaltzailea, herritarrak sufritarazi eta komunitateak desegituratu dituen, kasu askotan. XX. mendearen 60ko hamarkadara joz gero, gogoan izan behar da Velasco Alvaradok oligarkiaren kontrako iraultza jarri zuela abian –militar buruek egiturazko erreformak bideratzeko babestu eta zuzendutako iraultza–; baina gizarte eragileak ez ziren behar adina aktibatu eta ez zuten hartan parte hartu (gizarte erakundeak eta gizarte mugimenduak, sindikatuak eta gizarte zibilaren erakundeak). Eragile horien antolamendua indartu izan balitz, hainbat neurriren itzulezintasuna lortu ahal izango litzateke, besteak beste, hezkuntzan, nekazaritzan (nekazaritzako erreforma), etab.

Prozesuaren autoritarismoaren eraginez, politika gogortu egin zen, eta, ondorioz, hainbat gerrillari mugimendu sortu ziren, esate baterako, Sendero Luminoso-PCP edo MRTA (Tupac Amaru Mugimendu Iraultzailea). Velasco Alvaradoren erregimenaren amaieran, egitura doitzeko plan bat aplikatu zen, baina ezin izan ziren gizarte arazoei eutsi; aldi berean, 1979ko Konstituzioa erredaktatu zuen biltzar konstituziogilea osatu zen.

80ko hamarkada krisi politiko eta ekonomiko larriekin hasi zen, eta krisi horren ondorioz, soldatak jaitsi, desberdintasunak handitu eta ustelkeria areagotu egin zen, eta gerrillari mugimenduak sortu ziren. Belaúnderen gobernuak zapalkuntza gogorraren hautua egin zuen, eta horri Sendero Luminosoren zapalkuntzak jarraitu zion; egoera horren ondorioz, gizartea

eta komunitateak izugarri desegituratu ziren, batez ere hegoaldeko mendialdeko eta erdialdeko departamentuetan. 1985ean Alan García boterera iritsi zenean, ez zuen joera horiek aldatzea lortu, eta krisi ekonomiko handiarekin eta presidentearen eta haren inguruko kontrako ustelkeria salaketekin amaitu zen hamarkada.

90eko hamarkadan, Fujimori iritsi zen aginpidera, eta harekin, autoritarismoa, berriro ere; giza eskubideak are gehiago ahuldu ziren, eta gizarte zibila izan zen biktima nagusia. Era horretara, gizarte erakundeen eta sindikatuen kontrako erasoak hasi ziren, horiek ahultzeko eta jendarteak politika neoliberali kontra egiteko zuen gaitasuna murrizteko helburuarekin. Hamarkada horretan herrialdeak jasandako indarkeria politikoak eta zapalkuntza politikek eragin handia izan zuten Peruko GGKEen lanean eta zereginean, eta gaur egun oraindik indarrean diraute haien eraginek, ondorengo agintariek ere GGKEak deslegitimatzeko erasoekin jarraitu baitzuten.

Fujimoriren beheratzearen ondoren, trantsizioko behin-behineko gobernu batek, Paniagua buru zela, Egiaren eta Baketzearen aldeko Batzordea sortu zuen, bi hamarkadaz herrialdeari kalte eragin zion gerrillari taldeen eta Gudarostearen arteko indarkeria politikoren izaera eta kausak aztertzeko helburuarekin. Mende berriarekin batera, Alejandro Toledoren gobernuaren politikek men egin zieten nazioarteko finantza erakundeen aginduei: egonkortasun makroekonomikoa lortzea eta liberalizazio ekonomikoa eta iparraldeko herrialdeek Perun zituzten interesak babestea bultzatuko zituzten merkataritza politikak eskatzen zituzten, besteak beste, Estatu Batuekin Merkataritza Askeko Ituna izenpetzea (MAI). Herrialdeko ekonomiak lehengaien esportazioari begira jarraitu zuen batik bat, eta oso gutxi sustatu ziren tokiko garapen ekonomikoa eta produktiboa. 2006an berriro ere Alan García hautatu zen, eta hark indartu egin zituen eliteen interesak, hain zuzen ere, inguruko herrialdeekin, hala nola, Brasilekin eta Txilerekin, alde biko hitzarmenak izenpetzeko interesa, eta baita Estatu Batuekiko Merkataritza Askeko Ituna jarraitzearen aldeko interesa ere. Eredu produktiboak erauzketaren eta desarrollismoaren aldeko joerari eutsi zion, eta, horren ondorioz, herri indigenek hainbat altxamendu eta protesta bultzatu zituzten 2008. urtetik aurrera beraien lurraldeak babesteko eta meatzaritzaren eta

petrolioaren alorreko korporazioen jarduerari aurre egiteko.

Bigarrenik, Amerika erdialdean aztertutako herrialde bakarrak, Guatemalak hain zuzen ere, gatazka politikoan oinarritutako herrialde bat erakusten digu, indarkeriaren *continuum* bat, baita Bake Hitzarmenen onspenaren ondoren ere; eta desberdintasunaren hainbat alderdi erakusten dituen gizarte bat ere bai.

Zaila da Guatemalako errealitatera hurbiltzean ez aipatzea giza eskubideen urraketa historikoa, bai banakako bai taldekoen aurkakoa, herritar gehien eta bereziki indigenen kontrakoa. Gizarte bazterketaren eraginez, hainbat altxamendu izan ziren, eta gerra piztu zen, Amerika Erdialdeko luzeena, 36 urtez luzatu baitzen, hain zuzen ere 1960tik 1996ra. Argitze Historikoaren Batzordearen arabera, 200.000 laguntatik gora erahilak izan ziren gatazka armatuak iraun zuen bitartean.

Gizarte erakundeen ikuspegitik, gizarte zibila deituriokoaren ikuspegitik, Bake Hitzarmenek gizartean eta politikan eragiteko gune berriak zabaltzeko aukera ekar zezaketen. Baina, gaur egun, Guatemalako gizarte zibil antolatua egiten duen balorazioa etsipenarena da. Jendearen ustez, oro har, eskasak izan dira iragarritako erreformetan egindako aurrerapausoak, izan ere, politikan eta gizartean partaidetza handitzeko bideak zabaldu baziren ere, herritar gehien bizi baldintzei dagokienez, nabarmenak dira oinarritzko eskubideen urraketak eta eskasak dira gutxieneko ongizate ekonomiko eta sozialen mailara iristeko aukerak.

Gerra ondoko aldi sakondu egin dira izaera neoliberalerako neurriak, eta Bake Hitzarmenak izenpetu eta 15 urtera, Guatemalak du munduko hilketa tasa handiena, eta segurtasunik eza funtsezko faktorea da garapen pertsonalerako zein kolektiborako prozesua oztopatzeko. Indarkeriaren ondoriozko heriotzen artean, deigarria da emakumeen ehunekoak. Egoera horren ondorioz, Guatemala *feminizidio* kopuru handieneko herrialdeetako bat da Latinoamerikan, eta, bertan, nagusi da zigorgabetasun sistema, bereziki itxia eta sendotua; sistema horren eraginez, ezinezkoa da gatazka armatuko eta zapalkuntzako 36 urteren ondoren oinordetzan jasotako gizarte harremanen indarkeriazko moduetan nolabaiteko haustura bultzatzea.

Aipatutako desberdintasunak dira Guatemalako gizarte eta ekonomia bazterketak bere horretan jarraitzearen faktore nagusia. Neurri liberalen aplikazioaren bitartez bultzatutako garapen ekonomikoaren eredian sakondu da; mugatu egin da herrialdeko baliabideen banaketa berdintasunezkoa izan dadin beharrezkoa den gastu soziala, eta, bestalde, pilatu egin da aberastasuna.

Hirugarrenik, Ekuadorreko testuingurua azken hamarkadetan definitu duten osagaiak honako hauek izan dira: gobernagarritasun ahula, neurri neoliberal sakonekin eta desberdintasun handiekin batera, baita herritar eta indigenen altxamenduak ere.

1979an demokraziara itzuli ondoren, elkarri lotutako bi joerari ekin zitzaion Ekuadorren, eta orain dela gutxi arte iraun dute: politika neoliberalak egin dute aurrera, eta Estatuaren boterea hainbat alderdi politikoren esku gelditu da, botere ekonomikoekin bat eginik. 90eko hamarkada ezegonkortasun handiko garaia izan zen, segurtasunik eza larritu egin zen, eta aztertutako latinoamerikar herrialdeen artean Ekuador da Giza Garapenaren Indizeak (GGI) atzera egin duen bakarra. Ezegonkortasun politikoa handia da, eta baita gobernagarritasunik eza ere, eta, horren ondorioz, presidente ugari eta hainbat herri altxamendu izan dira denbora gutxian. Testuinguru horretan, indigenen mugimenduak garrantzi handia izan du neoliberalismoari aurre egiteko gizarte eragile gisa, eta baita eragile politiko gisa ere, batez ere zenbait udalerritan. Segurtasunik eza areagotu duten beste faktoreetako batzuk honakoak izan dira: hondamendi naturalak, hala nola, *El Niño* kostaldean, edo Peruren kontrako gerra. Hamarkada krisi ekonomiko eta finantzario larriarekin amaitu zen, eta, ondorioz, herrialdeak dolarra hartu zuen. Egoera horren eraginez, ekuadortar asko Estatu Batuetara, Espainiara eta Italiara erbesterratu ziren.

2000ko hamarkadan, partidokraziaren eta neoliberalismoaren herri erresistentziaren ondorioz, Estatu Batuekin izenpetutako MAIaren kontrako kanpainak sortu ziren, eta *Revolución de los Forajidos* deitua sortu zen, Lucio Gutiérrez presidentearen kontra. Egoera hori, *gau neoliberal luzea* deritzona, Rafael Correa eta Alianza PAIS 2007. urtean aginpidera iritsi zirenean hasi zen aldatzen. *Revolución Ciudadana* deituak inplementatu nahi izan zituzten aldaketa progresistek

2008ko Konstituzioan izan zuten adierazle nagusia. Bertan, *Ongi Bizitzea (Buen Vivir, Sumak Kawsay)* aldarrikatzen da, politikaren orientazio nagusi gisa; Naturaren eskubideak defendatzen dira; elikadura subiranotasuna eta gizarte ekonomia bultzatzen dira; eta herritarren partaidetza sustatu nahi da. Konstituzio horretan aldatu beharreko hainbat gai kontuan hartzen badira ere, horiek legetara eta politiketara eramateko prozesuak oso mantso egiten du aurrera, eta zailtasun ugari izan ditu.

Aztertutako laugarren herrialdeari dagokionez, SEADen kasuari dagokionez, gatazkak eta babes egoerak markatutako testuinguru bat dugu; laguntzaren erabilera ere kontuan hartu beharrezkoa da. Mendebaldeko Sahararen gatazka da *ahaztutako gatazka* deiturikoen adibide garbienteko bat. 2010eko azaroan *Martxa Berdearen* 32. urteurrena bete zen, zeinaren bitartez Marokok lurraldea mendean hartu eta lurraldea Mauritaniaren eta Marokoren esku uztera behartu zuen Espainiako gobernuak. Fronte POLISARIOak, espainiar ahalmen kolonialari eraso egiteko sortuak, *Askatasun Nazionalerako Gerra* hasi zuen Marokoren eta Mauritaniaren kontra, eta Saharar Errepublikari Arabiar Demokratikoa (SEAD) aldarrikatu zuen. Mauritaniak Bake Hitzarmen bat izenpetu zuen 1979an POLISARIOarekin, eta SEAD sortu berria onartu zuen. Gaur egun 80 estatuk onartzen dute SEAD, baina Marokorekiko gerrak 1991. urtea arte iraun zuen, eta urte horretan su-etena adierazi eta Bakerako elkarrizketei ekin zitzaion. Elkarrizketa horiek, ordea, ez dute emaitzarik izan, eta gatazka ez aurrera ez atzera gelditu da, *gerrarik eta bakerik gabeko* egoeran; edonola ere, egoera hori gehien jasaten dutenak Tindufen errefuxiatutako sahararrak dira.

Une jakin batzuetan tentsioa larritu bada ere, Saharako gatazka nazioarteko agenda politikotik kanpo dago, eta baita komunikabideen interesetatik kanpo ere. Gogaitasuna eta sahararren bizi baldintza ezin txarragoak dira egoera horren ondorio nagusiak; bestalde, sahararrak sakabanatuta daude Tindufeko errefuxiatuentzako kanpalekuetan, Marokok mendean hartutako lurraldeetan eta erbestean den saharar diasporan. Zehazki, Tindufeko saharar herritarrek hiru hamarkada daramate muturreko txirotasun eta zaugarritasun baldintzetan bizitzen, Aljeriako *hammadaren* erdian (Aljeriako basamortuko alderdirik lehorena), eta nazioarteko laguntzaren mende ia erabat.

Adibidez, elikadurari dagokionez, mendekotasun egoera hori ia erabatekoa da, nahiz eta hasiak diren zenbait garapen proiektu inplementatzen, errefuxiatuen zaurgarritasuna gutxitzeko. Nazioarteko laguntza hori, herritarren bizi iraupenerako ez ezik, presio mekanismo gisa ere erabili dute nazioarteko hainbat eragilek gatazkaren garapen politikoan.

### 3.2. Lankidetzaren politikaren garapena EAEn: 1998-2008

Aztertutako epearen amaiera, 2008. eta 2009. urteak zehazki, bereziki aipagarria izan da Eusko Jaurlaritzarentzat zein hiru Aldundientzat, orduan onartu baitira erakunde horien plan estrategikoak eta plan zuzentzaileak. Plan horien bitartez definitu da euskal administrazioek lankidetzaren eta garapenaren ikuspegiaren zer definizio proposatzen duten, eta, horrez gainera, hainbat gairen oinarriak finkatu dira, hala nola, lankidetzarako tresnak, esku hartzeko eremu sektorialak, esku-hartze guztietan kontuan hartu beharreko zeharkako ikuspegiak eta/edo estrategikotzat hartzen diren herrialdeen mugaketa.

Garapenerako Lankidetzaren Sustatzeko Funtsa (GLSF) 1990ean sortu zen. Hasieran, hiru Aldundiek (Araba,

Bizkaia eta Gipuzkoa) Funts horretan erantzen zituzten lankidetzarako beren partidak; Eusko Jaurlaritzak kudeatzen zuen Funtsa, eta Aldundiek erabaki batzordeetan (Batzorde Kudeatzailea) parte hartzen zuten, horietan berresten baitziren laguntza horien ebazpenak. 2001-2004 urteetan, Aldundiak GLSFetik irtezen hasi ziren, eta lurralde bakoitzarentzat programa bereziak abian jartzen hasi ziren. Beraz, gure azterketaren epealdian garrantzi handigoa edukiko du Eusko Jaurlaritzak sustatutako lankidetzaren Aldundiek sustatutakoak baino, azken horiek sustatutako ekimenen garapen eta sistematizazio maila txikiagoa baita.

Funtsen bolumenari erreparatuz gero (1. taula), egiazta dezakegu 2002tik 2007ra pixkanaka-pixkanaka handitu egin direla GLSF barneko funtsak eta ugartu egin direla lankidetzaren tresnak edo kapituluak. Edonola ere, ikerketa honetan, eta, hortaz, koaderno honetan, lankidetzaren proiektuei buruz baino ez dugu jardungo (lehenengo kapitulua edo K1 izenez ezagunak); proiektuetan eskaera egin duten euskal erakundeak daude, bai eta proposamenak gauzatuko dituzten herrialdeetako tokiko erakundeak ere. Proiektuen kapituluetara bideratu dira, askogatik, funts gehien, hain zuzen ere, guztizkoaren %63.

**1. taula. Eusko Jaurlaritzaren emandako funtsen bolumena (eurotan), 2002-2007**

Kapitulua	Guztira	2002	2003	2004	2005	2006	2007
Lankidetzaren zuzendaritzako beka	540.000	108.000	0	108.000	108.000	108.000	108.000
Lankidetzaren boluntarioak	2.030.715	471.526	0	473.336	250.812	429.559	405.482
Boluntarioak NBEtan	6.060.083	1.228.500	0	1.660.500	1.282.500	931.500	957.083
Ekintza humanitarioko proiektuak	10.918.713	270.202	1.913.272	1.114.463	2.954.310	1.990.738	2.675.728
Lankidetzaren proiektuak	118.795.133	19.294.438	18.657.822	18.088.348	18.983.358	20.471.252	23.299.913
Laguntza teknikoko proiektuak	7.117.058	1.707.126	971.893	1.088.988	1.016.640	927.386	1.405.025
Garapenerako hezkuntza proiektuak	14.703.592	2.579.727	1.963.042	2.047.990	2.496.080	2.679.996	2.936.755
Lankidetzaren programak	4.498.586	0	0	0	0	0	4.498.586
Aldi bereko finantzaketa hitzarmenak	18.359.618	391.985	2.862.339	1.431.116	1.916.964	5.077.161	6.680.053
Lankidetzaren boluntarioaren saria	93.000	15.500	15.500	15.500	15.500	15.500	15.500
Euskadiko Gazteak Lankidetzaren	1.100.000	180.000	180.000	180.000	180.000	180.000	200.000
Administrazioeko kostuak	3.930.385	545.266	481.324	585.087	699.833	618.875	1.000.000
<b>Guztira(*)</b>	<b>188.136.890</b>	<b>26.792.270</b>	<b>27.045.192</b>	<b>26.793.328</b>	<b>29.903.997</b>	<b>33.429.967</b>	<b>44.182.125</b>

(\*) Guztizkoetatik dezimalak kenduta kopiatuta da taula. Hori dela eta, guztizkoak aldatu egin dira pixka bat, baina ez dira alde nabarmenak izan, eta ez da datuen zentzua aldatu.

Iturria: 2002-2007 memoria. Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza.



2007ko otsailaren 22an onartu zen Lankidetzako Euskal Legea, eta, bertan, euskal lankidetzari esparru bat emateaz gainera, “2012. urterako EAEko aurrekontuen %0,7 lankidetzara bideratzeko konpromisoa” biltzen da. Horrek, beraz, GLSFeko funtsak nabarmen igotzea ekarri beharko luke. 2008. urtean, lankidetzarako aurrekontuak EAEko<sup>6</sup> aurrekontu osoaren %0,45 hartzen zuen.

Aztertutako urteetan, proiektuetarako laguntzetarako deialdia hainbat Ebazpen Arauemaileren bitartez egin da. Ebazpen horietan laguntzaren helburua eta izapideei eta beste hainbat gairi buruzko informazioa ematen zen, eta baita urte bakoitzerako xedatutako aurrekontua definitzen zuten deialdi aginduak, barematzeko irizpideak, aurkezteko inprimakiak, etab. ere. 2006. urtea arte, *proiektuen ebazpena* izenez ezagutzen zenak arautzen zituen lau tresna hauetarako laguntzak: lankidetzara proiektuak (lehenengo kapitulua), laguntza teknikoko proiektuak (bigarren kapitulua), garapenerako hezkuntza (hirugarren kapitulua) eta ekintza humanitarioa. 2007. urteaz geroztik, ekintza humanitarioko ildoak berariazko ebazpena du.

Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritzaren 2002-2007 Memoriaren arabera, Peru da proiektuen funtsen herrialde hartzaile nagusia, 18.332.020 € (%11,43), eta Guatemala da bigarrena, 17.229.941 € (%10,62). Ekuadorrek zortzigarren lekua hartzen du, 7.762.121 € (%4,84), eta SEADek hamargarrena, 5.393.721 € (%3,36).

Lehentasuneko eremu geografikoen definizioa aldatu egin da denboraren joanean. Ebazpenen azterketetatik ondoriozta daiteke lehenengo urteetan herrialdeen GGIA hartzen zela kontuan, eta, ondoren, zenbait herrialde estrategiko definitzen hasi ziren. Era horretara, eskaerak barematzeko orduan lau puntu ematen zitzairen honako herrialde hauetan egiten ziren proiektuei: El Salvador, Guatemala, Honduras, Nikaragua, Mexiko, Dominikar Errepublika, Kuba, Bolivia, Kolonbia, Ekuador, Peru, Venezuela, Boli Kosta,

Ruanda, Mozambique, Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Angola, Palestina eta India. Orain arte, lehentasuneko herrialdeen definizioak hainbat aldaketa izan ditu, eta azkena 2008-2011 Plan Zuzendarian egin da; hala ere, aztergai ditugun lau herrialdeak beti egon dira zerrenda horretan, eta horixe izan zen horiek hautatzeko erabili genuen irizpideetako bat. Horiek guztiak lehentasunekoak izateaz gainera, Guatemala da, Kubaren ondoren, Herrialde Estrategia bat duen bigarren herrialdea, hau da, plangintzarako eta izaera estrategikorako tresna bat duena.

Generoaren ikuspegia txertatzeari dagokionez, 2002. urtetik aurrera “generoaren ikuspegia txertatzen ez duten proiektuak zuzenean baztertea”<sup>7</sup> erabaki zen. 1998. urteaz geroztik, “emakumeen eta gizonen aukera berdintasuna bermatzea”<sup>8</sup> eta antzeko gaiak hartzen ziren kontuan, eta 2001. urtean zehazki aipatzen zen *generoaren ikuspegia* txertatu beharra; gainera, lau punturekin barematzen zen. Diru laguntzak arautzeko 2005eko Ebazpenean, generoaren zeharkakoa beste hiru punturekin barematzen zen, hau da, gehien zazpi puntu izan zitezkeen. Urte horretan bertan, generoaren ikuspegiaren garapenari puntuak ematen hasi zitzaizkion erakundeetan, eta ordutik aurrera, modu positiboan baloratzen hasi ziren generoko erakunde politika bat duten erakunde eskatzaileak eta tokiko erakundeak. 2006ko proiektuen deialditik abiatuta, gutxienez funtsen %10 finkatzen da zuzenean emakumeei zuzendutako esku-hartzeentzat edo genero ekitatea helburu dutenentzat.

Herritarren partaidetzari dagokionez, 2001. urtean lau puntu bitarteko balorazioa izan zezakeen alderdi horrek. Proiektuaren onuradunek proiektu horren ahalik eta fase gehienetan *parte hartzea* kontuan hartzen zen alderdi horretan, hau da, identifikazioan, formulazioan, gauzatzean eta ebaluazioan parte hartzea. Horrez gainera, esku-hartze osoaren zeharkako ildo gisa ezartzen zen erakunde komunitarioak bultzatzea.

<sup>6</sup> *Memoria 2002-2007* lanetik ateratako informazioa, Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza. Etxebizitza eta Gizarte Gaiak Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 2008ko urria. ISBN: 978-84-457-2806-2.

<sup>7</sup> *Memoria 2002-2007*. Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz, 2008ko urria. ISBN: 978-84-457-2806-2.

<sup>8</sup> Otsailaren 17ko 22/1998 Ebazpena, zeinaren arabera arautzen eta deitzen diren Lankidetzarako eta Garapenari Laguntzeko Funtsaren kontura diren proiektuetarako laguntzak, 1998. urterako.

Partaidetzaren ideia horri 2005. urtea arte egonkor eutsi zitzaion, gutxi gorabehera; hau da, elkarrri estu lotutako zeharkako bi ildo agertu ziren arte: tokiko gaitasunak indartzea (bost puntu bitarte) eta prozesu parte-hartzaileak sortzea (gehienera zazpi punturen balorazioarekin).

Hala, bada, generoaren eta partaidetzaren ikuspegiak mailaka-mailaka txertatu direla esan liteke, bereziki zeharkako ildoen definizioen bitartez, tokiko giza garapena lortzeko ezinbestekoak baitira. 2008ko Ebazpenean, zeharkako ildoak 36 puntura iristen dira proposamenen guztizko baremazioan, eta honako gai

hauet egiten diete erreferentzia: generoaren ikuspegiak txertatzea; tokiko gaitasunak sendotzea; parte hartze-ko prozesuak sortzea; erakundea indartzea; eskubide- en ikuspegia; eta iraunkortasun ekologikoa.

Aldundiek finantzari gisa egin duten ibilbidea –beraien deialdi ildoen bitartez– Eusko Jaurlaritzarena baino zertxobait berriagoa da; baina aurrerabidea nabarmena izan da, 2009an Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzendaria 2009-2011 definitzea eta onartzea lortu baitzen. Egitasmo horretan, 2008. urte bitartean hiru Aldundiek lankidetzaren alorrean izandako esperientzia-ri buruzko informazioa azaltzen da (2. taula).

**2. taula. Foru Lankidetzaren funtsak 2004-2008, laguntza motaren arabera**

Erakundea	Laguntza mota	2004	2005	2006	2007	2008
AFA	Garapen proiektuak	1.692.000	1.200.000	1.263.213	1.299.570	2.358.581
	Laguntza humanitarioa eta larrialdikoa	258.661	245.078	215.000	215.185	241.794
	Garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntza proiektuak	132.092	122.417	148.415	80.100	200.000
	Beste lankidetzaren modu batzuk	91.755	120.842	181.228	183.506	238.405
	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.174.508</b>	<b>1.688.337</b>	<b>1.807.856</b>	<b>1.778.361</b>	<b>3.038.780</b>
BFA	Garapen proiektuak	5.673.000	5.761.874	6.270.939	7.321.145	8.083.092
	Laguntza humanitarioa eta larrialdikoa	156.000	192.000	1.150.000	661.029	760.917
	Garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntza proiektuak	600.000	660.000	660.000	748.188	1.000.000
	Beste lankidetzaren modu batzuk	410.000	731.408	540.000	780.374	1.414.969
	<b>GUZTIRA</b>	<b>6.839.000</b>	<b>7.345.282</b>	<b>8.620.939</b>	<b>9.510.736</b>	<b>11.258.978</b>
GFA	Garapen proiektuak	2.329.037	2.517.252	3.069.126	3.336.497	3.559.463
	Laguntza humanitarioa eta larrialdikoa	100.000	200.000	200.000	200.000	200.000
	Garapenerako sentsibilizazio eta hezkuntza proiektuak	500.000	400.000	450.000	500.000	500.000
	Beste lankidetzaren modu batzuk	0	42.000	42.000	127.000	145.000
	<b>GUZTIRA</b>	<b>2.929.037</b>	<b>3.159.252</b>	<b>3.761.126</b>	<b>4.163.497</b>	<b>4.404.463</b>
<b>Aldundien urteko guztizkoa</b>		<b>11.942.545</b>	<b>12.192.871</b>	<b>14.189.921</b>	<b>15.452.594</b>	<b>18.702.221</b>

Iturria: Garapenerako Lankidetzaren Plan Zuzendaria 2009-2011.

Ikus daitekeenez, garapen proiektuak dira hiru Aldundien eskutik finantzaketa gehien jaso duten laguntza motak, eta, horrez gainera, finantzaketa hori etengabe hazi da 2004. eta 2008. urteen bitartean. Bizkaiko Foru Aldundia da funts gehien kudeatu dituen; haren ondoren Gipuzkoako Foru Aldundia dago, eta hirugarren lekuan, Arabako Foru Aldundia.

Latinoamerikara bideratu dituzte hiru Aldundiek lankidetzaren proiektu gehienak, hain zuzen ere, arabar proiektuen %54, bizkaitarren %76 eta gipuzkoarren %68. Foru erakundeek finantzaturako proiektuak honako lau sektore hauetan bildu dira: Hezkuntza (AFA, %30; BFA, %38; GFA, %35); Ondasunen edo zerbitzuen ekoizpena (BFA, %20; GFA, %24);

Osasuna (AFA, %21; BFA, %11); eta Giza Eskubi-  
deak (GFA, %10).

Generoaren ikuspegia, hasieratik beretik, etenik gabe-  
ko irizpidea izan da hiru Aldundientzat; beste alderdi  
batzuk, aldiz, gehiago aldatu ahal izan dira. 2004tik

2008rako aldian hainbat aldaketa gertatu ondoren,  
azken urtean “generoaren ikuspegiaren” garrantzi erla-  
tiboia %10era iritsi zen AFAn eta GFAn eta %8ra  
BFAn.





## 4. Azterketa kuantitatiboaren emaitzak

Atal honen helburua Peru, Guatemala, Ekuador eta SEADeko euskal lankidetzaren argazki dinamikoa egitea da, 1998 eta 2008 bitarteko hamarkada kontuan hartuta. Honako honetan aurkeztuko dugun azterketa kuantitatiboaren azken asmoa ez da izan ondorio itxiak bilatzea, kategoria nagusien inguruko joerak identifikatzea baizik.

*Euskal lankidetzari* buruz ari garenean, euskal erakunde baten eta tokiko erakunde baten partaidetzarekin eta Eusko Jaurlaritzaren eta hiru Foru Aldundien<sup>9</sup> finantzaketarekin egindako lankidetzak proiektuak hartzen ditugu kontuan. Beraz, ez ditugu beste lankidetzak tresna batzuk kontuan hartuko, esate baterako, zuzeneko lankidetzak hitzarmenak, laguntza teknikoko proiektuak edo programak<sup>10</sup>. SEADen kasuan, Euskal Fondoak eta udalek sustatutako lankidetzak ere aztertu da; horiez gainera, ekintza humanitarioko kapituluaren barruan onartutako Eusko Jaurlaritzaren proiektuak ere hartu dira kontuan<sup>11</sup>.

Aldagai ugari erabil litezke, baina guk bi irizpide hauei jarraituz hautatu ditugu: alde batetik, ondorengo azterketa kuantitatiboari begira duen garrantzia, eta, beste alde batetik, bultzatu nahi den garapen ikuspegi identifikatzeko duen garrantzia. Honako gai hauei buruzko informazioa jaso zen:

1. 1998tik 2008ra bitartean lau herrialdeetan gauzatutako proiektu kopurua eta aurrekontua.
2. Lehentasunezko eremu geografikoak lau herrialdeetan.
3. Helburu sektoreak.
4. Proiektu horiek gauzatu dituzten euskal erakundeak eta tokiko erakundeak.
5. Genero ikuspegiaren txertatze maila eta tokiko giza garapena.

Galdera hauei erantzun nahi izan diegu aldagai horien guztien azterketaren bitartez:


<sup>9</sup> Ez ditugu ez Nafarroa ez Iparraldea sartu, irisgarritasuna eta konparagarritasuna dela-eta.

<sup>10</sup> Laguntza proiektuak aipatzen ditugunean, GLSFren Proiektuak Ebazpenaren II. Kapituluaren arautzen eta *Garapen produktiboko eta prestakuntzako eta laguntza teknologikoko proiektuentzako laguntzak* gisa definitzen direnei buruz ari gara. Laguntza ildo horrek hainbat berezitasun ditu I. kapituluakoenak, hala nola, aurkeztu diren erakunde motak edo bertako bazkide bat eduki beharrik eza. Bestalde, *programak* tresna 2007an jarri zen martxan.

<sup>11</sup> 2007. urtea arte, ekintza humanitaria etengabeko laguntzarako deialdia zen, GLSFaren Proiektuak Ebazpenak arautua (horren barneko kapitulu bat), eta urte horretatik aurrera, Ebazpen berezi bat izan zuen. Ekintza humanitarioko proiektuek ez dituzte lankidetzak proiektuek dituzten baldintza berak, ezta baremazio bera ere; baina Sahararen berezitasuna kontuan hartuta, beraien babes egoera eta era horretako laguntzek eskualde horretan izan duten garrantzia kontuan hartuta, azterketan sartzea egokia zela pentsatu zen.

1. *Giza garapenak tokikoaren eremura eramaten bagaitu*, izan al da lankidetzaren kontzentrazioerik eskualdeka?
2. *Tokiko giza garapenak prozesuetara eramaten bagaitu*, zer leku izan du euskal lankidetzak lau herrialde horietan aztertutako hamarkadan? Zer bilakaera izan du? Zer esan dezakegu proiektu kopuruari dagokionez? Eta aurrekontuaren tamainari dagokionez? Zer esan dezakegu euskal erakundeen eta tokiko erakundeen arteko harremanak denboran izan duen egonkortasunari buruz?
3. *Tokiko giza garapenak integralitatera eramaten bagaitu*, zer jarduera sektorek izan dute lehentasuna?
4. *Tokiko giza garapenak generoaren ikuspegia txertatzera eta partaidetza bultzatzera eramaten bagaitu*, zer esan dezakegu ikuspegi horiek euskal lankidetzak babestutako proiektuetan txertatzeari buruz?

laguntza ildoak kudeatzen. Beraz, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako lankidetzaren azterketaren parte batek foru lankidetzari ere hartzen du. Zehazki Aldundien lankidetzari buruz ari garenean, aztertutako aldia oso laburra denez, joera hasi berriei buruz baino ezin dugu hitz egin.



Iturria: Lau Herrialde Txosten, lan honetarako berariaz egina.

#### 4.1. Euskal lankidetzak, finantzaketa iturrien arabera

Ez dugu ahaztu behar aztertutako garaia lehenengo urteetan hiru Foru Aldundiek GLSFan parte hartzen zutela eta 2001 eta 2004 bitartean funtsa utzi ondoren hasi zirela lankidetzak proiektuetarako beraien

Eusko Jaurlaritzaren finantzaketak lau herrialdeetan zenbateko pisua izan duen erakusten du 1. grafikoa: %77 Perun, %80 Guatemalan, %81 Ekuadorren eta %90 SEADen.

**3. taula. Eusko Jaurlaritzak onartutako proiektuak eta aurrekontua, 1998-2008**

	Peru		Guatemala		Ekuador		SEAD	
	Proiektuak	Euroak	Proiektuak	Euroak	Proiektuak	Euroak	Proiektuak	Euroak
<b>1998</b>	12	1.327.216	13	1.677.273	4	512.463	1	601.012
<b>1999</b>	17	2.040.857	10	1.911.096	4	279.798	1	253.525
<b>2000</b>	24	5.005.854	8	1.677.125	5	1.362.284	3	986.031
<b>2001</b>	11	1.893.844	3	1.525.548	3	614.659	2	750.035
<b>2002</b>	18	3.350.365	6	1.652.165	5	1.044.809	4	1.305.632
<b>2003</b>	7	1.767.727	8	2.242.288	3	869.954	4	1.166.840
<b>2004</b>	11	2.485.847	6	1.891.200	5	1.175.622	2	780.740
<b>2005</b>	10	2.030.249	10	2.797.729	4	1.081.871	3	1.217.608
<b>2006</b>	5	1.767.899	8	2.832.292	4	1.292.967	4	1.263.402
<b>2007</b>	12	3.267.245	8	2.553.955	6	1.668.541	7	2.068.827
<b>2008</b>	15	4.743.487	7	2.607.649	5	2.054.994	4	1.525.957
<b>Total</b>	<b>142</b>	<b>29.680.590</b>	<b>87</b>	<b>23.368.320</b>	<b>48</b>	<b>11.957.962</b>	<b>35</b>	<b>11.919.609</b>

Iturria: Lau Herrialde Txosten, lan honetarako berariaz egina.

3. taulan ikus daiteke Peru finantzatu direla proiektu gehien, 142 hain zuzen ere, eta haren ondoren daudela Guatemala (87), Ekuador (48) eta, azken lekuan, SEAD (35). Guztizko aurrekontuari erreparatuz gero ere ordena horri berari eusten zaio, hau da, finantzaketa gehien jaso duten herrialdeak dira proiektu gehien dituztenak. Datu horien irakurketatik bi ondorio hauek azpimarra daitezke, gutxienez:

1. Peru eta Guatemala dira Eusko Jaurlaritzaren eskutik funts gehien jasotzen dituztenak: Peru Guatemalan baino 55 proiektu gehiago daude. Bi herrialde horien arteko aurrekontu aldea txikiagoa da, 6.312.270 €-ra iristen baita.

2. Ekuadorren SEADen baino 13 proiektu gehiago finantzatu dira, baina aurrekontuari dagokionez dagoen aldea txikia da.

SEAD da finantzaketa gutxien jasotzen duen herrialdea, eta hori bera da proiektuko batez besteko aurrekontu handiena duena (340.560 €); horren ondoren daude Guatemala (268.601 €) eta Ekuador (249.124 €). Eta Peru bada ere funts gehien izan dituen herrialdea, bera da proiektuko batez besteko aurrekontu txikiena duena (209.018 €).

4. taula. Foru Aldundiek onartutako proiektuak eta aurrekontua, hainbat urtez

	Peru		Guatemala		Ekuador		SEAD	
	Proiektuak	Euroak	Proiektuak	Euroak	Proiektuak	Euroak	Proiektuak	Euroak
<b>AFA</b>	12	795.602	3	287.105	4	493.709	3	367.980
<b>BFA</b>	49	6.501.427	30	4.197.452	18	2.138.997	4	836.854
<b>GFA</b>	12	1.455.688	13	1.379.654	2	275.810	1	89.000
<b>Guztira</b>	<b>73</b>	<b>8.752.717</b>	<b>46</b>	<b>5.864.211</b>	<b>24</b>	<b>2.908.516</b>	<b>8</b>	<b>1.293.834</b>

Iturria: Lau Herrialde Txosten, lan honetarako berriaz egina.

4. taulari esker, herrialdeen rankingak ezarri ditzakegu Foru Aldundientzat, hiru irizpide hauen arabera: proiektuak, funtsak guztira eta batez besteko aurrekontua proiektuko. 2001. urteaz geroztik zuzenean proiektuak finantzatzen dituen Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, honako hau da ordena, handienetik txikienera:

- Proiektuak: Peru (49), Guatemala (30), Ekuador (18) eta SEAD (4).
- Aurrekontua guztira: Peru (6.501.427 €), Guatemala (4.197.452 €), Ekuador (2.138.997 €) eta SEAD (836.854 €).
- Batez besteko aurrekontua proiektuko: SEAD (209.213 €); Guatemala (139.915 €), Peru (132.682 €) eta Ekuador (118.833 €).

Arabako Foru Aldundiak 2004tik 2008ra finantzatu-tako proiektuen azterketaren arabera, honako hau da herrialdeen ordena:

- Proiektuak: Peru (12), Ekuador (4), Guatemala (3) eta SEAD (3).
- Aurrekontua guztira: Peru (795.602 €), Ekuador (493.709 €); SEAD (367.980 €) eta Guatemala (287.105 €).

- Batez besteko aurrekontua proiektuko: Ekuador (123.427 €), SEAD (122.660 €), Guatemala (95.702 €) eta Peru (66.300 €).

Ariketa hori bera Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eginez gero, honako ordena hau lortzen da:

- Proiektuak: Guatemala (13), Peru (12), Ekuador (2) eta SEAD (1).
- Aurrekontua guztira: Peru (1.455.688 €), Guatemala (1.379.654 €), Ekuador (275.810 €) eta SEAD (89.000 €).
- Batez besteko aurrekontua proiektuko: Ekuador (137.905 €), Peru (121.307 €); Guatemala (106.127 €) eta SEAD (89.000 €).

Interesgarria da administrazioen artean dagoen aldea proiektuen batez besteko aurrekontuari dagokionez; horrek, logikoa denez, lotura zuzena du deialdi bakoitzarentzat bideratutako guztizko aurrekontuarekin. 5. taulan administrazio bakoitzaren batez besteko aurrekontu handienari edo txikienari buruzko informazioa azaltzen da, labur-labur.


5. taula. Batez besteko aurrekontua, finantza erakundearen arabera		
	Batez besteko aurrekontu handiena	Batez besteko aurrekontu txikiena
<b>EJ</b>	SEAD - 340.560 €	Peru - 209.018 €
<b>BFA</b>	SEAD - 209.213 €	Ekuador - 118.833 €
<b>AFA</b>	Ekuador - 123.427 €	Peru - 66.300 €
<b>GFA</b>	Ekuador - 137.905 €	SEAD - 89.000 €

Iturria: Lau Herrialde Txosten, lan honetarako berariaz egina.


5. taula SEADen kasuan, Euskal Fondoaren 11 proiektu (1.631.821 €) eta hainbat udalen proiektuak (1.462.241 €) ere aztertu dira, euskal udalek saharar herriarekin izan dituzten solidaritate harreman estu eta etengabeen erakusgarri direlako, funtsean. Euskal Fondoaren batez besteko aurrekontua, proiektuko, 148.347 €-koa da, eta udalena, berriz, 19.240 €-koa. Alde horrek lotura du tokiko erakundeek lankidetzaren alorrera bideratzen duten aurrekontuekin.

## 4.2. Euskal lankidetzaren bilakaera, 1998-2008

2. grafikoa ikus daitekeenez, aztertutako epearen amaieran hasieran baino proiektu gehiago badituzte ere, gorabehera handiak daude urteen joanean, eta hori guztiz logikoa da kontuan hartutako proiektu kopurua erabat mugatua delako. Guztizko aurrekontua kontuan hartuta (3. grafikoa), lau kasuetan joera goranzkoa dela ikus daiteke. Guatemala eta Ekuadorren igoera da guztietan iraunkorrena eta progresiboena. Perun, aldiaren amaieran funtsen igoera handia bada ere, igoera hori 2006. urtetik aurrera gertatzen da bereziki, hainbat urtez igoerak eta jaitsierak izan ondoren. SEAD da aztertutako aldia punturik altuenean amaitzen ez duen herrialde bakarra, igoera hori 2007an izan baitzen.



Iturria: Lau Herrialde Txosten, lan honetarako berariaz egina.



Iturria: Lau Herrialde Txosten, lan honetarako berriaz egina.

Eusko Jaurlaritzak finantzatutako proiektuen kopurua nahiko egonkorra izan da aztertutako hamar urteetan zehar. Lau herrialde horien artean, Peru da gorabehera gehien izan dituen herrialdea: 2000. urtean 24 proiektu onartu ziren, eta 2006an, berriz, bost baino ez ziren finantzatu. Guatemalan proiektu kopurua hamarkadaren hasieran jaitsi egin bazen ere, 2002. urteaz geroztik suspertu, eta aldiaren azken partean egonkortu egin zen. Ekuador da herrialderik egonkorrena, eta SEADek 2005. urtetik aurrera igoera txiki bat izan zuen proiektu kopuruari dagokionez.

Onartutako aurrekontuei dagokionez, SEADek goranzko joera du, eta horixe da proiektuko batez besteko aurrekontu handieneko herrialdea. Ekuador eta Guatemalak bilakaera etengabea izan dute, eta aldiaren amaierako aurrekontua hasierakoa baino nabarmen handiagoa da. Igoera hori bereziki garrantzitsua da Ekuadorren kasuan: hamarkadaren hasierako aurrekontua 512.463 €-koa da lau proiekturako, eta amaierako aurrekontua, berriz, 2.054.463 €-koa da, bost proiekturako. Hau da, laukoiztu egin du hasierako aurrekontua, eta nabarmen handitu da proiektuko batez besteko aurrekontua. Peruren bilakaera da guztietan aldakorrena, bereziki lehenengo bost urteetan, azken urteetan nabarmena baita goranzko joera.

Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, Peru da proiektu gehien jaso dituen herrialdea eta bilakaera egonkorrena izan duena, 2004. urteaz geroztik batez ere; aitzitik, Guatemalaren bilakaera izan da guztietan bestelakoena, izan ere, 2006. urtean ez zen proiekturik onartu, eta 2008an, berriz, bederatzia finantzatzera iritsi ziren. Ekuadorren, 2006. urtean iritsi zen proiektu kopuru handiena; SEADek, berriz, azterketa aldiko zortzi urteetatik hiritan baino ez du finantziatzea izan. Ekuadorrek eta Peruk ez dute finantzaketarik jaso aldiaren amaieran.

Aldiaren amaieran, 2008an, lau herrialdeek jasotzen zuten Arabako Foru Aldundiaren finantziatzea. Peru izan da proiektu gehiagorentzako finantziatzea lortu duena, eta baita bilakaera gorabeheratsuena izan duena ere; aldi horretako zenbait urtetan bost proiektu finantzatu ditu, eta beste batzuetan, berriz, bakar bat. SEAD izan da bilakaera egonkorreneko herrialdea; batez beste proiektu bat izan du urteko. Ekuadorren eta Guatemalaren kasuan zaila da joera argiak identifikatzea.


Perun eta Guatemalan finantzatu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektu gehien. Peruk izan du bilakaera gorabeheratsuena, eta Guatemalan egonkorragoa izan da bilakaera, urteko bi edo hiru proiekturakin.

Gipuzkoar administrazioak batez beste proiektu bat finantzatu du bi urtez behin Ekuadorren, eta ez du bate-re finantzatu azken lau urteetan SEADen.

### 4.3. Funtzen helburu geografikoa

Euskal lankidetzaren banaketa eskualdeen arabera aztertzeko, honela banatu da Peru: Kostaldea, Men-

dialdea eta Amazonia. 4. grafikoan ikus daiteke proiektuen %43 Kostaldean bildu dela, %35 Mendialdean eta %17 Amazonian. Eremu bakoitzera bideratutako aurrekontua kontuan hartuz gero, ordena hori aldatu egiten da: %47 Mendialdeari dagokio, eta %37 Kostaldeari. Mendialdean daude proiektu handienak, eta Kostaldean, berriz, proiektu gehiago badaude ere, txikiagoak dira tamainaz.




Iturria: Peruri buruzko Herrialde Txostena (Guridi eta Molina, 2011).

Guatemala era honetara banatu zen: Kostaldea, Mendialdea, Petén (Baso Tropikal Hezea), Hego-ekialdea, Ipar-ekialdea eta Erdialdea. Guatemalako mendialdea da proiektu (%45) eta funts (%47) gehien jaso dituen. Ondoren, Ipar-ekialdeko eremua dago, proiektuen %17 eta aurrekontuaren %18 hartzen duena. Beraz, euskal lankidetzari bi eremu horietan nabarmen bilduta dagoela esan liteke, bien artean proiektuen %62 eta aurrekontuaren %65 hartzen baitute (5. grafikoa). Bi eskualde horien garrantzia azaltzen duten hainbat arrazoi daude: Guatemalako GKE asko daude eremu horretan lanean; herri indigena asko bizi dira bertan; horietan daude pobrezia eta zaurgarritasun maila handieneko guneak. Mendialdean eta Ipar-ekialdean daude, hain justu, herrialdeko GGI txikieneko departamenduetako batzuk: Sololá, Huehuetenango, Alta Verapaz, Totonicapán eta Quiché.

Petén da proiektu gutxien dituen, aurrekontuaren ehuneko txikiena duena eta proiektuko batez besteko aurrekontu txikienakoa. Kontrako muturrean, Mendialdea

dago, proiektuko batez besteko aurrekontu handieneko eremua, hain zuzen ere. Era horretara, Guatemalaren kasuan Mendialdea eta Petén dira, argi eta garbi, euskal lankidetzaren helburuaren bi muturrak.




Iturria: Guatemalari buruzko Herrialde Txostena (Guzmán, 2011).

Ekuador hiru eremutan banatu zen: Kostaldea, Mendialdea eta Amazonia. Galapagoen eskualdean ez zen euskal lankidetzak finantzaturako proiekturik topatu. 6. grafikoa ikus daitekeenez, lankidetzako proiektuen %49 eta aurrekontuaren %41 Mendialdean pilatu zen. Bigarrenik, proiektuen %32 eta guztizko aurrekontuaren %34 Kostaldean dago, eta hirugarren eta azken lekuan, Amazonia dago, proiektuen %19 eta aurrekontuaren %25ekin. Ekuadorren, Guatemalan ez bezala, alderantzizko harremana dago proiektu kopuruaren eta horien tamainaren artean: Mendialdea da proiektu gehien dituen eremua, baina, aldi berean, eremu hori da

proiektuko batez besteko aurrekontu txikiena duena; Amazoniaren ingurua da, berriz, proiektu gutxien dituen, baina horiek dira aurrekontu gehienekoak.

Ekuadorren, proiektuak ez dira biztanleria gehieneko eremuetan biltzen: Kostaldean biztanleriaren %49 bizi delako, Mendialdean %46 eta Amazonian %5. Bereziki aipagarria da Amazoniaren kasua, izan ere, euskal lankidetzak herrialde horretan duen aurrekontuaren %25 hartzen du, eta biztanleriaren %5 baino ez da bertan bizi; beraz, *per capita* finantzaketa askoz ere handiagoa da eremu horretan.



Iturria: Ekuadorri buruzko Herrialde Txostena (Villalba, 2011).

SEAD *wilaya* edo kanpalekuen arabera banatu da: Aaiun, Ausserd, Dakhla, Smara eta Otsailak 27. Oro har ez da informazio askorik lortu, izan ere, aldi berean kanpaleku batean baino gehiagotan gauzaturako proiektuak finantzatu dira, esate baterako, garraioarekin zerikusia dutenak. Eremu geografikoen arabera sailkatu ahal izan ziren proiektuen kasuan, Otsailak 27 *wilaya* izan da proiektu eta aurrekontu gehien jaso dituen.

#### 4.4. Euskal lankidetzaren helburua, jarduera sektorearen arabera

Ikerketa honetarako honako sektore hauek hautatu dira: Emakumeak/Generoa; Haurtzaroa; Giza Eskubideak; Nekazaritzaren eta Landaren Garapena; Oinarrizko Osasun Arreta; Garapen Integrala; Tokiko Garapen

Ekonomikoa; Oinarrizko Azpiegiturak eta Gizarte Zerbitzuak; Hezkuntza; Ingurumena; Gizarte Zibila Sendotzea; Erakundeak Sendotzea; Laguntza Humanitarioa. Azken sektore horretan, Laguntza Humanitarioaren sektorean alegia, SEADi buruzko azterketa baino ez da kontuan hartu, jardunbide humanitarioek euskal lankidetzaren eremuan izan duten pisua dela-eta. Beraz, sektore hori sahararren kasuaren azterketan baino ez da islatu.



6. taula. Euskal lankidetzaren sektorekako banaketa, 1998-2008

	Aurrekontuaren kontzentrazio handiena	Aurrekontuaren kontzentrazio txikiena	Proiekturik gabeko sektoreak	Proiektuko batez besteko aurrekontu handiena
<b>Peru</b>	Landaren/Nekazaritzaren garapena (%25) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (%22) Hezkuntza (%13)	Erakundeak sendotzea (%0,3) Haurtzaroa (%1,2)		Garapen Integrala (267.742 €) Gizarte Zibila Sendotzea (267.742 €)
<b>Guatemala</b>	Landaren/Nekazaritzaren garapena (%20) Gizarte Zibila Sendotzea (%17,9) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (%15,5) Hezkuntza (%14)	Giza Eskubideak (%0,6)	Haurtzaroa	Ingurumena (360.660 €) Erakundeak sendotzea (313.321 €) Garapen Integrala (310.078 €)
<b>Ekador</b>	Landaren/Nekazaritzaren garapena (%29) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (%13)	Emakumeak/Generoa (%3)	Erakundeak sendotzea	Ingurumena (316.331 €) Garapen Integrala (309.043 €)
<b>SEAD<sup>12</sup></b>	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (%53) Laguntza Humanitaria (%17,8) Gizarte Zibila Sendotzea (%10,4)	Emakumeak/Generoa (%2)	Hezkuntza Haurtzaroa Giza Eskubideak Landaren/ Nekazaritzaren garapena Erabateko Garapena Ingurumena	Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak (288.921 €) Tokiko Garapen Ekonomikoa (237.744 €)

Iturria: Lau Herrialde Txostena, lan honetarako berariaz egina.

6. taulak adierazten digu euskal lankidetzaren nolabaiteko kontzentrazio sektorialari buruz hitz egin dezakegula: Perun, hiru sektorek aurrekontuaren %60 hartzen dute; Guatemalan, lehentasunezko lau sektore daude aurrekontuaren %67,4 hartzen dutenak; Ekuadorren, bi sektorek baino ez badute ere aurrekontuaren %10aren muga gainditzen, bi horiek aurrekontuaren guztizkoaren %42 hartzen dute; SEADen hiru sektorek gainditzuten dute aurrekontuaren %10 eta hiruen artean funtsen guztizkoaren %81,2 hartzen dute.

Latinoamerikako hiru herrialdeetan nabarmena da kontzentrazioa Landaren Nekazaritzaren Garapenean eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen sektoreetan. Guatemalak eta Peruk Hezkuntzaren sektorea partekatzen dute, eta Guatemala da Gizarte Zibila Sendotzea sektoreari lehentasuna ematen dion herrialde bakarra.

Haurtzaroaren sektoreak oso leku txikia du, oro har, eta Guatemalan, esate baterako, ez dago sektore horretan inolako proiekturik. Antzeko zerbait gertatzen da Erakundeak Sendotzea sektorearekin, ez

baitago era horretako proiekturik Ekuadorren, eta Perun oso ehuneko txikia hartzen du. Deigarria da Giza Eskubideen sektoreak aurrekontuaren ehuneko txikiena jasotzea Guatemalan, nahiz eta Amerika Erdialdeko herrialde horretako giza eskubideen egoerari buruzko azterketari erreparatuta pentsa zitekeen alor horretako jarduerak izango zutela lehentasuna eta horiek hartuko lirakeela premia kotzat. Aipagarria da, halaber, Ekuadorren Emakumeak/Generoa sektoreak hartzen duela aurrekonturik txikiena. Azkenik, aipagarria da Garapen Integralaren sektoreak hartzen dituela, Latinoamerikako hiru herrialdeetan, batez beste aurrekontu handieneko proiektuak.

SEADen lehentasuna duten hiru jarduera sektoreak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Laguntza Humanitaria eta Gizarte Zibila Sendotzea dira, eta sei sektore daude (besteak beste, Garapen Integrala) inolako proiekturik izan ez dutenak. Emakumeak/Generoa sektoreak proiektuen %9 hartzen du, baina sektore hori da proiektuko aurrekontu txikienekoa, batez beste.

<sup>12</sup> Euskal Fondoaren eta udalen proiektuak hartu dira kontuan.



#### 4.5. Funtsen kudeaketa euskal erakundeen eta tokiko erakundeen eskutik

7. taulan Latinoamerikako hiru herrialdeei buruzko informazioa laburtzen da, eta 8. taulan tokiko erakunde nagusiak eta euskal erakunde nagusiak identifikatzen dira. Hiru herrialdeetan, proiektuak kudeatu dituzten tokiko erakundeak euskal erakundeak baino gehiago dira: Guatemalaren kasuan, euskal erakunde bat dago ia tokiko bi erakundeko (59/30, 1,96);

Perun, erlazioa 1,74koa da, eta Ekuadorren euskal erakunde bati tokiko erakunde bat baino apur bat gehiago egokitzen zaio, gutxi gorabehera, ratioa 1,33koa baita. Aztertutako hamar urteetan Peru izan da euskal erakundeen kudeaketako proiektu gehien izan dituen lurraldea, 43 hain zuzen ere, eta hori da, halaber, tokiko erakunde gehieneko herrialdea, 75 guztira. Edonola ere, hori logikoa da kontuan hartuta Peru dela proiektu gehien dituen herrialdea.

**7. taula. Funtsen kudeaketa euskal erakundeen eta tokiko erakundeen arabera**

	Euskal erakundeak	Tokiko erakundeak	Euskal erakundeen kontzentrazioa	Tokiko erakundeen kontzentrazioa	Proiektu bat duten euskal erakundeak	Proiektu bat duten tokiko erakundeak
<b>Peru</b>	43	75	7 erakundek proiektuen %58,14. 6 erakundek funtsen %59,34.	13 erakundek proiektuen %56,7. 9 erakundek funtsen %52,67.	%43	%56
<b>Guatemala</b>	30	59	6 erakundek proiektuen %58,6. 4 erakundek funtsen %58,1.	15 erakundek proiektuen %58,2. 10 erakundek funtsen %59,3.	%33	%56
<b>Ekuador</b>	24	32	7 erakundek proiektuen %56,04. 6 erakundek funtsen %59,3.	7 erakundek proiektuen %55,5. 4 erakundek funtsen %54,7.	%29	%56

Iturria: Lau Herrialde Txosten, lan honetarako berriaz egina.

Proiektuaren kontzentrazioari erreparatuta argi ikusten da Guatemalan eta Peru proiektu kontzentrazio handiagoa dagoela euskal erakundeetan tokiko erakundeetan baino: Guatemalan, sei euskal erakundeetan dago pilatuta herrialde horretan kudeatzen diren proiektuen %58,6, eta Peru, zazpi euskal erakundek hartzen dute proiektuen %58,14. Tokiko erakundeak aztertzen baditugu, bi herrialde horiek antzeko proiektu ehunekoa biltzen dute: 15 Guatemalan eta 13 Peru. Ekuadorren ez da halako alderik; zazpi euskal erakundek eta ekuadortar zazpi erakundek hartzen dute proiektuen %55.

Aurrekontuaren kontzentrazioa proiektu kontzentrazioa baino askoz ere handiagoa da. Kasurik nabarmenena Guatemalako da: lau euskal erakundek kudeatu dute aurrekontuaren %58,1. Peru eta Ekuadorren, sei euskal erakundek aurrekontuaren %59 baino gehiago hartu dute. Aurrekontuaren

banaketa handiagoa da tokiko erakundeen artean, Ekuadorren kasuan izan ezik; izan ere, azken horretan sei euskal erakundek hartzen dute funtsen %59,3, eta ekuadortar lau erakundek %54,7 hartzen dute.

7. taulan ikusten da aztertutako aldi handiagoa dela proiektu bakar bat kudeatu duten tokiko erakundeen ehunekoa euskal erakundeena baino. Proiektu bakar bat kudeatu duten euskal erakunde gehien izan dituen herrialdea Peru da: %43. Beraz, Peru daude euskal erakunde gehienak, baina horien erdiak proiektu bakar bat kudeatu dute aztertutako hamar urteko aldi; beraz, esan liteke erakunde asko ez direla modu jarraian aritu herrialde horretan. Hori bi arrazoren bitartez azal liteke: erakunde horiek herrialde horretan lan egiteari utzi diotela edo beste administrazio batzuen bitartez finantzatzen ari direla beren jarduerak.

8. taula. Aurrekontuaren ehuneko handiena kudeatu duten euskal erakundeak eta tokiko erakundeak		
	Euskal erakundeak	Tokiko erakundeak
<b>Peru</b>	Círculo Solidario Euskadi - Euskadiko Elkarbidea Zabalketa. F.I.S.C. -Fundación Innovación Social de la Cultura. Asociación ADECO – Amistad, Desarrollo y Cooperación. Alboan Fundazioa.	Círculo Solidario de Trujillo. Cáritas Diocesana Huancavelica. Cáritas Abancay. CEDEPAS Norte. Cáritas Cusco.
<b>Guatemala</b>	Entre Amigos – Lagun Artean. Mugarik Gabe. Mugen Gaietik. PROCLADE Euskadi. Nazioarteko Elkartasuna - Solidaridad. Internacional.	Fundación Rigoberta Menchú (TUM + FMRT). CEIDEC, Asociación Centro de Estudios Integrales y de Desarrollo comunal. Municipalidad de Santa Catarina, Ixtahuacán. CEIBA, Asociación para la promoción y el desarrollo comunitario. ASECSA – Asociación de Servicios Comunitarios de Salud.
<b>Ekuador</b>	PROCLADE Euskadi. Fundación Paz y Solidaridad. SETEM Hego Haizea. Medicus Mundi Araba. Frailes Menores Capuchinos Ali Vitoria.	MCCH – Fundación Machita Cuchunchic/ Comercializando como hermanos. FEPP, Fondo Ecuatoriano Populorum Progressio. Asociación Promotores de Salud Sandi Yura. IQBSS, Instituto Quichua de Biotecnología Sacha Supai. TAYJASARUTA, Pueblo Originario Kichwa de Sarayaku.

Iturria: Lau Herrialde Txosten, lan honetarako berariaz egina.

Tokiko erakundeen eta euskal erakundeen azterketa egin eta gero, honako ondorio hauek atera ditugu:

- Euskal erakundeek tokiko bazkide batekin baino gehiagorekin lan egiten dute.
- Euskal erakunde gutxiren artean kontzentrazio maila handia dago, aurrekontuei dagokienez batez ere. Datu hori proiektuei buruzko datuekin gurutzatuz gero, herrialdeetan etengabe lan egiten ari dela eta erakundeek aurrekontu handiko proiektuak kudeatzen dituztela ondoriozta daiteke.
- Tokiko erakundeetan kontzentrazioa euskal erakundeetan baino txikiagoa da Perun eta Guatemalan, ez ordea Ekuadorren.
- Peru da tokiko erakunde zein euskal erakunde gehien dituen herrialdea, eta Peru da, halaber, proiektu bakarra duten euskal erakundeen ehuneko handiena duena.
- Euskal erakundeek baino tokiko erakunde gehiagok kudeatu dute proiektu bakar bat, eta Ekuador da egoera horretan euskal erakunde gutxien dituen herrialdea.

- Euskal erakunde bakar bat dago (PROCLADE Euskadi) –funts eta proiektu gehien kudeatu dituena, hain zuzen ere–, herrialde batean baino gehiagotan diharduena.

Sahararako lankidetzaren mekanismoen izaeraren eraginez, zenbait kasutan, saharar kanpalekuetako tokiko erakundeetara bideratzen da laguntza zuzen-zuzenean. Proiektuak aztertu ondoren, 18 erakunde zenbatu ziren guztira, euskaldunak eta tokikoak kontuan hartuta, eta horien artean honako hauek nabarmentzen dira: Fronte Polisarioa; UNMS; SEADen Lagunen Elkartea; Hegoa Elkartea; Getxo pro SAHARA AFTAL Elkartea, Mundubat, Herria – Durango Auzo Elkartea; eta SEADekiko Elkartea Solidarioen Euskal Koordinakundea.

#### 4.6. Generoaren eta Tokiko Giza Garapenaren ikuspegia txertatzea

Generoaren ikuspegia identifikatzeko, honako kategoria hauek erabili dira: generoa garapenean ikuspegi esplizitua (GG), Emakumeak garapenean (EG) ikus-

pegia; generoa garapenean ikuspegi implizitua (GGI); ez da GG edo EG ikuspegirik hauteman<sup>13</sup>. Generoaren azterketa kuantitatiboa egiteko, eskura izan dugun baino informazio gehiago behar da; beraz, atal honetan datu orokorrak azalduko ditugu. 9. taulan ikus daiteke aztertutako proiektu gehienetan ez dugula inolako genero ikuspegirik hauteman. Hala ere, horrek ez du esan nahi *hauteman gabe* atalean sailkatutako proiektuek ez dutenik genero ikuspegirik; horrek besterik gabe adierazten du proposatutako metodologiari jarraituz *hauteman gabe* kategorian sartzen dela. Bi arrazoiren eraginez gertatu liteke hori: ez delako ikuspegi hori txertatu, edo, bestela, aztertutako dokumentazioan ez delako behar adina zehaztu. Hori bera gerta liteke GG eta EG ikuspegiaren arteko bereizketarekin. Horregatik, 9. taulan bi bloke hauetan bildu ditugu kategorია guztiak: hautamena eta hauteman gabea.

Ikerketa horrek erakutsi digu, halaber, teoria eta praktika ez datozela beti bat. Hain zuzen ere, landa-lanaren bitartez egiaztatu ahal izan dugu, aurkeztutako dokumentazioaren azterketa oinarri hartuta, “genero ikuspegia hauteman gabe” kategorian sailkatutako proiektu batzuek bazutela, praktikan, emakumeen egoera aldatzeko asmoa. Eta zenbait kasutan, kontrako ere gerta daiteke, hau da, beraien txostenetan generoaren ikuspegia oso ondo definituta zituzten proiektuek praktikan gai horri garrantzi txikia ematea. Edonola ere, azterketa kualitatiboaren bitartez egiaztatu ahal izan dugu generoaren ikuspegiaren tratamenduari dagokionez bilakaera oro har positiboa izan dela; era horretara, proiektu berriek genero-ekitatearen aldeko lana hobeto txertatu dute beraien ekimeneen logikan, bai praktikan bai dokumentazioan. Horrek lotura zuzena du administrazio finantzatzaileek

eskatutako baldintzetan generoaren ikuspegiak hartu duen garrantziarekin, eta horiek, aldi berean, GGKEen eskakizunei erantzuten ahaleginduko dira.

9. taula. Generoaren ikuspegia, herrialdez herrialde		
	Hauteman da	Ez da hauteman
Peru	%35,8	%64,2
Guatemala	%41	%59
Ekuador	%35	%65
SEAD	%15	%85

Iturria: Lau Herrialde Txosten, lan honetarako berariaraz egina.

Ekuador da “generoaren ikuspegia hauteman da” kategorian proiektu gehien dituen herrialdea (%41). Peruk eta Ekuadorrek antzeko ehunekoak dituzte, proiektuen %35 inguruk dute generoaren ikuspegia. SEADen aztertutako proiektuen %15 baino ez dira genero ikuspegia duten proiektu gisa sailkatu. Genero desberdintasunen gaineko kezka txiki horrek lotura izan dezake herrialdean bultzatzen diren ekimen motekin, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eta Ekintza Humanitarioen sektoreetakoak funtsean. Urte askoan, lankidetzaren hainbat eremutan, premia praktiko eta berehalakoak asetzearekin zerikusia duten ekimenak generoari dagokionez neutroak direla pentsatu izan da, eta, hortaz, ikuspegi hori ez dela txertatu behar uste izan da. Uste osoa dugu ikuspegi hori atzera gelditzen ari dela, zorionez, eta genero irizpideak gero eta gehiago hartu direla kontuan, esate baterako, Ekintza Humanitarioko deialdietan.

Tokiko Giza Garapenean (TGG) ikuspegiari dagokionez, kategoría hauek definitu ziren: TGG ikuspegi esplizitua; TGG ikuspegi implizitua; eta TGG ikuspegi sektoriala<sup>14</sup>. 10. taulan ikus daiteke Latinoamerikako hiru

<sup>13</sup> *Generoaren ikuspegia Garapenean (GG) esplizitua*: emakumeen posizioa hobetzeko lana eta emakumeak banaka zein taldean ahalduntzeko prozesuen aktibazioa kontuan hartzen dituzten proiektuak.

*Emakumeak Garapenean (EG) ikuspegia*: emakumeak proiektuekin zerikusia duten jardueretan sartzea kontuan hartzen duten proiektuak, baina botere harremanak edo rol tradizionalak zalantzan jarri gabe.

*Genero ikuspegi (GI) implizitua*: generoaren ikuspegia modu esplizituan aipatzen ez dituzten baina GI esplizituan aipatutako gaietako batzuk islatzen edo aipatzen dituztenak.

*Hauteman gabea*: ez dugu emakumeen desberdintasun egoerari buruz inolako aipamenik hauteman.

<sup>14</sup> *TGG ikuspegi esplizitua*: Tokiko Giza Garapenean ikuspegia erreferentzia esparru gisa modu esplizituan aipatzen dituzten proiektuak, nolabaiteko xehetasunaz gaitasunak gehitzeko eta subjektuak sendotzeko prozesua deskribatzen dutenak, erdigunean jarriz pertsonak eta haien garapen pertsonal eta erabatekoaren garrantzia, gizabanakoaren eta taldearen ongizateari lotuta, betiere.

*TGG ikuspegi implizitua*: Giza Garapenean ikuspegia modu esplizituan aipatzen ez badute ere, aurreko puntuan aipatutako zenbait osagai kontuan hartzen dituzten proiektuak.

*TGG sektorialaren ikuspegia*: TGGaren osagaien bat modu sektorialen sendotzen duten proiektuak, guztietan modu estrategikoan eragin gabe.

herrialdeetan proiektu gehienak TGG sektoriala kategorian sailkatuta daudela; edonola ere, alde handiak dauden herrialde batetik bestera. Era horretara, Peruko proiektu gehienek (%84) giza garapen sektorialaren ikuspegia dute. Ekuadorren, TGG sektorialak garrantzi txikia du, nahiz eta bertako proiektuen erdia baino gehiago (%62) kategoria horretan sailkatu. Bestalde, Guatemalak ehuneko txikiena du TGG esplizitua kategorian (%2), nahiz eta Peruko eta Ekuadorko ehunekoak ere txikiak diren, eta ez dira %10era iristen. Saharan ez dugu topatu TGG esplizitua ikuspegiaren barruan sar daitekeen proiekturik.

10. taula. TGG ikuspegia, herrialdez herrialde			
	TGG esplizitua	TGG inplizitua	TGG sektoriala
Peru	%3	%13	%84
Guatemala	%2	%23	%75
Ekuador	%6	%32	%62

Iturria: Lau Herrialde Txosten, lan honetarako berariaz egina.

#### 4.7. Euskal lankidetzaren argazkia

Euskal lankidetzak Perun, Guatemalan, Ekuadorren eta SEADen 1998-2008 aldian izan duen jarduerari buruzko informazio kuantitatiboa modu errazean laburtzeko asmoz, honako ezaugarri hauek azpimarratu ditugu:

- Euskal lankidetzak, funtsei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak finantzatzutako aurrekontuaren pisuak markatua da, argi eta garbi.
- Perun finantzatu dira proiektu gehien, eta hura da Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Arabako Foru Aldundiaren lehenengo hartzailea. Hala ere, proiektuen batez besteko aurrekontua ez da bereziki altua. Herrialde horrek du, hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak finantzatzutako proiektuetan batez besteko aurrekontu txikiena.
- Guatemala da bigarren herrialdea garrantziari dagokionez, bai proiektu kopuruak bai onartutako aurrekontua kontuan hartuta. Lehenengo herrialdea da Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat, bigarrena Eusko Jaurlaritzarentzat eta Bizkaiko Foru Aldundiarentzat, eta azkena Arabako Foru

Aldundiarentzat. Proiektuen tamainaren *rankin-gari* dagokionez, bigarren lekua hartzen du, bai Eusko Jaurlaritzarentzat bai Bizkaiko Foru Aldundiarentzat.

- Ekuador zentzuzko ibilbidea izan duen herrialdea da lau administrazioentzat, bai proiektu kopuruari dagokionez bai finantzaketari dagokionez. Proiektuen batez besteko aurrekontua ere ez da bereziki handia, Arabako Foru Aldundiaren kasuan izan ezik.
- SEADek azken lekua hartzen du, bai proiektuei bai finantzaketari dagokionez, Eusko Jaurlaritzan eta hiru Foru Aldundietan. Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundia dira finantzatzailer nagusiak, eta bi kasuetan, Saharan dago proiektu bakoitzeko batez beste finantzatzutako zenbateko handiena, lau herrialdeak kontuan hartuta. Era horretara, ez daude proiektu asko, baina dauden proiektuak proiektu handiak dira, oro har. Udalen azterketaren bitartez ikusi ahal izan da Sahararekin solidaritate harremana dagoela, nahiz eta proiektu horien batez besteko aurrekontua beste administrazioena baino txikiagoa den.
- Lau herrialdeetara bideratutako funtsen bilakaera goranzkoa izan da, argi eta garbi, eta hori, beharbada, eskura dauden funtsen igoeraren emaitza da, baina baita aztertutako herrialdeetan euskal lankidetzak nolabaiteko egonkortasuna lortu izanaren emaitza ere. Ekuador eta Guatemalak etengabe egiten dute gorantz; Peruk, aldiz, hainbat gorabeheraren ondoren, aztertutako aldiaren azken bi urteetan goranzko ildoari ekin diola ikusten da.
- Latinoamerikako hiru herrialdeetan, euskal lankidetzaren eskualdekako nolabaiteko kontzentrazioa dagoela esan liteke. Ekuadorren eta Guatemalan aurrekontuaren zati handiena eta proiektu gehienak Mendialdean kontzentratzen dira, eta Perun, funts gehienak Mendialdean pilatzen dira, eta proiektu gehienak, berriz, Kostaldean. Proiektu kopuruaren eta horien tamainaren arteko harremana aldatu egiten da herrialde batetik bestera. SEADi dagokionez, proiektu gehienak ez dira *wilaya* bakar batean gauzatzen, batean baino gehiagotan baizik.
- Horrez gainera, euskal lankidetzaren kontzentrazio sektoriala dago. Latinoamerikako hiru herrial-

deetan, Landaren/Nekazaritzaren Garapena eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak dira lehentasuna duten sektoreak. Horrez gainera, azpimarratzekoa da Erakundeak sendotzea sektoreak Guatemalan duen garrantzia eta Emakumeak/Generoa sektoreak Ekuadorren duen garrantzi eskasa. Horrez gainera, Garapen integralaren sektorea da batez beste hiru herrialdeetan aurrekontu gehien duenetako bat. SEADen, herritarren errefuxiatu egoerari loturiko sektoreak nabarmentzen dira, hau da, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Ekintza Humanitarioa sektoreak, eta sektore askok ez dute proiektu bat bera ere, Erabateko Garapena sektoreak, esaterako.

- Peruk ditu erakunde kudeatzaile gehien, bai tokikoak bai euskaldunak. Latinoamerikako hiru herrialdeetan euskal erakundeak baino tokiko erakunde gehiago daude; hori dela eta, euskal erakundeek tokiko bazkide bat baino gehiago izaten dute, askotan. Aurrekontua erakunde gutxitan pilatzeari dagokionez, proiektuen pilaketa baino handiagoa da, eta Ekuadorren izan ezik, aurrekontuaren pilaketa handiagoa dago euskal erakundeetan tokiko erakundeetan baino. Horrez gainera, erakunde asko daude proiektu bakar bat kudeatu dutenak, eta hori ohikoagoa da tokiko erakundeetan euskal erakundeetan baino.
- Aztertutako proiektu gehienetan ez da generoaren ikuspegia txertatu denik hauteman. Latinoamerikako herrialdeetan, proiektu gehienak TGG sektoriala kategoriaren barruan sailkatu dira, eta SEADi dagokionez, ez da TGG esplizituko proiekturik aurkitu.

Alderdi kuantitatiboan azterketa oso interesgarria izan da, baina informazio gutxi dagoenez eta, zenbait kasutan, sistematizazioa eskasa denez, zaila da ondorio itxiak azaltzea eta atal kuantitatibo honen hasieran egindako galderei zalantza gabeko erantzunak ematea. Susmoa dugu badela nolabaiteko prozesu ideia, batez ere proiektu kopuruek eta aurrekontuek jarraipena edukitzearekin eta urteen joanean euskal erakundeen eta tokiko erakundeen artean sortutako harremanekin lotzen badugu. Edonola ere, gogoan izan behar dugu erakunde asko daudela, han eta hemen, hamarkada osoan proiektu bakar bat izan dutenak. Horrez gainera, euskal lankidetzak Latinoamerikako herrialdeetan lurraldeka eta sektoreka kontzentratzeko joera izan dutela ikusi dugu. Guatemalan, esate baterako, pilaketa hori erakunde gehien dituen eta GGI maila txikiena duen departamenduetan izan da.

Aitzitik, azterketa kuantitatiboaren arabera, generoaren ikuspegia eta TGGa ez dira oinarrizkoak izan euskal lankidetzan, aztertutako hamarkadan; izan ere, proiektu gehienak *hauteman gabeko genero ikuspegia* eta *TGG sektoriala* duten proiektutzat hartu dira. Ondorio latza da hori, eta hala agertzen da zehaztuta azterketa kuantitatiboa egiteko jarraitutako metodologiaren berezitasunagatik zein ondorengo azterketa kualitatiboengatik. Gainera, aipagarria da zein ordezkariak txikia duten sektore hauek: Garapen Integrala, Emakumeak/Generoa, Erakundeak Indartzea, Gizarte Zibila Indartzea (Guatemalan izan ezik) eta Giza Eskubideak. Gure ustez, edozein proiektu landu daiteke TGGaren ikuspegitik, edozein sektoretan kokatzen dela ere; baina nabarmena da aurrekoek lotura bereziki nabarmenak dituztela ikuspegi horrekin.





## 5. Azterketa kualitatiboaren emaitzak

Lau herrialdeen azterketa kualitatiboaren emaitzen azterketa egin baino lehen, hainbat gai zehaztea komeni da; izan ere, gogoeta horien bitartez, ondoren aurkezten diren ideiak interpretatu, eta beste zenbait gai eta ideia zergatik azaltzen ez diren ulertuko dugu.

Lehenengo gogoetak metodologiarekin eta landanaren irismenarekin zerikusia du. Komeni da gogoraraztea egindako kasu azterketen izaera kualitatiboa dela; horren ondorioz, proiektu multzo osoa ordeztzeko lagin bat hautatu da, murrizta nahitaez. Azterketa kuantitatiboaren ondorioak, euskal GGKEekin egindako elkarrizketak, herrialdeen aurretiko ezagutza eta zenbait irizpide zehatzen aplikazioa, funtsezkoak izan ziren hautaketa zuzena egin ahal izateko<sup>15</sup>. Edonola ere, ez da ahaztu behar erakunde kopuru mugatuetera egin dela bisita, eta horiek nahikoa badira ere TGG prozesuei buruzko irakaspenak, puntu kritikoa eta jardunbide egokiak ondorioztatzeko, ez dira nahikoa euskal lankidetzari buruzko ondorio orokorrak ateratzeko.

Bigarren gogoetan, landuko ditugun gai gehienak nahiko orokorrak izango dira eta tokiko dinamika sozialei buruz dihardute batik bat; izan ere, ez dihardute bakarrik kontuan hartutako proiektuen erreferentzia terminoak betetzeari buruz. Gizarte bakoitzaren berezko prozesuak ez daude, noski, garapenerako lankidetzaren mende (are gutxiago euskal lankidetz txikia dela kontuan hartuta), eta, hortaz, gertatutako aldaketak eta eraginak ezin zaizkio euskal erakundeek finantzatutako proiektu bati soilik egotzi. Hala ere, azterketa orokorra eta holistikoa egiten saiatze hori da, hain zuzen ere, lankidetzari aplikatutako TGG ikuspegiaren ekarpenetako bat: kontua ez da arreta guztia garapen ekintzetan jartzea, baizik eta ahalduntzea zein ongizatea lortzeko berezko prozesuei eta prozesu endogenoei lagunduko dieten bideak bilatzea. Eta ongizatea banakakoarena zein taldearena denez aldi berean, eta gizarteko elementu askoren arabera denez, azterketaren guneak gizarte dinamika guztiak hartu behar ditu kontuan, nahiz eta lankidetzaren tresnak ekintza zehatzak izaten jarrai dezaketen, aipatutako proiektuei lotuta, betiere.

Hirugarren gogoetak TGGaren osotasunarekin eta zatiezintasunarekin zerikusia du. Ikuspegi horrek badu funtsezko osagai bat: norbanakoaren ongizatean zein gizartearen ongizatean jartzen du arreta, eta banakakoen gaitasunetan zein taldearenetan. Hori horrela izan dadin, justiziaren erreferentzia arauemilea ematen da. Ongizatearen emaitzak justiziarekin

Bigarren gogoetan, landuko ditugun gai gehienak nahiko orokorrak izango dira eta tokiko dinamika sozialei buruz dihardute batik bat; izan ere, ez dihardute bakarrik kontuan hartutako proiektuen erreferentzia terminoak betetzeari buruz. Gizarte bakoitzaren berezko prozesuak ez daude, noski, garapenerako lankidetzaren mende (are gutxiago euskal lankidetz txikia dela kontuan hartuta), eta, hortaz, gertatutako aldaketak eta eraginak ezin zaizkio euskal erakundeek finantzatutako proiektu bati soilik egotzi. Hala ere, azterketa orokorra eta holistikoa egiten saiatze hori da, hain zuzen ere, lankidetzari aplikatutako TGG ikuspegiaren ekarpenetako bat: kontua ez da arreta guztia garapen ekintzetan jartzea, baizik eta ahalduntzea zein ongizatea lortzeko berezko prozesuei eta prozesu endogenoei lagunduko dieten bideak bilatzea. Eta ongizatea banakakoarena zein taldearena denez aldi berean, eta gizarteko elementu askoren arabera denez, azterketaren guneak gizarte dinamika guztiak hartu behar ditu kontuan, nahiz eta lankidetzaren tresnak ekintza zehatzak izaten jarrai dezaketen, aipatutako proiektuei lotuta, betiere.

<sup>15</sup> Latinoamerikako herrialdeen kasuan, lagina osatzen duten herrialde bakoitzeko tokiko erakunde nagusiak (eta dagozkion GGKE euskaldunak) dira azterketa kuantitatiboari buruzko ataleko 8. taulan agertzen direnak. SEADen kasuan, aipatutako taula horren ondoren aipatzen direnak. Gainera, Latinoamerikako hiru herrialdeetan aipatu berriak baino erakunde gehiago bisitatu eta aztertu ziren. Hori guztia dagozkion Herrialde Txostenetan kontsulta daiteke.

lotuta aztertzeko, hiru eskabide proposatzen dira, birbanaketari, ezagutzari eta ordekaritzari buruzkoak: Gizarte batek ba al du gaitasunik bere baliabideak modu zuzenean birbanatzeko, pertsona edo talde bakoitzaren berezitasunak ezagutzeko eta interes guztiak modu egokian ordeztuko dituen sistema bat ezartzeko? (Fraser, 2008, aipamena Dubois et al. 2011).

TGGak, beraz, hainbat dimentsio landu nahi ditu batera eta modu integralean, hala nola: ongizatearen alderdi arauemailea eta birdefinizioa; garapenaren eta agintzeko modu berrien osotasuna; genero-ekitatea; herriaren partaidetza; iraunkortasun ekologikoa; nor-tasuna eta kultura; tokikoaren eta globalaren arteko lotura eta mendekotasuna; ekonomia soziala eta solidarioa<sup>16</sup>. Lotura horien jakitun, eta koaderno honen aurkezpena arintzeko asmoz, testu kualitatibo bi atal-etan –sozioekonomikoa eta soziopolitikoa– eta hainbat azpiataletan banatzea erabaki dugu; eta saiatu gara zenbait azterketa gai bakartuetan ez zatitzen.

### 5.1. Eremu sozioekonomikoa

TGGaren dimentsio sozioekonomikoak prozesu aukera zabala hartzen du, gaur egungo zientzia ekonomiko konbentzionalaren kezkez eta orientabideez haratago –zenbaitetan horiei aurre ere egiten die–. Edonola ere, nolabaiteko paralelismoarekin hasteko asmoz, TGGaren esparruan ongizatea lortzeko prozesuek honako alderdi hauetan eragin behar dute: a) ondasunen eta zerbitzuen eskaintza eta ekoizpena, behar adinako kopuruan eta kalitatearekin; b) eskaera eta banaketa, pertsonak edo familiak ondasun eta zerbitzu horiek eskuratzeko behar adinako titulartasuna izango dutela bermatuz (Dubois, Guridi, López Belloso, 2011). Ildo horretatik, bizi baldintza duinak bermatzeko balioko duten erabilgarritasun eta eskuragarritasun prozesuei buruz hitz egin daiteke, ondasunei eta zerbitzuei dagokienez, eta, horietan, hornidura iturri nagusiak Familia, Komunitatea, Merkaturia eta Estatua izango lirateke.

Horrez gainera, alderdi sozioekonomikoa aztertu nahi dugu, eta ez soilik ekonomikoa, TGGaren ikuspegiaren ikuspuntu integrala eta ongizatearen zatiezintasuna dela-eta. TGGa ez da Tokiko Garapen

Ekonomikoaren prozesuetara mugatzen; aitzitik, beste proposamen batzuk ere hartzen ditu, eta horiez aberasten da, hala nola, ekonomia sozial eta solidariotik, ekonomia feministatik edo ekonomia ekologikotik datozenak. Hortaz, adibidez, zalantzan jartzen ditu merkatuaren zentraltasuna eta mozkin finantzarioa, eta ekonomia feministaren beste lehen-tasun batzuk hartzen ditu, esate baterako, bizitzaren erreproduktzio zabalduaren zentraltasuna eta lan produktiboen eta erreproduktiboen birbanaketa; edo ekonomia sozialaren lehen-tasunak, zeinak pertsonen lana kokatzen duen erdigunean. Horrez gainera, ez dago alderdi ekonomikoan bakarrik oinarritutako ongizaterik, eta, horregatik, TGGa beste prozesu sozial, politiko, kultural eta abarrekiko loturak eta sinergiak aztertzen saiatzen da, halako eran non ekonomia komunitarioko prozesuei edo elikadura subiranotasunerako proposamenei eta abarrei buruz hitz egin daitekeen.

Bestalde, esperientziak herrialdez herrialde aztertu aurretik, garrantzizkoa izan liteke aurretik zenbait ezaugarri orokor azpimarratzea, esate baterako: Latinoamerikako hiru herrialdeetan jarduera sektore nagusia landaren eta nekazaritzaren garapena izan da (funtzen %20-29), eta ezaugarri horrek, berez, jardue-ra ekonomikoaren nondik norakoei buruzko ideia bat eskaintzen du. Hala ere, azaldu beharra daukagu atal horretan ez ditugula osagai nagusia produkzioa duten proiektuak bakarrik aipatzen; alderdi ekonomikoaren eta beste alderdien arteko loturei buruzko gogoetak ere hartzen dira kontuan, eta orobat aztertzen da beste proiektuek zer ikuspegi duten alderdi ekonomikoari buruz. Izan ere, TGG prozesuetan alderdi ekonomikoa osagai bat besterik ez bada ere, ikuspegi ortodoxoetan duen nagusitasuna eduki gabe, aitortu behar dugu alderdi ekonomikoak, praktikan, abian jartzen diren ekimen eta proiektuen multzoa baldintzatzen duela askotan, edozein sektoretan kokatzen direla ere.

Hasierako ohar horiek egin ondoren, jakinarazi behar dugu ondoren ez dugula TGGrako proposamen sozioekonomikoen esparru itxi bat aurkezten; aitzitik, atalari hasiera emateko, lau herrialdeetako elkarriketetan eta landa-lanean ikusitako gai aipatuenean errepasoa egingo dugu. Herrialde bakoitzean eta horien

<sup>16</sup> Hegoa Institutuaren barne agiria, 2011.



barruan sortutako esperientzietan esparru sozioekonomikoa era askotara eta askotarikoetara landu da; beraz, egokia da herrien eta komunitateen kezken ikuspegi orokorra azaltzea lehenbizi, eta, ondoren, ondorioetan, paralelismoak eta ikasgaiak bilatzea.

## **Diagnostikoa. Landa-lanaren behaketak**

### *1. Mantenerako berezko baliabideak eta gaitasun produktiboen garapena*

Alderdi sozioekonomikoa lantzeko moduak askotari-koak izan dira: batetik, erakundeen ikuspegi anitzen eraginez, eta, bestetik, testuinguru geografiko eta sozioekonomiko desberdinen eraginez. Horrela egin behar da tokiko esparrutik lan egin nahi bada. Hala ere, merezi du adieraztea aztertutako kasu gehienetan lankidetzak landa eremuetan jarri duela arreta, eta, hortaz, jarduera ekonomiko motak testuinguru horiei dagozkienak direla, hau da, nekazaritzak ehuneko garrantzitsua hartzen duen testuinguruari dagozkienak.

Oro har, esan liteke Ekuadorren eta Guatemalan ildo ekonomiko nagusia produkzio gaitasunen garapenaren ingurukoa izan dela eta bertako mantenerako baliabideak sustatu direla. Gai horiek lotura dute lursail familiarren nekazaritzako erabilerarekin, nahiz eta komunitateari zuzenduak eta koordinatuak dauden, argi eta garbi.

Era horretara, Guatemalan garrantzizkoak izan dira lursailen erabilera integralerako eta dibertsifikaturako esperientziak, ekoizpen ekologikora bideratuak, eta balio, ohitura eta jakintza tradizionalak berreskuratzen dituztenak. Ildo horretatik, ekoizpen ekologikoko esperientziak egiten ari dira; horien bitartez, gai kimi-koen erabilera saihestez gainera, ongari organikoaren aukera sustatzen da. Baina, horrez gainera, esperientzia horien bitartez, lursailaren erabilera integrala eta erabileraren arrazionala bultzatzen da, ereinaldiak dibertsifikatzen dira eta ahal adina baliatzen da komunitateek beraiek sortutako teknologia (Guzmán, 2011). Alderdi horretatik, garrantzizkoa da emakumeen papera azpimarratzea, izan ere, historian zehar ikusezinak izan badira ere, haien rol produktiboa oinarritzakoa izan da eta da gaur egun; horregatik, hazien erabileran eta beste hainbat ezagutzatan funtsezko zeregina betetzen dute. Aldi berean, gaitasun produktiboak hobetzeko, teknologia komunitarioei buruzko esperientziak trukatuta dira, eta prozesu produktiboen jarraipen komuni-

tarioa egiteko mekanismoak jarri dira abian. Eta hori garrantzi handikoa da, ez baita lursailen banakako etekina maximizatzea proposatzen besterik gabe; aitzitik, prozesu ekonomikoen taldeko ikuspegiarekin eta ikuspegi koordinatuarekin lotzen da.

Ekuadorren, landan abian jarritako ekimen produktiboetan honako urrats hauek hartu dira kontuan: nekazaritza dibertsifikatzea, produktu bakoitzak betetzen dituen zikloen osagarritasuna aztertzea eta nekazaritza organikoaren iraunkortasunerako urratsak. Batzuetan, ez du ematen lursailaren kudeaketa Guatemalan bezain kolektiboa denik, baina osagai komunek kudeaketa komunitarioa dute, hala nola, biltegitratzeko zentroak edo gaitasun kolektiboak, nekazaritzako teknologietan. Ekuadorren, gainera, arreta berezia eskaintzen zaie esportazioko zenbait gairi (kakaolari bereziki), funtsezko diru sarrera baitira familientzat, Kostaldean batez ere.

Begien bistakoa bada ere, azpimarratu beharra dago SEADen ezin aplika daitekeela mantenerako bertako baliabideen ikuspegi hori, gatazka armatu eta politikoaren ondorioz erbestealdian baitaude herritarrak. Are gehiago, luzaroan ez da garapenerako ekimenik izan (ekimen produktiboak barne), babeslekua denbora jakin baterako izango dela uste baita; horregatik, lankidetzak laguntza humanitarioaren ikuspegia du. Azken hamarkadan, ordea, lankidetzaren proiektuen ikuspegi egonkorrago bat jarri da abian, “garapena babeslekuan” deituaren bidetik.

Horrez gainera, kontuan hartu beharra dago laurogeita hamarrek hamarkadaren amaieran kanpalekuetan txanponak sartzen hasi zirela, diasporatik egindako bidalketen eta harrerako haurren familien solidaritatearen bitartez; eta, horrez gainera, merkataritza eta negozio ekimen txikiak jarri ziren abian. Aldaketa hori, hortaz, nahiko berria da, eta SEADeko gobernuak ez du orain arte jarduerak grabatzeko edo arautzeko sistema-rik osatu (López Belloso, 2011).

Landako jarduera produktiboei lotutako kontuez haratago, lau herrialdeek arazo komun bat dute: gazteak eremu sozioekonomikoan zein politikoan txertatzeari dagokiona. Alderdi ekonomikotik, Latinoamerikako herrialdeetan, landako jarduerak ez dira erakargarriak gazte gehienentzat, eta horrek zaildu egiten du zenbait prozesuren jarraipena, bai alderdi produktiboari bai

antolamenduari dagokionez. Bestalde, SEADen hogeita hamar urtetik beherako sahararrak erbestean jaio eta bizi izan dira; beraz, alde batetik, zaila da jarduera produktibo eta ekonomiko eskaseko gizarte batean txertatzea, eta, beste aldetik, lan ordainduari dagokion kultura ez da positiboa, kanpoko laguntzaren mendekotasuna erabatekoa delako eta edozein ekimenaldi baterako izango dela uste delako.

## 2. Tokiko azokak eta elikadura subiranotasuna

Guatemalan eta Ekuadorren aplikatutako ikuspegi onorio logikoa tokiko merkatuen eta elikadura subiranotasunaren aldeko apustu garbia da; nahiz eta biek ez duten aurrerakuntza maila berdina eduki. Guatemalan, ekoizpen eredu aldaketari kontsumo ereduak aldatzeko ahalegina erantsi behar zaio: tokiko produktuen erabilera bultzatu da, nazioarteko marka handiek inportatutako produktuen aurrean, esate baterako, edari gasdunen edo elikagai industrialen aurrean. Izan ere, oro har, tokiko produktu tradizionalak erabiltzea beste produktu batzuk erabiltzea baino osasungarriagoa, ekologikoagoa eta errentagarriagoa da. Alderdi horretatik, azpimarratzekoa da emakumeen rola duen garrantzia.

Interesgarria da ikustea elikadura subiranotasuna ez dela produkzio eta kontsumo moduei buruzko oinarri ekonomiko bat, besterik gabe; aitzitik, proposamen politiko integrala da, komunitateen beraien antolamendurekin eta kudeaketarekin eta komunitate gisa bizirik irauteko gaitasunarekin duelako zerikusia, eta ez banakako nekazari taldeekin. Gainera, eremu publikoetan egunerokotasunaren (elikadura) eta alderdi politiko eta ekonomikoaren arteko loturetan arreta jartzeko balio du. Horregatik guztiagatik, azpimarratzekoa da Guatemalan ikuspegi horren inguruan abiarazitako esperientzia, hainbat erakunde sarean lotzeko helburuarekin.

Peru, bestalde, Mendialdeko eremuan (herritar indigenen ehuneko handia den eremuan), proiektuak autokontsumora eta tokiko merkatuetan merkaturatzea bideratuta daude; Kostaldean, aldiz, proiektu gehienak prozesu ekonomiko nagusien dinamikek bultzaturik daude. Produkzioari dagokionez, nekazaritzako eta abeltzaintzako proiektu asko eredu intentsiboan txertatzeko bidean daude (Guridi eta Molina, 2011). Garapen ekonomikoaren ikuspegi horrek enplegua ezegonkortzea eta informalizatzea badakar

ere eta elikadura subiranotasunerako jarduerak gaiztotzen eta zailtzen baditu ere, tokiko botereen onesperekin egiten da.

Ekuadorren, oso berria da elikadura subiranotasunaren bidea. Horretara iristeko hainbat osagai badaude ere (elikadura osasuntsua, natura gordetzea, tokiko azokak, etab.) eta 2009. urteaz geroztik elikadura subiranotasunaren aldeko legeak badaude ere, bide horren aldeko erabateko apustua berria da oraindik. Hala ere, aurrerakuntzak egin dira, horretan baino gehiago, lehenetsuen hierarkizazioan eta produktuen eta jardueren osagarritasunaren azterketan (Villalba, 2011). Halako eran non, Mendialdeko kasuetan, lehenetsua ematen zaio autokontsumorako zenbait gairi eta familiei elikadura bermatzeari; bestalde, soberakinak eta zenbait produktu zehatz tokiko merkatuetara eta/edo merkatu nazionalerara bideratzen dira, eta, aldi berean, hainbat produktu esportatu egiten dira. Azken horiek diru sarrera bereziak ekartzen dituztenez, antolakunde prozesuetan txertatzeko erabiltzen dira.

## 3. Merkataritza komunitarioa, merkataritza asoziatiboa eta bidezko merkataritza

Guatemalan, bertako ekoizpen eta kontsumo sareak (tokikoak zein komunitarioak) osatzeko dinamiken eraginez merkataritza asoziatiboan eta komunitarioan oinarritutako esperientziak sustatzen dira. Bidezko merkataritzaren proposamena nahiko ezaguna bada ere, nazioarteko sareek eta garapenerako lankidetzarako erakunde garrantzitsuek babesten baitute, Guatemalako erakundeek zailtasunak dituzte sare horietan txertatzeko, bai maila nazionalen bai nazioartekoan (Guzmán, 2011). Hala eta guztiz ere, estrategia garrantzitsuak landu dituzte tokiko merkatura lotuta dauden merkataritza eta truke sareak indartzeko, esate baterako, bertako haziak komunitateen artean merkaturatzeko.

Ekuadorren, alde batetik, merkataritza asoziatiboa eta komunitarioa bultzatzen da, eta maila horretan, zirkuitu laburrak sustatzen dira; era horretara, saihestu egiten da bitartekaritza eta murriztu egiten dira garraioaren eta biltegiatzearen ondoriozko kostuak. Eta beste aldetik, bidezko merkataritzan oinarritutako esperientziek nahiko erro sendoak dituzte, bai herrialdeko bertako hiri handietara bideratutako merkataritzari dagokionez bai esportaziora bideratutako dagokienez. Jarduera horietan, ezinbestekoa da kalitatea, pilaketa,

banaketa, etab. zaintzeko kontrol kate sendoak edukitzea, eta, hori dela eta, epe luzerako ikuspegi estrategiko bati esker baino ezin dira ezarri, halako eran non epe laburreko proiektuen logika prozesu handienaren mende gelditzen den. Hala ere, askotariko emaitzak izan dira, merkaturatzeko bide horiek ezartzeko eta betetzeko baldintzak konplexuak direlako eta erakunde nahiko handien esku baino egoten ez direlako.

Ekuadorren, lehen esan bezala, garrantzitsua da produktuen osagarritasunaren eta horien funtzioen azterketa egitea, nahiz eta Mendialdeko kasuak Kostaldekoen bestelakoak diren. Azken eskualde horretan, bi hauek dira produkzio eta merkataritza prozesuen ezaugarri nagusiak: esportaziorako produktu batek du nagusitasuna, kakaoak hain zuzen ere, eta bertako kontsumorako bigarren mailako beste produktu batzuk osagarritzat hartzen dira.

Herrialde batzuetan zein besteetan garrantzitsua da ikustea merkataritza asoziatiboa eta komunitarioa (helburua herrialdea bera edo nazioartea den kontuan hartu gabe) ez dela besterik gabe ekonomia kontu bat. Horrez gainera, beste gaitasun kolektibo batzuk lantzeko ere balio du: politika ekonomikoen azterketarekin zein horien ondoriozko interes gatazken azterketarekin lotura dutenak, eta baita erreproduktzio kultural komunitarioko jardueretan eta lurraldeetan, landan alegia, sustraitutako subjektu kolektiboaren osarearekin lotura dutenak.

#### 4. Kreditua eta aurrezki

Garrantzitsua da azpimarratzea lau herrialdeetan gauzatu direla kredituari eta aurrezteari loturiko esperientziak. Zenbaitetan, mikrokredituen forma izan dute (Guatemala eta SEAD, kontrako emaitzekin, antza), eta beste batzuetan (Peru eta Ekuador), aurrezki talde komunitarioei, banketxe komunalei, etab. lotuta egon dira. Esan liteke, beraz, kredituaren eta aurrezkiaren gaia oso presente dagoela lankidetzan; askotan, emakumeengan jartzen du arreta –aurrezkiaren kudeatzaile gisa–, eta, hainbatetan, autokudeaketako kooperatiben forma du.

SEADen, euskal lankidetzak aitzindaria izan da mikrokredituen erabilerari dagokionez. Kreditu horiek lotura izan dute: komunitatearen mesedera diharduen funtzio publikoan lan egiten duten pertsonekin (lan

horregatik inolako diru sarrerarik jasotzen ez dutenekin), beraien lanak ekimen ekonomikoen bitartez osatu ahal izateko; UNMSeKin; eta atzerrian unibertsitate mailako edo lanbide heziketako ikasketak egin dituzten gazteekin, itzultzen direnean beraien gaitasunez baliatzeko aukerarik ez baitute (López Belloso, 2011). Beraz, mikrokredituen helburua ez da soilik proiektu ekonomikoak abian jartzea; aitzitik, guztion onerako lan kolektiboarekin zerikusia duten beste gai batzuekin koordinatuta dago.

Guatemalan ere hainbat esperientzia egin dira mikrokredituen inguruan; baina, itxura denez, balorazioa ez da beti positiboa izan. Izan ere, zenbait emakume talde urrundu egin dira abian jartzeko prozedura horietatik, lan zama handiagoa eta presio eta estres handiagoa ekarriko dietela ikusita. Aitzitik, beraien egoerara eta ingurunera hobeto egokitzen diren ekimenen alde egin dute, beraien arazoak eta interesak ikuspegi integral eta politiko batetik lantzeko asmoz; esate baterako, beraien lursailen erabilera integraletik abiatuta elikadura subiranoko sareak osatzeko egin duten bezala.

Perun, berriz, hainbat formatu eta izendapen eman zaizkie kredituen mekanismoei (banketxe komunalak, talde solidarioak, autolaguntzako taldeak, inbertsioko herri elkarteak...); aurrezki komunitarioko taldeei lotuta egon dira askotan, eta arreta emakumeengan jarri dute sarri. Balorazio positiboa nagusi dela dirudi, baina ez soilik errendimendu ekonomikoei dagokionez, baita emakumeen autonomia ekonomikoan izandako eraginari dagokionez ere; beraien autoestimua hobetzea eragiten dutenez, talde lanerako gaitasuna eta motibazioa ere hobetu egiten da.

Ekuadorren egoera Perukoaren oso antzekoa da, han ere aurrezki komunitarioko hainbat bide hartu baitira; askotan, gainera, emakumeek gehiengoa osatu dute. Autoenpleguari edo abeltzaintzaren eta nekazaritzaren alorrean negozio txikiak sortzeari lotutako ekimenak izan dira gehienak, eta beste antolamendu prozesuekin eta premiak asetzeko prozesuekin sinergiak finkatu dituzte. Edonola ere, emakumeen autonomia ekonomikoari buruzko balorazioak irakurketa bikoitza izan dezake; izan ere, alde batetik, emakumeek diru sarrera gehiago dituztenean, beraien egoera ere hobetu egiten da, baina, gehienetan, ez da beraien posizioa aldatzen: batetik, diru sarrera horiek bigarren

mailakoak izaten direlako –lan informalak eta egoera zaugarriak–, eta, horrez gainera, diru sarrera horiek familiaren erabileraren mende egoten direlako ia erabat.

### 5. Emakumeen egoera ekonomikoa

Emakumeen egoera ekonomikoari emandako arreta da euskal lankidetzaren beste ezaugarri komunetako bat, lau herrialdeetan; izan ere, herrialde horietan guztietan bultzatu dira emakumeen egoera ekonomikoa hobetzeko proiektuak.

Guatemalan, emakumeen paper ekonomikoa lotura handia izan du bertako produkzio baliabideen berreskurapenarekin; hortaz, funtsezko zeregina bete dute bioaniztasunaren babesari dagokionez. Edonola ere, zaila da jarduera produktiboetan aurrera egitea eta, aldi berean, lanaren banaketa sexual tradizionala haustea.

SEADen, esaterako, euskal lankidetzari eta UNMSen lidergoari esker, emakumeek negozio produktibo txikiak ezartzeko elkarte egiturak sendotu dira. Gainera, kanpalekuetako jarduera ekonomikoa sustatzeko, kooperatibismoa bultzatzen duten ekintzak izan dira, askotan; beraz, funtzio bikoitza betetzen dute. Ildo horretatik, saharar emakumeak harro daude ez dutelako inoiz kanpoko laguntzaren mende dagoen taldea osatu eta hasieratik bertatik bete dutelako paper bat bizitza ekonomikoan eta garapen sozialean (López Belloso, 2011).

Ekuadorren, emakumeentzat diru sarrerak sortzeko ekimen horien helburua zenbait aktiboren jabetza lortzea da, edo produkzio gaietan gaikuntza tekniko lortzea, familien lursailetan aplikatzeko edo beraien zerbitzuak beste finka batzuetan saltzeko. Oro har, egiaztatu bada ere aurrerabideak izan direla emakumeen jabekuntza ekonomikoari dagokionez –beraiek baitira diru sarrerak sortzen eta kontrolatzen dituztenak–, aldaketa horiek geldoak dira, zaila baita hobekuntza ekonomiko hori emakumeek familiaren zaintzaile gisa duten rol nagusitik bereiztea, diru sarrera horiek familiak erabiltzen baititu; gizonezkoen kasuan, aldiz, diru sarrera horiek beraien interes partikularretarako erabil ditzakete. Gainera, emakumeen enpleguaren formaltasunik eza handia da, bigarren mailako diru sarreratzat hartzen baita; gizonezkoen jarduera, berriz, nagusitzat eta benetan produktibotzat

hartzen da. Zalantzan jartzen dugu, beraz, emakumeentzako diru sarrerak sortzeak haien autonomia ekonomikoa ekartzen duen.

### 6. Oinarrizko gizarte zerbitzuak eta gizakien segurantzza

TGG prozesuak ez dira herritarren oinarrizko premia asetzera mugatzen, eta, noski, ezta Milurteko Garapen Helburuak betetzera ere, baina bizi baldintza duin batzuen bermea ezinbesteko baldintza da prozesu horiek sor daitezen; horiek, ordea, ez dira nahikoa. Ekuadorren, proiektu ugari izan dira komunitateen egoera sozioekonomikoarekin zerikusia duten gizarte zerbitzuak tokiko esparruan ematera bideratuak. Hala ere, Ekuadorreko proiektuek plus bat ekartzen diote zerbitzu horri, oinarrizko premia horietarako sarbidea bermatzeko baliatzen dituzten estrategiak beste gai edo jarduera batzuek hartzen baititu kontuan, eta horiek, aldi berean, iraunkortasuna eta sinergiak lortzen dituzte zerbitzu nagusiarentzat (Villalba, 2011).

Atal honetan ikus ditzakegu berriro ere lanaren alderdi sozioekonomikoaren eta soziopolitikoaren arteko bat etortze saihestezinak; izan ere, gutxieneko zerbitzuak lortu aurretiko baldintza da gizarte zibilarekin lan egitea, herritar kontzientzia eta eskubide kontzientzia lortzeko, Estatuaren aurrez aurre. Ildo horretatik, erakundeen helburua ez da besterik gabe zerbitzuak ematea, baizik eta Estatuak zerbitzu horiek ematen dituenean gizarte eta eskualde arteko asimetriak gainditu behar direla aldarrikatzea.

Alderdi horretatik, Ekuadorren Estatuak garapenaren antolatzaile gisa betetzen duen paperaren beste irakurketa bat egiten da gaur egun, eta horrekin batera, osasun eta hezkuntzaren alorreko zerbitzuak, etxebizitzetan laguntza emateko oinarrizko programak edo gutxieneko diru sarrerei dagozkienak berrantolatzeko eta hobetzeko kezka sakona sortzen ari da. Edonola ere, Ekuadorreko Estatuaren aldaketa positibo horren ondorioz, erakundeek gogoeta egin behar izan dute betetzen duten paperari eta hartu behar duten jarrerari buruz; gai hori dela eta, ordea, gatazka ugari izan dira, Estatuak hainbatetan ez baititu aurretiaz abian ziren prozesuak ulertu edo errespetatu.

Bestalde, SEADen, ikuspegi sozioekonomikotik, kanpo laguntzaren mendekotasun erabatekoa da herritarren bizi iraupenerako eta Estatu mantentzeko, eta hori da,



zalantzarik gabe, baldintzarik garrantzitsuena. Hori argi ikusten da herritar errefuxiatuei oinarrizko zerbitzuak emateko hil edo biziko zeregin neketsuan; eta horrek, aldi berean, zerikusia du garraioen alorreko azpiegiturekin. Prozesu hori ikuspegi estrategiko baten arabera egin da, halako eran non garraiorako proiektuen kateaketak komunikazioa handitzea eta baliabideen banaketa hobetzea ekarri duen; baina, horrez gainera, gizarte harremanak ere hobetu egin dira. Gainera, genero ikuspegia sartu da poliki-poliki, zeharka, eta, ondorioz, indartu egin da emakumeen posizioa (López Belloso, 2011).

Latinoamerikako hiru herrialdeetan garrantzizko osagaia izan da horien aniztasun kulturala eta horien kulturantzitasuna, etniaaniztasuna eta eleaniztasuna. Ezaugarri horiek gai ugarian dute eragina, eta baita zerbitzu publikoekin zerikusia dutenetan ere. Osasun zerbitzuak etnien erabilerei eta ohiturei egokitzea, zerbitzu horiek deszentralizatzea eta bertako hizkuntza erabiltzea bertakoei ulertzeko, erronka ugari sortzen dituzten gaiak dira.

### *7. Erauzketa sektorearen Enpresa Transnasionalekin gatazkak*

Hasieran esan dugun bezala, TGGecko prozesuek zerikusia dute banaketarekin, aintzat hartzearekin eta ordezkapenarekin, baita eremu sozioekonomikoan ere. Beraz, kontua ez da besterik gabe produkzioarako gaitasunak handitzea eta premiak asetzea; hainbat interes gatazkari ere aurre egin behar zaie. Lau herrialdeetan bada gatazka iraunkor bat nazioz gaindiko enpresa handiek (NGE) natur baliabideak erauzteko modua dela-eta sortua. Latinoamerikako hiru herrialdeen kasuak oso antzekoak dira, baina SEADen, fosfatoi eta arrantzari dagokionez, hainbat berezitasun antzeman dira, okupazio eta zapalkuntza egoeraren ondorioz.

Hala eta guztiz ere, Latinoamerikako herrialdeen kasuan, nahastu egin ohi dira baliabideen erauzketatik sortutako aberastasuna banatzearen gatazka eta ordezkaritza eta aintzat hartzearen ondoriozko gatazka: alde batetik, herri indigenek beren lurraldea beren ikuspegiaren arabera mantentzeko eskubidea dago, eta, beste aldetik (askotan lotuta badaude ere), ekologisten bioaniztasunaren aldeko postulatuak daude.

Ekuadorren, Guatemalan eta Perun gatazka larriak sortu dira esportazioarako meatze jarduerarekin, eta

Ekuadorren eta Perun, horrez gainera, arazoak sortu dira petrolioaren inguruko jarduerarekin. Alabaina, bi sektore horien garrantziaz haratago, gatazka nabarmena da komunitateen ekonomia politikoaren eta NGEen artean (Villalba, 2011). Izan ere, beste hainbat eragin negatiboren artean, NGEek erauzketa guneetako komunitateak desegituratzen dituzte eta elkarrekikotasun eta solidaritate jardunbideen galera eragiten dute. NGEen eraginez, halaber, areagotu egiten da baliabide publikoak eskuratzeko lehiakortasuna –komunitateek beraiek erabiltzeko eskubidea badute ere–, esate baterako, diru-laguntzak, kredituak, oinarrizko azpiegiturak, ureztaketa, etab. eskuratzeko aukerei dagokionez.

Edonola ere, arazo ekonomiko huts gisa har litekeen horrek zerikusia du, lehen esan bezala, herri horien eta beraien bizimoduaren ordezkaritzaarekin eta aintzat hartzearekin; beraz, azpimarratu behar dugu, beste behin, lotura zuzena dagoela nortasunaren eta kulturaren gaiaren eta gai soziopolitikoaren eta antolamendu eta partaidetza eskubideen artean. Esate baterako, Guatemalako meatze jarduerari buruzko kontsulterekin, edo komunitateen autoantolamenduarekin eta baliabideen eta lurraldearen kudeaketa iraunkorrarekin Ekuadorreko Amazonian, petrolioaren inguruan sor litezkeen jardueraren aurrez aurre. Gai horiek guztiek zerikusia dute partaidetzarekin eta antolamenduarekin, eta hurrengo atalean landuko ditugu.

## 5.2. Eremu soziopolitikoak

### Sarrera

Alderdi soziopolitikoari dagokion atal honetan, tokikotik abiatuta ongizatea lortzeko helburuarekin erakitako partaidetza prozesu zabalak ahalbidetzen eta ezaugarritzen dituzten jardunbideen, uneen eta dinamiken azterketa egin dugu. Ikuspegi horretatik, gai gutxi gelditu beharko lirake azterketa horretatik kanpo; beraz, ikerketa gaia mugatzeko xedez, soilik hurrengo gaien zentraltasuna zehaztasun handiagoz errepasatuko dugu, labor-labor:

1. oinarrizko erakundeak bultzatzea eta gizarte zibila sendotzea;
2. herritarren jarduna eta eskubide sozialak, zibilak eta politikoak aldarrikatzea;

3. eragin sozial eta politikorako lana, estrategiak eta ekintza mailak;
4. emakumeen partaidetza eta erabakiguneetara duten sarbidea;
5. erakundeak sendotzea eta tokiko gobernagarritasuna sustatzea, gardentasuna eta kontuak ematea;
6. Hitzartutako guneak sortzea administrazio publikoen eta gizartearen artean;
7. jatorrizko herrien autogobernua;
8. partaidetza ikuspegi zeharkakotasuna lankidetzan.

Alor horiei buruzko gogoetak azaldu aurretik, zenbait azalpen izan behar ditugu gogoan. Lehenengo azalpena azterketaren izaera kualitatiboari eta landa-azterketen metodologiari dagokio. Ezin esan dezakegu zer gertatzen den euskal lankidetzan oro har, gai batzuk aurkeztu baino ez dugu egingo, tokiko hainbat esperientzietatik azaleratu direnak eta behin eta berriro errepikatu direnak, eta hortaz, ez dute TGGaren araberako partaidetza egoki edo ezin hobeari buruzko eredu teorikorik osatzen.

Bigarren azalpena azterketaren helburuari dagokio; izan ere, ez ditugu gizarte zibila edo erakundeak sendotzeko sektorean sailkatutako proiektuak soilik aztertu. Aitzitik, jarduera sektorea edozein dela ere, aztertutako proiektu-prozesu bakoitzean aipatu berri dugun gai zerrenda osoa berrikusi dugu.

Azkenik, gogoratu behar dugu TGGaren ikuspegiak lotura zuzena duela tokiko gizarte prozesuekin. Atal honetan, beraz, modu berezian bildu ditugu aztertutako prozesuei dagozkien gizarte bakoitzaren berebai-

tako dinamikak, eta ez soilik proiektuetatik zuzenean eratorzen diren gaiak eta ekintzak.

## Diagnostikoa. Landa-lanaren behaketak

### 1. Oinarrizko erakundeak bultzatzea eta gizarte zibila sendotzea

Lau herrialdeetan landa-lanaren ondoriozko lehenengo egiaztapena izan da bisitatuko proiektu-prozesu ia guztiek partaidetza dutela ekintzarako oinarrizko ardatz moduan, eta oinarrizko organizazioak direla horretarako bide nagusia<sup>17</sup>. Herri antolamendua oinarrizko mailan sustatzen dute, bultzatzen diren prozesuetarako gizarte aldaketak eta jarrera kolektiboak behar direlako; eta, horretarako, herritarrek taldean jardun eta inplikatu behar dute. Partaidetza hori kolektiboa da<sup>18</sup>; beraz, organizazioak dira gaitasun kolektiboak lantzeko bidea.

Baina, egiaztapen horretatik abiatuta, aukera handia dago antolamendu maila, egitura, metodologia eta formari dagokionez<sup>19</sup>, eta horien ezaugarrien azterketak gainditu egiten ditu lan honen aukerak; hala ere, azterketa hori ezinbestekoa da antolamendu tipologia batek edo besteak TGG prozesuei ekar diezaioketen ondorioak finkatzeko. Galdera hau abiapuntu baliagarria izan liteke: Organizazioak zenbateraino dira inklusiboak, ordezkakorak, demokratikoak, eraldatzaileak eta eraginkorak?

Galdera horri erantzuteko, hainbat gai landuko ditugu ondorengo ataletan. Hasteko, organizazio horiek dinamizatzeko eta erakartzeko duten gaitasunean jarriko dugu arreta, eta baita horien barneko lidergoen jardueran ere, osagai horiek funtsezkoak baitirudite, hasieran behintzat, gizarte zibila aktibatzeke. Ildo horretatik, lidergoan dinamizazioari eta jardunari

<sup>17</sup> Emaita hori logikoa da, izan ere, baremazio irizpideen azterketan aipatu bezala, herritarren partaidetza eta erakundeak sustatzea dira Eusko Jaurlaritzak finantzatutako proiektuentzako zeharkako baldintzak. Baldintza horiek ez dira lankidetzaren inposaketatzat hartzen, kasuren batean generoaren ikuspegiarekin gertatu ez bezala; are gehiago, erakundeak instituzioen baldintzen aurretik daude.

<sup>18</sup> Partaidetza kolektiboa proposatzen da beti, mendebaldeko gizartearen parte hartzeko mekanismo berri batzuetan ez bezala, izan ere, azken horietan partaidetza gero eta banakakoagoa da (adibidez, "demokrazia elektronikoko" mekanismoen erabileraren bitartez).

<sup>19</sup> Erakunde mota asko dago, eta hainbat irizpide jarraituz sailka daitezke: erakunde komunitarioak, auzokoak, zibikoak, probintziakoak, nazionalak, sektorialak... oinarrikoak, bigarren mailakoak, federazioak... plataformak, mugimenduak, sareak... emakumeenak, mistoak... formalak, informalak... etab. Gehiagi orokortzeko arriskua izanda ere, bereizketa garbia egin liteke SEADeko erakundeen (tokiko batzordeak edo masa erakundeak) eta Latinoamerikakoaren artean. Bestalde, latinoamerikarren artean, ez litzateke oso konplexua izango sailkapena egitea, lausoa bada ere: motor nagusia (ez bakarria) sektoriala duten erakundeak (gai bat edo ikuspegi bat lantzen dute bereziki); oinarri etnikoa dutenak (jatorrizko edozein herri, beltzak eta afrikarren ondorengoak); tokikoak-komunitarioak (jarduteko eremu geografikoa oso mugatua); gizarte mugimenduen eta solidaritate sareen estilokoak; edo jatorri erlijiosokoak.

dagokionez elkarrengandik urrun dauden esperientziak badaude ere, honako hauek dira eragina bide duten faktore nagusiak: talde lanaren balio handitzea; balio komunitarioak eta kulturalak bistaritzea; karisma eta jendea biltzeko gaitasuna; konpromisoen elkarrekotasuna; kontsentsua-akordioa-kohesioa bilatzea, taldeko prozesu baten inguruan; etab. Kapital sozial komunitario bat sortzera bideratutako alderdiak dira, oro har. Latinoamerikako herrialdeetan, hainbat kasu daude lidergo demokratizatzaileen, karismatikoen eta komunitatearekiko erantzukizun handikoen eredu izan direnak; baina aldi berean, beste batzutan, Perun eta Ekuadorren esaterako, aldaketa prozesuak desaktibatzen diren helburuarekin alderdi politikoek edo botere finkatuek kooptatutako liderrak ere egon badaude.

Bestalde, aurrerago ere itzuliko bagara ere gai honetara, egokia da adieraztea emakumeek gero eta partaidetza handiagoa badute ere oinarrizko mailan, oraindik txikia dela organizazioen edo komunitateen zuzendaritzako lanpostu formaletan duten partaidetza. Beraz, emakumeak kontuan hartzen direla esan liteke, baina emakumeen eta beraien interesek ordezkariak eskasa dutela. Hala ere, haien lidergoa, praktikan informala eta egunerokoa, garrantzi handikoa da, eta nabarmena da emakumeek talde lanerako erakutsi duten gaitasuna, bisitatu ditugun prozesuetan. Emakumeak prozesuetan lider direnean, protagonismo konprometitu horrek ondorio positibo oso nabarmenak ditu: beste emakume batzuk erakartzen dituzte; organizazioak, oro har, zuzen funtzionatzen du; eta esperientziak beste leku batzuetan ere sustatzen dira.

Gainera, garrantzizkoa da kontuan hartzea emakumeen egoeraren hobekuntza bide askotatik etor daitekeela; baina emakumearen posizioaren aldaketa, askotan, partaidetza prozesuaren ikasketarekin eta egiten duen lan publikoa ikustarekin hasten da (Villalba, 2011). Genero-ekitatean aurreratuko bada, ezinbestekoa da emakumeek beraien interesetatik abiatuta inplikatzeko, eta ez soilik kide diren organizazioaren helburu orokorretatik abiatuta. Ildo horretatik, Guatemalako esperientzia batean esaterako, erakundeak ohartu zen genero ikuspegiaren zehargarritasuna ez zela nahikoa eta apenas zehazten zela; nabaritu zuten, halaber, genero politika garrantzi handikoa dela, baina ez nahikoa, zuzendaritzako karguak eta erabakiak hartzeko mailak inplikaturik ez badaude (Guzmán, 2011).

Latinoamerikako hiru herrialdeek badute osagai komun bat, erakundeen sustapenari ematen zaion garrantzia egiaztatzen duena: helburu horrekin antolatzen den tailer eta gaikuntza kopurua eta aukerak. Perun, esate baterako, existitzen diren Oinarrizko Gizarte Erakundeak (OGE) indartzeko premia hitz egiten da, horien autonomia politikoa sustatu ahal izateko; horretarako, beharrezkoa da logika partehartzaile horizontaletan gaitzea, balio emantzipatzaileetan hezteko, hezkuntza zibiko-politikoak, karguen errotazioa inplementatzea, etab. (Guridi eta Molina, 2011).

Tokiko errealitatea eta errealitate nazionala aztertzeko gaitasunak garatzera bideratutako hainbat formatutan antolatzen diren eremu teknikoetako, estrategikoetako eta etikoetako gaikuntzari buruz hitz egin daiteke (tailer zehatzak, eskola politikoak, prestakuntza ikastaroak, diplomatuak...); era horretara, ekintzarako gaitasun kolektiboak indartzen dira, etorkizuneko ikuspegi partekatuen eta alternatiboen sorkuntza oinarri hartuta. Erakundeak gaitzeko eta sendotzeko prozesu horietan, funtsezkoa da, noski, emakumeen zeregina, baina gai horren tratamendua aldatu egiten da kasu batzuetatik besteetara. Esate baterako, funtsezkoak dira emakumeak prestatzeko eta antolatzeko espazio bereziak; era horretara, alde batetik "mailatze ikastaroak" edo tailerrak egin ahal izango dira, emakumeek antolamendu prozesuetan txertatzean hezkuntza formalaren alorrean dituzten gabeziak osatu ahal izateko, eta, beste alde batetik, erakundeek bete beharreko helburuei buruz beraien interes estrategikoak eta ikuspegi alternatiboak eztabaidatzeko eta mugatzeko aukera izateko.

## *2. Herritarren jarduna eta eskubide sozialak, zibilak eta politikoak aldarrikatzea*

Lau herrialdeetan azpimarratzen da eskubideak eza gutzea, aldarrikatzea eta horiek gauzatzea garrantzi handikoa dela herritarrek parte har dezaten. Baina, horretara iristeko bideak eta lehentasunak ez dira beti berdinak: SEADen, herriaren autodeterminazio eskubidea da jardueren ardatz nagusia eta antolatzailea; Perun, eskubide zibiko eta politikoei loturiko ekimenen premia proposatzen da; Guatemalan, giza eskubideak memoria historikoarekin lotzen dira, eta horien urraketa, berriz, indarkeriaren erabilera iraunkorrarekin; Ekuadorren eta Guatemalan, jatorrizko herrien

taldeko eskubideei buruz hitz egiten da, eta baita baldintzen ustiatari dagokionez ingurumen eskubideei buruz ere. Eta garrantzizkoa da azpimarratzea herrialde guztietan hainbat mailatan landu direla emakumeen eskubideak.

Kontzientzia hartu behar dela eta eskubideen ezagutzan gaitu behar dela aipatzen da, horietatik abiatuta horiek aldarrikatu eta gauzatu ahal izateko. Baina gaitzuntza horiek jabekuntza testuinguru zabalago baten barruan kokatu behar dira; izan ere, alderantziz eginez gero, albisteak emateko edo sentsibilizatzeko solasaldi hutsetan gelditzeko arriskua dago, aldaketei zentzua eta sakontasuna emango dien jarraipenik gabe.

Gaitzuntzen ikuspegi estrategikoa edukitzeko premia hori bereziki aipagarria da emakumeen eskubideen kasuan eta genero-ekitatearen aldeko lanean; izan ere, kontuan hartuta beharrezko aldaketan garrantzia, pertsonengan eta jarreretan (etxearen barruan esaterako) dituzten ondorioak, eta botereari atxikitako harremanak, eskubideei buruzko kontzientzia eta ezagutza geureganatzeko ez da nahikoa gaiak une zehatzetan baino ez lantzea. Baina horiek aldi-aldi aldarrikatzea ere ez da nahikoa; eskubideak erabili egin behar dira. Perun, esate baterako, emakumeak eskubideak dituzten subjektuak direla aitortu behar da, eta puntu horretatik abiatuta, emakumeak subjektu politiko gisa eratzeko helbururantz jo behar da; horretarako, ezinbestekoa da eremu publikoan gauzak aldatzea, baina baita aldaketa pertsonalak bultzatzea ere (Guridi eta Molina, 2011).

### *3. Gizartean eta politikan eragiteko lana. Ekintzarako estrategiak eta itunen eskala*

Eragin soziala eta politikoa da elkarrizketetan etengabe aipatu den beste gaietako bat; baina horren edukia eta garrantzia, berriro ere, aldatu egiten da herrialde batetik bestera eta esperientzia batetik bestera. Guatemalaren kasuan, nabarmena da eragin politikoren aldeko lana. Partaidetzaren ikuspegi bakarra ez badago ere, mugimendu sozialei eta herri mugimenduei loturiko partaidetza mota bat ikusten da, oso politizatua eta aldarrikapenerako joera duena. Guatemalako organizazio gehienek lanak izaera politiko nabarmena dutelako gertatzen da hori. Horrek, aldi berean, prozesuen perspektiban funtzionatzea bultzatzen ditu organizazioak, proiektuetan zatitutako logikaren arabera baino funtzionatu beharrean

(Guzmán, 2011). Ildo horretatik, komunitatearen lidergo eta gizarte erakundeak erantzukizun publikoa eskatzera bideratuta daude, dauden gabeziak betetzera baino gehiago.

Perun, aipagarria da hainbat organizazioek izan duten bilakaera jatorri erlijiosotik izaera laikora. Bilakaera horrek, noski, ikuspegi aldaketa ere badakar berarekin: laguntzaren eta karitatearen eremutik gizartearen eraldaketaren bilaketara. Hala ere, eragin politikoaren lanaren sakontasuna ez da hain argia: alde batetik, profil politiko nabarmeneko erakundeak daude, tokiko boterearekin borroka egiteko estrategia dutenak; eta, beste aldetik, erakundeen joera ez oso demokratikoak eta ez oso eraldatzaileak errepikatzen dira. Beraz, badaude loturak zenbait gizarte mugimenduekin, baina baita ikuspegi konformistagoko buruzagiak dituzten erakundeak ere (Guridi eta Molina, 2011).

Ekuadorren, azken urteotan herritarren mobilizazioak ugariak izan badira ere, euskal lankidetzak herri mugimenduekin lotura txikia duela ikusten da (mugimendu feministarekin, esate baterako, ez dago inolako harremanik). Hala ere, zenbaitetan prozesuen ikuspegiari jarraitzen zaio, eta tokiko erakundeetan eragiteko lan handia egiten da, batez ere ekarpen zehatzak lortzeko, baina ez daude hain politizatuta (Amazoniaren Ekialdearen salbuespenarekin, beharbada).

SEADen, gizartean eta politikan eragiteko esperientzia aipagarrienak nazioarteko solidaritate sareen eskutik datoz. Sare horiek izaera bikoitza dute: alde batetik, nabarmen politikoak dira, saharar herriaren autodeterminazioaren aldeko gatazka politikoaren izarreraren beraren eraginez; beste aldetik, zeregin sozialagoa betetzen dute, saharar haurren harreran, esaterako.

Oro har, garapen prozesuen politizazio mailari dagokionez, askotariko egoerak daudela esan liteke. Hainbat esperientzian ikusten da beharrezkoa dela prozesu horiek birpolitizatzea, eta proiektuetan landutako arazoaren izaera politikoa onartzea. Ildo horretatik, partaidetza mailak –udala, herrialdea, eskualdea, nazioa, nazioaz haraindiko eremua– baldintzatzen ditu gizartean eta politikan edo eragin handienerako erabakigunean eragiteko aukerak –zenbat eta maila altuagoa, orduan eta lege eta arau orokorragoetan eragiteko gaitasun handiagoa– (Villalba, 2011). Gainera, garrantzizkoa da gune formalen eta ez-formalen era-



bilera bateratzeko aukera kontuan hartzea, partaidetza modu horiek bideratzeko.

Zenbait erakunde bi bide hauetatik saiatzen dira partaidetza maila handitzen: i) beste erakunde batzuekin aliantzak egitea eta sarean lan egitea; ii) erakundearen beraren tamaina handitzea, hirugarren mailako erakundeak, federazioak, konglomeratuak, etab. osatuz edo horietan txertatuz. Aldi berean, Guatemalan esaterako, tokiko eremuan antolatutako estrategiak topatu dira maila orokorrean eragiteko, hala nola, nekazarien, indigenen edo feministen mugimenduak, uste baitute eraldaketarako beraien proposamenak hobetu egiten direla proposamen horiek beste erakunde batzuen atxikimenduari sendotuz gero (Guzmán, 2011). Antolamendu horren bitartez, bestalde, aukera izango litzateke ildo politikoko agendak bertan osatzeko, eta, horrela, berariazko eskaera eta interesak azaldu ahal izango liriateke, eta baita eragin zehatzeko estrategiak hitzartu ere. Edonola ere, aurrerabide horiek epe luze/ertainera egindako lanaren emaitza dira.

Alabaina, partaidetza maila handitu ahala, urrunago gelditzen dira oinarriak erabakitzeko guneak, eta handitu egiten da erakundearen tamaina, eta, horren ondorioz, arrisku nahiko orokorra antzematen da: hain zuzen ere, txikitu egiten da emakumeen partaidetza eta presentzia, eta baita haien interes espezifikoaren eta estrategikoen babesaren ere. Gai hori, beste batzuekin batera, hurrengo atalean aztertuko dugu.

#### *4. Emakumeen partaidetza eta erabakiguneetara duten sarbidea*

Garrantziko espezifikotasunak daude (oztopo zehatzak, gehienetan) emakumeen partaidetza erabatekoa eta berdintasunean oinarritua izan dadin, bai gizarte-antolamenduaren aldetik bai erakundearen aldetik. Zerrenda oso luzea izan liteke, baina mugatzaile nagusietako bat baliabiderik eza da, bai horiek materialak direnean bai materiagabeak direnean. Esate baterako, emakumeek ahalegin handia egin behar izaten dute proiektuen jardueretarako denbora aurkitzeko; izan ere, emakumeek lanaldi bikoitzari aurre egin behar izaten diote (produktiboa eta erreproduktiboa), eta, askotan, jarduera horietan parte hartzeko lanaldi hirukoitza osatu behar dute. Horregatik guztiagatik, ez da nahikoa jardueren ordutegiak emakumeen ohiko roletara egokitzea; gehiegizko lanarekin ere badu zeriku-

sia, eta, hortaz, berriro aztertu behar da etxeko lanen eta lan erreproduktiboen banaketa.

Hezkuntzan eta gaikuntzan dauden aldeak ere funtsezko mugatzailea dira. Emakumeek, oro har, aukera gutxiago izan dituzte hezkuntza formalera eta prestakuntza teknikorara sartzeko, eta horrek desabantaila egoeran uzten ditu bizitzan zehar eta hainbat lan eremutan, bai zeregin publikoak eta buruzagitzakoak betetzeko bai hobeto ordaintzen diren lan teknikoetan aritzeko.

Hirugarren oztipoa gizonezkoen jarrera matxistak eta negatiboak dira, eta baita beste erresistentzia kultural batzuk ere. Gizonezko askok ere jasaten dituzte sistema patriarkalaren ondorio negatiboak, baina beste askok onura ateratzen diete emakumeen aurrean dituzten pribilegio eta mendekotasun egoerei. Horregatik, beharrezkoa da gizonezkoekin ere lan egitea.

Azkenik, laugarren lekuan, emakumeen kontrako indarkeria modu asko dagoela azpimarratu behar dugu, eta indarkeria modu orokorrenek (gatazka armatuak, etab.) haien kontra duten eragina ere kontuan hartu behar da. Indarkeriak Latinoamerikako hiru herrialdeetan duen eragina konstante bat da, emakumeen partaidetza (eta haien ongizatea eta gizartearena oro har) eragozten duena; hala ere, ñabardura eta maila handiak daude herrialdeen eta eskualdeen artean.

Emakumeen partaidetzaren beste ezaugarri berezi bat, lau herrialdeetako kasu gehienetan antzematen dena, etxearen eta komunitatearen berehalako premietatik abiatzea da. Alde batetik, hori positiboa da, emakumeek egiten dituzten proposamenak errealitateari eta beraien ingurunearen premia bereziei lotuta daudelako. Baina beste alde batetik, beste arazo bat sortzen da, alegia, emakumeen interes eta premia pertsonalak barreiatu egiten direla familiarren eta kolektibitatearen barruan, eta, ondorioz, emakumeek parte hartzeko berariazko guneak bilatu behar dira. Garrantzikoena ez da emakumeen egitura paralelo bat edo emakumeen batzorde bereziak badauden, emakume gisa dituzten interesei eta premia bereziei buruz gogoeta egiteko eta horiek definitzeko aukera eta gunea baduten baizik, derrigor komunitatearen eta etxearen mende egon gabe.

Perun, esate baterako, beraien eskubideak ezagutzeko lanaren eraginez, hasieran, beraien autoestimua hobetu

ahal izan zuten elkartzeko, parte hartzeko eta beraien sentimenduak adierazteko; eta horrek, aldi berean, eremu pertsonalean beste hobekuntza batzuk lortzeko aukera eman zien. Horrez gainera, parte-hartzaileek emakumea subjektu politiko gisa aldarrikatzeko beharra identifikatu zuten. Zentzu horretan, zenbait kasutan, emakumeen oinarrizko gizarte erakundearen aldarrikapenen izaera politikoa gero eta nabarmenagoa zela egiaztatu zen. Horietako batzuk elikagaien inguruko kezka eraginda sortu ziren hasieran, eta poliki-poliki sexu eskubideen eta eskubide erreproduktiboaren alorreko gaiak lantzerantz igaro ziren; zenbaitetan konfrontazioa ere jo zen, estrategia politiko gisa. Edonola ere, prozesu horretan antzeman zen, halaber, emakumeei komunitatearekin hartutako konpromisoak kostu handia eragin ziela arlo pertsonalean (Guridi eta Molina, 2011). Horrez gainera, egiaztatu da GKE misto askok generoaren diskurtsoa erabiltzen dutela “kanpora begira”, baina diskurtso hori ez dagoela beraien eguneroko jardueretan barneratuta eta naturalizatuta, eta horrek gehiegizko lana ekartzen die erakunde horietan parte hartzen duten emakumei.

SEADen kasua Latinoamerikako herrialdeetakoen bestelakoa da emakumeen partaidetzari dagokionez, haiek hartu baitzuten hasieran beren gain errefuxiatuen bizitza osoa antolatzeke eta kudeatzeko erantzukizuna, eta, horrela, paper protagonista izan zuten. Alabaina, erantzukizun horrek ez zuen eraginik izan ordezkaritza politiko baliokidean (López Belloso, 2011). Euskal lankidetzari dagokionez, esan liteke emakumeen bizitza publikoaren hainbat alorretan parte hartzen lagundu diela, berdintasun kontseiluen eta jabekuntza eskolen bitartez.

Guatemalari dagokionez, beste ideia pare bat azpimarratzea komeni da. Lehenengoak zerikusia du emakumeen jakintzak (emagin gisa, esaterako) berreskuratzearen eta balioa ematearen garrantziarekin, hainbat arrazoi direla eta: beraien papera protagonistagoa eta ez hain pasiboa bihurtzen delako, jarduerak bertako errealitatearekin lotura handiagoa dutelako, eta bestelako antolamendu eta partaidetza moduak bultzatzen dituelako. Bigarren ideiak lotura du genero-ekitatearen aldeko aldaketan aurrean sortzen diren erresistentzia kulturekin; izan ere, askotan esaten da maiek munduari buruz duten ikuspegia patriarkala dela, eta

horregatik da zaila herri indigenetan generoaren gaia lantzea. Hala ere, kulturaren berezko zenbait kategoriaren definizio berrien bitartez (esate baterako, osagarritasuna onartuta, baina ez nagusitasuna), hainbat bide daude gai horiek lantzeko.

Azkenik, Latinoamerikako hiru herrialdeetan bada emakumeen partaidetza erabat baldintzatzen duen osagai bat: genero indarkeria. Hiru latitudeetan sortu dira tratatu txarrak eta indarkeria jasan duten emakumeentzako laguntza sareak eta harrera esperientziak, baina zaila da tratatu txarreko egoerek duten eraginaren jarraipen argi eta fidagarria egitea. Oro har, zaila da indarkeriaren gaia gai soziopolitiko gisa kokatzea, eta, hortaz, zaila da ikusaraztea beharrezkoa dela erakunde guztiek gai horri aurre egitea. Edonola ere, poliki-poliki, kasu askotan garrantzizko aurrerakuntzak egin direla ikus daiteke.

##### *5. Erakundeak sendotzea, tokiko gobernagarritasuna eta gardentasuna sustatzea eta kontuak ematea*

Gogoan izan behar dugu oso proiektu gutxi sailkatu direla Erakundeak Sendotzea<sup>20</sup> sektorearen barruan; baina horrek ez du esan nahi lankidetzaren barruan garrantzizko gaia ez denik, aztertutako proiektu-prozesu gehienetan baitute eragina tokiko-eskualdeko gobernuekin dituzten harremanek; eta, horrez gainera, kasu gehienetan harremanerako edo jazoerarako estrategiaren bat dute eta, beraz, nolabaiteko eragina dute tokiko gobernantzan.

Proiektuen formulario gehienetan, beren bideragarritasunaren eta jasangarritasunaren azterketa ataletan, tokiko erakundeek duten garrantzia azaltzen da. Izan ere, TGGei buruz hitz egiten denean epe ertain/luze-rako prozesu estrategikoei buruz hitz egin behar da, eta, horretarako, prozesu horien instituzionalizazio maila aztertu behar da, ongizatearen iragarritasuna hobetzeko eta nolabaiteko segurtasun maila iristeko.

Aztertutako proiektu-prozesuek tokiko gobernagarritasun demokratikoaren baldintzetan dituzten zuzeneko eraginetako batzuk –egoera aniztasun handia bada ere– honako hauek dira:

- Organizazioek funtzionamendu publiko-administratiboari buruz ikastea. Era horretara, gardenta-

<sup>20</sup> %5 inguru Guatemalan eta SEADen, eta ia batere ez Perun eta Ekuadorren.

sun handiagoa izango dute, eta erakunde publiko- en barne funtzionamendua ere hobetu egingo da.

- Adostasun politikorako gaitasunak sortzea, tokiko eremuan bereziki. Horrek zerikusi zuzena du lehen aipatutako eragin politikoarekin eta kudea- ketarekin, baina baita tokiko politikei, proiektuei eta aurrekontuei jarraipen formala emateko gaita- sunarekin ere; horren ondorioz, gainera, erakun- deak beraiek gehiago zabaltzen dira.
- Tokiko zerbitzu publikoak hobetzea. Horretarako, kontzientzia handiagoa sortu behar da zerbitzu horiek ematearen premiari, horien funtzioari eta garrantziari buruz.
- Deszentralizazioan aurrera egitea, praktikan; ez agintariak goitik bideratuta, hurbiletik bultzatuta baizik.

Dena dela, Latinoamerikako kasu askotan ondorengo oztopo hauetakoren bat (edo bat baino gehiago) dagoela egiaztatu dugu tokiko erakundeekin lan egi- ten denean: ustelkeria; babeseta eta alderdikeria; gizarte erakundeen liderrak *kooptatzea* eta/edo ezestea; kon- turik ez ematea; gehiegizko burokrazia, izapideak konplexutzea eta mantsotzea; alderdi eta proiektu poli- tikoetan txandakatze bizkorra; politiken arteko kohe- rentziarik eza, eta instantzia pluralen eta hainbat maila- tako administrazioen arteko koordinaziorik eza; etab.

Erraz uler daiteke, beraz, arazo horietako batzuk irauten dutenean, ez dela sistema politikoaren ahultasun jakin baten ondorioz, edo honelako edo halako alkatearen jar- duera txarraren ondorioz; aitzitik, sistema bera da arazo- aren oinarritzeko alderdia, eta baita haren jatorria ere. Guatemalan, esate baterako, polarizazio ekonomiko eta politikoa handiko kasuetan, zaila da tokiko erakundeekin batera lan egitea, eta ahalegin gehienak gizarte zibila sendotzera bideratzen dira, gizarte hori izan dadin era- kundeen jardueraren erreklamatu, aldarrikatu eta gidatuko duena, erakunde horien demokratizazioaren alde eten- gabe borroka eginez.

Era berean, Perun, tokiko erakundeekin lan egiteko era askotako arazoak daudela egiaztatu da (Guridi eta

Molina, 2011): a) deszentralizatzeko huts egin duten saiakerak, eskumenak udalei aldatzeko baldintzarik ezaren ondorioz; b) instituzionaltasun ahula eta ustel- keria endemikoa; c) tokiko erakundearen gardentasunik eta gobernagarritasunik eza, hainbat arrazoiren ondo- rior: onartuta dauden arauak eta legeak abian jartzeko borondate politikorik eza; irteten den administrazioak egindakoa kontuan ez hartzeko joera; karguen txan- dakatze handia, eta ezagutza gizarteratzeko eta siste- matizatzeko mekanismorik eza; etab.

Horrek guztiak adierazten du prestakuntza politikoa egiteko premia izugarria dela, bai politikarien aldetik bai gizarteko oinarrien aldetik. Gai horri dagokionez, aipagarria izan da Perun kudeaketa hobetzeko eta irra- ti komunalen eta herri irratien bitartez informazio- arako sarbidea hobetzeko egin den esperientzia; izan ere, oinarritzeko eskakizuna da herritarrak informatuta edu- kitzeko.

SEAD, bestalde, sistema parte-hartzailearen adibide berezia da: udal biltzarretan, eskualdekoetan eta nazionalen oinarritzen da, hiru herri erakundeek (UNMS, UGTSARIO eta UJSARIO) zabalduko bi- deez gainera. Edonola ere, gatazka politikoa ez aurrera ez atzera dagoenez, egitura politiko paraleloak daude, eta, ondorioz, hainbat egitura politiko-administratibo bikoiztu egiten dira; horren eraginez, hainbat inkohe- rentzia sortu dira. SEADek badu beste berezitasun bat: gaitasun politikoen eta instituzionalen sustape- nak lurralde askeetan zein lurralde okupatueta izan lezakeen garrantzia (López Beloso, 2011).

### *6. Hitzartze guneak sortzea administrazio publikoen eta gizartearen artean*

Latinoamerikako hiru herrialdeetan garapenaren pla- nifikazio parte-hartzailea sustatzeko eta gobernuen eta gizartearen artean proiektuak eta lehentasunak hitzar- tze gune formalak daude, hala nola, Garapen Kontseiluen Sistema (GKS) Guatemalan, Tokiko Garapen Planak egiteko esperientziak Ekuadorren<sup>21</sup>, edo Tokiko Koordinazio Kontseiluak Perun. Hiru herrialde horietan balorazio eta jabetza maila oso

<sup>21</sup> Aztertutako hamarkadan, Ekuadorren ez zen nazio mailan garapenerako inolako plangintzarik egin; aldiz, tokiko esparruan ugalduta egin dira planifikatzeko esperientziak, oso prozesu parte-hartzaileen zenbait ereduarekin. Egoera hori aldatu egin da 2008 urteaz geroztik Konstituzio berriarekin: mekanismo ugari daude tokiko esparruan partaidetza bultzatzeko, baina eskualde eta nazio mailako plangintzagu- ne eta formulekin elkartzuta.

desberdinak dituzte, baina Peruko eta Ekuadorreko esperientziak zehatzagoak eta eragin txikiagoak izan dira oro har; Guatemalan, aldiz, ia erakunde guztiek lan egiten dute eta bultzatzen dute komunitatearen partaidetza GKSen bitartez. Guatemalan, beraz, partaidetza publikorako bide formalak zabaltzeak eragin nabarmena izan du ekintza kolektiboen izaeran, eta baita nazioarteko lankidetzaren orientazioan ere (Guzmán, 2011).

Guatemalan gehiengoak pentsatzen du erakundeak GKSetan parte hartuta sendotu direla hainbat alorretan, sistemak jauntxokeria murrizten ere lagundu duela –komunitatearen liderren txandakatze handiagoa izateko aukera ematen duelako–, eta GKS oso positiboa izan dela emakumeek espazio publikoetan partaidetza izango dutela ziurtatzeko. Hala ere, hainbat arazok bere horretan jarraitzen dute, hala nola, alkateen botere kontzentrazio handia, kontseiluak osatzen dituzten zenbait pertsona izendatzeko duten gaitasunagatik, besteak beste. Eta emakumeen partaidetza formalizatu bada ere, emakumeek Garapenaren Kontseilu Komunitarioetan eta Garapenaren Udal Kontseiluetan duten partaidetza txikia da eta beraien interes propioek bigarren mailako lekua hartzen dute. Emakume indigenei, gainera, hizkuntzarekin zerikusia duten gaiak eragiten diete, eta, praktikan, Kontseiluetan parte hartzeko bazterketa faktore bat izaten da.

Egoera horretan, Guatemalan, erakundeen eta gizarte organizazioen arteko hitzarmenei dagokienez, hiru joera egiazta ditzakegu: a) alde batetik, profil politikoa bultzatzea zein premiazkoa den egiaztatu duten erakundeak daude, herritarren premiak asetzeko Estatu ordeztara ez mugatzeko profil hori eduki beharko luketela ohartu baitira; b) beste erakunde batzuek instantzia publikoen aurrean norabide argi eta garbi kritikoa hartu dute ardatz gisa beraien estrategietan; c) eta, azkenik, zerbitzuak emateko eta politikan eragiteko estrategien arteko orekari eusten dioten erakundeak daude (Guzmán, 2011).

Bien bitartean, Ekuadorren ez badago ere erakundeak sendotzeko inolako proiekturik, hainbat kasu positibo izan dira organizazioen eta erakundeen arteko talde lanari dagokionez. Esate baterako, zenbait proiektu batera finantzatu dira eremu horretan eragiteko lan egin delako, edo aurrekontu parte-hartzaileak daude-

lako. Paradoxikoki, 2007. urteaz geroztik Estatuak garapena antolatzeke eta oinarrizko eskubideak eta zerbitzuak bermatzeko papera hartu duenetik, organizazioei Estatuaren funtzio horietara egokitzeko premia sortu zaie. Alde batetik, positiboa da, organizazioak betidanik esan baitute Estatuari dagokiola oinarrizko zerbitzuak bermatzea; baina, beste alde batetik, Estatuaren protagonismo hori zer modutara eta erritmotara gertatzen ari den ez dator bat tokiko organizazioekin gauzak hitzartzeko eta lanean jarduteko dauden aukerekin (Villalba, 2011).

### *7. Jatorrizko herrien autogobernua*

Latinoamerikako hiru herrialdeetan behin eta berriro agertzen diren gaiak dira herri indigenen berezko antolakuntza moduak eta horiek gaur egungo Estatuaren esparruan autogobernurako dituzten aukerak. Gai horrek, noski, eragin zuzena du euskal lankidetzaren lan egiteko moduetan. Ekuadorreko Amazonian, esate baterako, abian da bertako antolamendu dinamiken jarraipena egiteko prozesu bat.

Oro har, Estatuaren antolamenduaren eta komunitatearen antolamenduaren artean tirabirak hainbat eremutan sortzen direla egiaztatu dugu: esate baterako, Guatemalan GKSen eta komunitate formen artean, edo Ekuadorren, Amazoniako eremuetan osatutako estatu-administrazioaren araberrako plangintzaren eta indigenen autogobernu moduen artean. Zenbait kasutan, Estatuak erakunde bereziak ditu indigenen eskubideei segimendua egiteko; baina Perun, esate baterako, ez dirudi orain arte oso erabilgarriak izan direnik. Era berean, Ekuadorren, Konstituzio berrian Lurralde Barruti Indigenak sortzea aurreikusten da, baina, praktikan, oraindik ez dakite nola funtzionatuko duten. Ildo beretik, Guatemalan ere aipatzen da GKSak ez diela laguntzen komunitate indigenen berezko partaidetza eta ordezkartza egiturekiko errespetuari.

Beste gai korapilatsu batek zerikusia du hizkuntza oztupoekin: administrazioarekiko ia gestio guztiak gaztelaniaz egin behar dira, eta horrek zailtasun ugari sortzen dizkie indigenei, emakumei bereziki. Izan ere, alde batetik, emakumeak dira beraien hizkuntza eta balio kulturalak ondoen gorde dituztenak, eta, beste alde batetik, emakumeak dira hezkuntza formalean jarduteko aukera gutxien izan dituztenak. Esan beharrik ez dago egoera hori are larriagoa dela tokiko



erakundeetan erantzukizuneko kargu bat betez gero, edo hitzartze guneen zuzendaritzetan.

Horrez gainera, kontuan hartu behar da herri indigenek bestela ulertzen dutela zer den “publikoa eta kolektiboa”. Indigenek munduari buruz duten ikuspegiaren eta beraien balio kulturalen ondorioz, garrantzitsuagoa da, askotan, adostasunak eta oreka komunitatearen baitan bilatzea, banakako botoan oinarritutako demokrazian baino. Era berean, subjektu kolektiboaren eraikuntza ez da gizabanakoen batura hutsean oinarritzen, subjektu plural eta komunitario batean baizik. Ildo horretatik, herri indigenetan bakarrik gertatzen ez bada ere, elkarrekikotasun moduak eta balioak eta antolamendu komunitario garrantzi handikoak dira landako eremuetan, eta, askotan, ez dute Estatu konbentzionalaren kanonen arabera funtzionatzen.

Bestalde, tokiko erakundeekin edo erakunde nazionalekin gatazkak egoten dira gai zehatzak (baina garrantzi handikoak eta komunak) direla-eta, hala nola, baliabide naturalen ustiapenarekin eta lurraldetasunarekin zerikusia duten gaiak. Indigenek lurralde baten gainean duten subiranotasuna onartzeko joera nagusitzen ari da, baina meatzeen edo petrolioaren ustiapena berdin egiten da, aurretik kontsultatu gabe. Gai horrek hainbat arazo sortu ditu Amazonian, bai Ekuadorren bai Perun, eta baita Guatemalan ere, mineralak erazten diren eremuetan. Azken herrialde horretan, aipagarriak dira meatzaritzaren kontra sortzen ari diren esperientziak –tokiko herri kontsultak–, nahiz eta ez diren soilik indigenen artekoak.

### *8. Partaidetza ikuspegiaren zeharkakotasuna lankidetzan*

Eremu soziopolitikoan, euskal lankidetzaren eta tokiko gizartearen baitako prozesuen arteko loturak aztertzeko funtsezko hainbat puntu aztertu ditugu. Oraingo honetan, zehazki proiektuen dinamikari dagozkion hainbat osagai aurkeztuko ditugu.

Hasteko, onartu beharra dugu proiektu-prozesu guztietan aztertzen dela herritarren partaidetza proiektuaren zikloan, eta gai hori betebeharrak bat dela erakundeek egiten dituzten deialdietan. Itxuraz, diagnostikoari, lan-ketari eta gauzatzeari dagozkion etapetan, partaidetza nahiko zehatza eta egokia da, baina jarraipenaren eta ebaluazioaren etapetan mekanismo argiagoak behar

dira (Villalba, 2011). Gai hori funtsezkoa da, izan ere, ez dago tokiko ahalduntzerik, baldin eta zer egin nahi den erabakitzen ez bada eta gauzak benetan nola irten diren aztertzen ez bada.

Hori lotuta dago, aldi berean partaidetza prozesu zabalak oso konplexuak eta dimentsio aniztunak izatearekin, eta, horregatik, ez dira erraz txertatzen garapenerako lankidetzaren esparruetan. Prozesu horien inplementazioa egiteko denbora behar da, eta, ondorioz, epe ertain eta luzerako ikuspegia eduki behar da; proiektuen dinamika, ordea, epe laburrera proposatzen da, eta denboraren esparru zurrun eta oso mugatua gertatzen da. Aldi berean, partaidetza prozesu zabalak emaitzak batez ere kualitatiboak dira, eta ez dira erraz iragartzen; horregatik da konplexua horiek neurtzea eta horien jarraipena egitea. Proiektuek, aldiz, zenbatu, ukitu eta erraz kontrastatu daitezkeen emaitzak behar izaten dituzte. Horrez gainera, aipatutako prozesuek aldaketak behar dituzte botere harremani dagokionez (organizazioen barruan, beste erakundeekin, generoen artean, etab.); GGKEetako eta gobernu erakundeetako langileek ez dute nahitaez partaidetzako eta antolamendu aldaketako metodologian trebatu beharrik.

Azkenik, herritarrek TGG prozesuetan duten partaidetzan sakontzeko aukera gehiago eskaintzen duten puntuei begiratu bat ematea komeni da. Hala nola: a) Begien bistako onurak lortzea eta premia zehatzak asetzea. b) Balio komunitarioak edukitzea (auzolana, elkarrekikotasuna, solidaritatea erbestean, etab.). c) Politika publikoetan eragin ahal izateko egiturak egotea (GKS, deszentralizazioa, Konstituzio berria Ekuadorren, etab.). d) Nortasun kontuak, esate baterako, autodeterminazioaren aldeko borroka edo indigenen autogobernuaren defentsa.

Aldi berean, hainbat puntu komun daude partaidetza lotura horiek mugatzen eta zailtzen dituztenak. Egiaztatu ditugun batzuk honako hauek dira: a) Pertsonen autoestimurik eta konfiantzarik eza. b) Prestakuntza berezirik zein orokorrik eza. c) Baliabide gutxi edukitzea eta denboraren erabilera desberdinak. d) Autoestimua, prestakuntza eta denboraren erabilera, emakumei oso modu jakinean eta berezian eragiten dien osagaiak dira; emakumeek, aldi berean, beste arazo batzuei ere aurre egin behar diete. e) Abian diren politiken inertziak eta dinamika: erakundeen

jarrera itxia eta borondate politikorik eza; bezero-  
rian oinarritutako politikak; talde ekonomikoen eta  
botereen presioak; izapide burokratikoak; etab. f)  
Erakundeen barneko mugak, partaidetzaren euska-  
rrietako bat badira ere, arazoak ekartzen dituzte:  
lidergo egokirik eza; partaidetza talde batzuetara  
mugatzea; aurreikuspenik eta plangintzarik eza  
kudeaketan; etab.

Amaitzeko, euskal lankidetzaren barneko esperien-  
tziek, oro har, herritarren antolamendua eta partaide-  
tza hobetzeko aukera eman dute; edonola ere, lekuan  
lekuko berezitasunak eta egoeren eta eragileen konbi-  
nazio konplexuek baieztatzen dute behar-beharrezkoa  
dela xehetasun eta sakontasun handiagoko azterketa  
bat egitea.

## 6. Ondorioak eta gomendioak

### 6.1. Ondorioak

Aniztasuna etengabe errepikatzen den aldagaia da aurkezten dugun ikerketa honetan: hautatuko herrialdeen errealitateak desberdinak dira, aztertutako proiektuak eta prozesuak desberdinak dira, desberdinak dira erakundeak eta generoaren ikuspegia lantzeko dituzten moduak, eta desberdinak gara ere azterketetan parte hartu dugunok. Horregatik guztiagatik, uste dugu azalduko ditugun gogoetek garrantzizko gakoak emango dizkigutela, baina, seguru asko, ezin estrapola litezkeela euskal lankidetzaren multzo osora.

Proiektu hau euskal lankidetzaren hamar urteko epearen azterketa kuantitatiboarekin hasi zen. Uste osoa dugu era honetako azterketak oso erabilgarriak izan litezkeela aldian-aldian egiten badira. Datu kuantitatiboek ez dute helburua izan behar, baina ezinbesteko baliabidea dira administrazioaren zereginaren bilakera hobeto ezagutzeko, eta datu horien irakurketa zuhurrak hainbat giltzarri eman diezazkiguke etorkizunerako. Euskal lankidetzaren azterketa kuantitatibo sistematikoek, gainera, garapenerako politikaren eta proiektu eta prozesuen ebaluaziorako adierazle berriak diseinatzeko lagunduko dituzte uste dugu.

Euskal lankidetzak hautatutako herrialdeetan sustatutako Tokiko Giza Garapenerako prozesuetan bete duen papera aztertzea eta modu kualitatiboan ebaluatzea izan da ikerketa honen azken helburua. Jakin badakigu

TGG prozesu handinahietan lankidetzak oro har eta txikiak bereziki (kasu honetan bezala) duen ekarpena mugatua dela. Gizarte bakoitzaren berezko prozesuak ez daude garapeneraren aldeko lankidetzaren mende, noski.

Hala ere, azterketa orokorraren eta holistikoaren ikuspegi hori da, hain zuzen ere, lankidetzari aplikatutako TGG ikuspegiaren ekarpenetako bat: kontua ez da arreta garapen ekintza jakinetan jartzea, baizik eta ahalduntzea zein ongizatea lortzeko berezko prozesuei eta prozesu endogenoei lagunduko dieten bideak bilatzea. Eta ongizatea gizabanakoarena zein taldearenaenez aldi berean eta faktore askoren mende dagoenez, ikerketa honek gizarte dinamika multzo batean jarri du arreta, eta dinamika horietan txertatzen eta egituratzen dira lankidetzaren tresnak; kasu honetan, ekintza zehatzak bultzatzen dituzten garapen proiektuak izan dira tresna horiek. Beraz, ondoren azalduko diren ondorioak eta gomendioak lankidetzaren ikuspegi horretatik abiatuta interpretatu behar dira.

Atera dugun lehenengo emaitza izan da TGG esparrua oso erabilgarria izan dela kasu guztietan, nahiz eta desberdintasunak dauden herrialdeetako testuinguruen artean –desberdintasun horiek, gainera, maila askotakoak dira–. Erabilgarria eta egokia da ez bakarrik proiektu hau edo hura zehazki ebaluatzeko, baizik eta proiektu horiek pertsonen ongizatea ematen

dioten talde gaitasunak aktibatzeneko prozesu endogenoen sorrerari lagundu dioten aztertu ahal izateko. Hain justu, tokikotik abiatuta Giza Garapena lantzeko ikuspegiak askotariko testuinguru horietara egokitzeko eta horiek zuzen interpretatzeko aukera ematen du, eta baita eskatu ere: ez dago TGGa lantzeko modu bakar bat; ikuspegi horretan beharrezkoa da askotarikotasuna hainbat erataria eta hainbat unetan ezagutzea.

Egiaz, aztertutako proiektuen artean oso gutxi dira beraien burua TGG ikuspegiarekin identifikatzen duten proiektuak edo sigla horiek erabiltzen dituztenak, baina horietako gehienek txertatzen dute ikuspegi horren berezko dinamika hauetakoren bat:

- Pertsonen ongizatea hobetzea bilatzen dute, bai gizabanakoena bai taldearena. Nahiz eta gero aldeak dauden ekintza zehatzagoak eta sektorialagoak inplementatzen dituzten eta arreta gizabanakoen eta taldearen gaitasunen garapenean jartzen duten proiektuen artean.
- Beraien gizarte baldintzetatik abiatuta desiragarri izan litekeen ongizatearen ikuspegia osatzen dute, eta etorkizun hori adosteko eta/edo hitzartzeko gaitasun kolektibo endogenoak sortzen dituzte.
- Modu estrategikoan lan egiten dute, eta horrek, nahitaez, prozesuaren epe luzerako ikuspegia edukitzea dakar. Iraupen zehatzeko proiektuak epe laburra, ertaina eta luzea modu egokian antolatuko duen plangintza estrategiko batean kokatu eta horren mende jartzen dira.
- Ardatz desberdinetan garatutako ekintzen arteko sinergiak ezartzen dituzte; gisa horretan, proiektu baten oinarritzko jarduera-sektorea antolatu eta osatuko da, landu beharreko gaia baldintzatzen duen gizarte ingurunean eragiteko helburua duten beste jarduera batzuekin. Horretarako, ezinbestekoa da diziplina anitzeko ikuspegiak lantzea.
- Tokikoaren eraikuntza, muga eta autodefinizio soziala eta kolektiboa eragiten dute, eta horrek erraztu egiten du prozesuen *lurralde banaketa*, komunitateek parte hartzeko eta erabakitzekeo duten gaitasuna kontuan hartuta.

Lau herrialdeentzako bigarren ondorio orokorra honako hau da: Giza Garapena ez da posible ez badira

genero-ekitatearen aldeko estrategiak eta partaidetza prozesuak inplementatzen. Alde batetik, begien bistakoa da patriarkatuaren ondoriozko zapalkuntza eta desberdintasunak direla emakume gehienek ongizaterik ez edukitzearen funtsezko arrazoiak; baina, beste alde batetik, argi dago emakumeen eta gizonen partaidetzarik gabe, agentziarik gabe edo gauzak bereizteko eta erabakitzekeo gaitasunik gabe, ez dela pertsonak aktibatuko dituen eta ongizaterako bideak irudikatzen eta igarotzen lagunduko dien prozesu endogenorik egongo.

Lau kasuetan indarrean diraute genero desberdintasunak. Eta desberdintasun horiek bizitzaren eremu guztietan agertzen dira: maila pertsonalean; etxearen eremuan, zeinetan etengabe errepikatzen diren harreman matxistak; eremu publikoan, diru sarrerak sortzeko eta banatzeko orduan, zein eremu politikoagoetan eta antolamenduaren alorrekoetan. Aztertutako testuinguruetan, aipagarria da emakumeen eta gizonen artean dagoen alde nabarmena, bai hezkuntzari bai prestakuntzari dagokionez. Desberdintasun horiek nabarmendu egiten dira beste aldagai batzuekin gurutzatzen direnean, esate baterako, gizarte mailarekin eta etniarekin, gurutzaketa horiek bereizkeria egoera ugari eragiten baitituzte. Proiektu eta prozesu ia guztiak saiatzeko dira, era batera edo bestera, gai horretan eragiten, tailerren edo prestakuntza moduluen bitartez; izan ere, hezkuntza funtsezko giltzarritzat hartzen da beste desberdintasun batzuei aurre egiteko, hala nola, enplegura iristea, partaidetza publikoa, etab.

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunek sistema patriarkalean dute jatorria, eta, zenbaitetan, muturreko egoeretan amaitzen dira. Egoera horien adierazpen gordinena emakumeen kontrako indarkeria adierazpen guztiek osatzen dute, munduko herrialde guztietako emakume askoren bizitza baldintzatzen baitute, eta gogortasun handiz irauten du aztertu ditugun Latinoamerikako herrialdeetan.

Desberdintasunen oinarrian daude emakumeek eta gizonen nola erabiltzen duten denbora, ez baitituzte erantzukizun berberak ez eremu publikoan ez etxean. Etxeko rolak aldatzeko zailtasun handiak daudenez –arazo pertsonaltzat eta ez kolektibo edo publikotzat hartzen baita–, emakumeek proiektuetan modu aktiboan parte hartzen duten kasu ugarietan, edo horietako lider direnean, lanaldi hirukoitza



hartu behar izaten dute beraien gain (produktiboa, erreproduktiboa eta komunitarioa).

Aztertutako proiektu eta prozesu ia guztiak ahalegintzen dira emakumeen partaidetza bultzatzen eta sustatzen, baina beti ez dute beraien ikuspegiaren eta estrategiaren arabera egiten; zenbaitetan, horiek txertatu edo ekimenei erantsi baino ez dituzte egiten, baina ez dute emakumeen partaidetza haiek jasaten dituzten egiturazko desberdintasunak gainditzeko bidetzat hartzen.

### ***Eremu sozioekonomikoa***

Testuinguru batzuetan, batez ere Ekuador eta Guatemalako landa inguruneetan, bertako bizibideak defendatzea eta komunitatearen gaitasun produktiboa garatzea zein garrantzitsua den egiaztatu ahal izan dugu. Horretarako, nekazaritza dibertsifikatu eta berritu egin behar da, ikuspegi partikularretik abiatuta; nekazaritza ekologikora eta elikadura subiranotasunera bideratu behar da. Eremu horretan funtsezkoa da emakumeen jakintzak aitortzea. Gaitasun produktibo horiek hobetzeko tresnatako batzuk esperientziak eta teknologia komunitarioak trukatzea eta prozesu produktiboen jarraipen komunitarioa egitea izan dira.

Horrez gainera, merkaturatzeko bide alternatiboen bilaketa azpimarratu nahi dugu: merkataritza komunitarioa eta asoziatiboa tokiko azoketan eta bidezko merkataritzaren kanaletan. Edonola ere, horrek ez du oztopoa izan behar tokiko merkatuetarako produkzio logikak eta esportaziorako produktu berezi bat lotzeko. Hala ere, zenbait esperientzian, Perun esaterako, inplementatutako jarduera produktiboak esportazio intentsiboko eredu konbentzionalei lotu zaizkie, eta horiek etekin txikiak ekartzen dizkiete bertako herriarrei eta txartu egiten dituzte haien lan baldintzak.

Aztertutako lau herrialdeetan garrantzizko esperientziak egin dira kredituei eta aurrezkiei lotuta (banketxe komunalak, aurrezki taldeak, mikrokredituak, etab.). Hala ere, esperientzia guztiak ez dira berdinak: SEADen mikrokredituen esperientziak batez ere negozio eta zerbitzu txikiak sustatzeko, funtzio publikoa motibatuzko eta lanaren aurreko jarrera aldatzeko izan dira; Guatemalan, berriz, mikrokreditu horiek logika produktibo nagusietan txertatzeko mekanismo konbentzional gisa inplementatu dira.

Logika nagusien azterketa urri hori, zenbaitetan, emakumeen egoera ekonomikoan erreproduzitzen da; izan ere, emakumeentzako enplegua edo diru sarrerak lortzeko ekimenak bultzatzen dira, baina ez da lortzen haien enpleguen ezegonkortasuna eta formaltasunik eza aldatzea, edo haien diru sarrerak automatikoki familiaren mende jartzea, gizonezkoen diru sarreren erabilera partikularren aldean.

TGG ikuspegiaren barruan, alderdi ekonomikoa beste osagai bat baino ez da. Hala ere, ezagutu ditugun errealitateetan, alderdi ekonomikoa behin eta berriro agertzen den faktorea da, eta alderdi horrek gainerako ekimenak baldintza ditzake gainera. SEADen, esate baterako, laguntza humanitarioaren ikuspegitik lankidetzaren proiektu egonkorragoetan oinarritutako ikuspegiarako bidea egin da, “garapena babeslekuan” orientazioaren barruan, zeinetan jarduerak ekonomikoek gero eta protagonismo handiagoa hartu duten. Hala ere, erbestean egoteak eta gatazka egoera iraunkorrak handitu egiten du kanpoarekiko mendekotasun ekonomikoa zerbitzu oinarrikoenetan, eta hori politikoki presionatzeko erabili ahal izan bada ere, bertako garapen proiektu bat inplementatzea eragotzi du. Bestalde, Latinoamerikako hiru herrialdeetan, erauzketaren inguruko jarduerak ekonomikoko (petrolio eta meatzaritza bereziki) nazioz gaindiko enpresa handiak gatazka sortzeko osagaia izan dira; horrek ondorio negatiboak izan ditu eta era askotara baldintzatu ditu ez bakarrik garapen endogenoko proposamen alternatiboak burutzeko aukerak, baita komunitateen proiektuak aurrera eramateko aukerak ere, eta, kasu askotan, komunitateen existentzia bera ere kolokan jarri du, beraien lurraldea eta bertako baliabideak lortzeko lehiatzen baitira zuzenez. Azkenik, hurbilagoko ikuspegi batetik, lankidetzaren bitartez finantzatutako proiektuen kasuan, proiektuetako jarduerak ordaintzea edo jarduerak horiek aurrera eramateko baliabide gutxi edukitzea, proiektu horien bilakaera baldintzatzen duen osagaia izan daitezke.

### ***Eremu soziopolitikoa***

Latinoamerikako hiru herrialdeetan, Oinarriko Gizarte Erakundeak sendotzearen aldeko lan handia egin dela egiaztatu ahal izan da, herritarren partaidetza lortzeko eta premiak eta aldarrikapenak egiteko bide nagusitzat ikusten baitira horiek (sahararren

kasuan, kanpalekuen autoantolamenduarekin konpara daiteke). Era berean, tokiko erakunde eta administrazioekin egiten diren ahaleginak antolatzeko premia egiaztatu da, horiek izan beharko bailukete oinarrizko eskubideen bermatzaile, eta haiei egokitu beharko bailitzaieke gizarte ongizatearekin bat datozen politika publikoen inplementazioa.

Hala ere, hainbat erronka daude oraindik gizarte-antolamenduko alderdiei dagokienez: nagusiak, beharbada, lidergo komunitario demokratikoak sortzea eta bezerokeria sistemei eta saldukeria politikoari aurre egitea dira. Perun, bi alderdiak dira berdin-berdin beharrezkoak: gizarte zibila eta tokiko gobernuak indartzea, bai tresnei dagokienez bai orientabide etiko demokratikoari dagokionez. Guatemalan edo Ekuadorren, berriz, gehiago azpimarratzen da gizarte erakundeak indartzeko premia, horiek izan daitezten tokiko zenbait gobernuen kudeaketa txarra gidatu eta salatuko dutenak, eta garapen prozesuen demokratizazioan eragingo dutenak.

Gizarte-antolamenduaren eremuari dagokionez, bada beste erronka bat, hain zuzen ere, eragiteko jarduerak eta zenbait eragileren arteko aliantza estrategikoak aipatzen dituena. Latinoamerikako hiru herrialdeetako esperientziak aditzera ematen dute beharrezkoak dela esperientziak partekatzea eta sare lanean sakontzea, bai garapen jarduera zehatzei dagokienez bai eragiteko kanpaina politikoei dagokienez.

Ildo horretatik, salbuespenak salbu (Guatemalaren kasua esaterako), tokiko gizartean dauden Gizarte Mugimenduen arteko harreman estrategikoa eskasa dela ikusi da. Ekuadorren, esate baterako, erakunde askok genero-ekitatearen alde nolabaiteko lana egiten badute ere, ez dago mugimendu feministarekin sinergiak bideratzen dituen erakunderik.

Lau herrialdeetan, erronka bat da gaur egun oraindik ere emakumeentzat boterera, zuzendaritzetara eta erabakiak hartzeko guneetara iristea, bai herri erakundeetan bai erakunde publikoetan; izan ere, oztopo ugari gaintu behar dituzte, hala nola, harreman matxistak, aisialdi gutxi dute lanaldi bikoitzak edo hiru-koitzak dituztelako, gaitasun teknikorik ez dutelako, etab. Saharar emakumeen kasuan, haiek izan ziren kanpalekuetan dena antolatzeko arduradunak, baina su-etenaz geroztik eta gizonezkoak itzuli zirenez geroztik, atzerako urratsak egiten direla ikusi da.

TGG ikuspegiaz hitz egitean, ezinbestekoa da osagai kulturalak aipatzea, eta are gehiago aztertutako tesuinguruen antzekoetan, kultura aniztasun eta aberastasun handia baitute ezaugarri nagusia. Ongizateaz hitz egin nahi badugu, egokitzapen kulturalak funtsezko osagaia izan behar du garapenerako proiektuetan eta prozesuetan. Ideia horretatik hainbat osagai azaleratzen dira, besteak beste: bertako hizkuntzen erabilera; herri indigenekin lan egitea, haiek munduaz duten ikuspegia eta/edo beraien antolamendua interpretatzen eta ulertzen ahaleginduz; lurraldetasuna eta autogobernua; edo subiranotasuna, bioaniztasuna eta baliabide naturalen kudeaketa... Osagai horiek guztiak oinarrizkoak eta ezinbestekoak dira Tokiko Giza Garapenaren osoko planteamendu batean.

### *Euskal lankidetzaren Hegoaldeko erakundearen begietan*

Euskal lankidetzaren oro har, oso modu positiboan baloratzen dute lau herrialdeetan, hainbat arrazoi direla eta: tokiko erakundearen prozesuetan laguntzea eta ulertzea; zeharkako ardatz interesgarriak proposatzea; proiektuko zenbateko handia finantzatzeko gaitasuna, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, etab. SEADen kasuan, gainera, okupatuta dagoen herri batek oso aintzat hartzen du bertako gatazka egoera ulertzea eta elkartasunak izaera politikoa edukitzea.

Edonola ere, hainbat puntutan eragozpenak sortzen dira, eta eragozpen horiek errepikatu egiten direla esan dezakegu: proiektuek bi urteko muga dute, eta gizarte batean aldaketa sakonak eragiteko epe luzeko prozesuak behar dira; administrazioen artean formatuak eta baldintzak ez dira bateratzen, eta horrek hantitu eta zaildu egiten du justifikazio lana; eta eragilearen artean ez dago koordinaziorik, eta horrek lankidetzaren deszentralizatua eragin dezake. Eragile ugartasun horren ondorioz, euskal GGKEak eta tokiko erakundeak barne, ahaleginak sakabanatu egiten dira, eta horrek, aldi berean, jarduera bakoitzak izan dezakeen eraginaren sakontasuna murriztu egiten du; baina, aldi berean, ugartasun horren ondoriozko aniztasuna azpimarratzen eta baloratzen da, lankidetzaren aberastasunaren faktore gisa.

## 6.2. Gomendioak

Egindako azterketek eta azterketa horietatik atera ditugun ondorioek zenbait gomendio emateko aukera ematen digute. Gomendio horiek, gai blokeka

ordenatuta aurkeztuko ditugunak, uste sendo batetik abiatzen dira: lankidetzaren eraldatzaile eta solidarioago bat eraikitzeke, pertsonen ongizatearekin konpromiso handiagoa duen lankidetzaren osatu behar da, eta, hortaz, Tokiko Giza Garapeneraren ikuspegiak hartu behar dira kontuan, genero-ekitatearen ikuspegitik, betiere.

### *TGGerako estrategiak*

1. TGGan bost estrategia praktikoko landu behar dira batera: ongizatea eta gaitasunak elkartzea; taldeko proposamenak eta proposamen endogenoak eraikitzea; epe luzearako ikuspegi estrategikoa; jardueren integralitatea eta diziplina aniztasuna; eta partaidetzaren araberrako *lurralde banaketa*. Euskal GGKEei eta tokikoei dagokie ildo horiek modu egokian antolatzea, edozein dela ere horien jardueraren sektorea.
2. TGGak zuzendutako lankidetzaren asmoa da Tokiko Garapenerako edo Tokiko Garapen Ekonomikorako proposamenak gaitzea, bizitza materialari dagozkion baldintzetan jartzen baitute arreta; eta tokiko gizartearen berezko beste aldaketa prozesu batzuetara zabaldu behar du, esate baterako, *sumak kawsay* (Ekuador) inguruko zibilizazio aldaketetarako proposamenak, elikadura subiranotasunerako proposamen politikoa (Guatemala), edo, gizartearen motor gisa, autodeterminazioa bilatzea (SEAD), eta beste hainbat. Euskal GGKEei eta erakundeei dagokie tokiko dinamika inmanenteen ulermenean sakontzea eta prozesu sortu berri horiei laguntzeko behar adinako malgutasuna izatea.
3. TGG prozesuak ahaleginak batu eta koherentzia behar ditu; horregatik, euskal GGKEei eta tokiko erakundeei gomendatzen zaie norabide askotan egiteko aliantzak, horien bitartez indartu egiten baita inplementatutako ekimenen eragiteko gaitasuna. Horrek ez du esan nahi lurralde edo sektore bateko eragileen artean dauden interes gatazkak alde batera utzi behar denik. Beharrezkoa da zehaztea aldaketa prozesuek izaera politikoa dutela eta horiek erresistentziak eragiten dituztela.
4. Gaikuntzak eta prestakuntza tailer motak garrantzizko tresnak izan dira gizabanakoen gaitasunak zein taldekoak garatzeko. Gaikuntzak, hala ere, genero-ekitatearekin zerikusia duten

gaitetan egin behar dira; orientazioak integralagoa eta jarraituagoa izan behar du, saioak sentsibilizazio eta kontzientziazio mailatik haratago joan daitezten. Horrek esan nahi du, halaber, gizonek eta botere publikoek modu berezi eta jarraituan parte hartu behar dutela gaikuntza horiek modu eraginkorrean eragin dezaten emakumeek bete behar dituzten rolekiko gizonek dituzten jokabideak aldatzeko prozesuan.

### *Genero-ekitatea*

5. Sistema patriarkalaren ondorioz sortutako botere harremanak aldatzeko ikuspegi eta estrategietan sakontu behar da. Horretarako, ezinbestekoa da TGG prozesuari buruzko berezko erreferentziak definitzeko guneak sortzea, emakumeen baldintzetatik eta egoeretatik abiatuta.
6. Estrategikoki, derrigorrezkoa eta beharrezkoa da emakumeekin lan egiten jarraitzea, haien ahalduntzea eta desberdintasunak gaitzea sustatuko duten berezko guneetan. Baina premiazkoa eta erabilgarria da, halaber, gizonezkoak berdintasunaren aldeko prozesuetan txertatzeko bideak bilatzea. Maila strategikoarekin jarraituz, beharrezkoa da modu zuzenean interpretatzea komunitateen aldaketa erritmoak eta GGKEek horietara egokitzeko proposamenak, kontuan hartuta oreka behar dela halabeharrezko gatazkaren eta prozesuekin jarraitzea eragotziko duten gehiegizko erresistentzien sorreraren artean.
7. Emakumeen kontrako indarkeria asko dago, maila askotan, eta ingurune seguru batean bizitzea ezinbesteko baldintza denez pertsonaren zein taldearen autonomia lortzeko, lankidetzak kontuan hartu behar du errealitate hori bere helburuetan. Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko, ezinbestekoa da erakunde feministekin eta emakumeen erakundeekin lan egitea.
8. Garrantzizkoa da beste gai hauek lantzen jarraitzea: etxeko harremanak, rol aldaketa eta horrek berarekin dakarren denboraren erabilera desberdina, lan erreproduktiboak aintzat hartzea eta baloratuzea, emakumeen lan produktiboak eta beraien autonomia ekonomikoa aintzat hartzea, eta baita emakumeen partaidetza soziopolitikoa eta lidergoen jardutea.

**Eremu ekonomikoa**

9. Lehenetsuneko da eredu ekonomiko berriari laguntzea, bereziki Ekonomia Sozialaren eta Solidarioaren, Ekonomia Ekologikoaren eta Ekonomia Feministaren printzipioei jarraitzen dieten kasuetan. Ildo horretatik, garrantzizkoa da aldekata handien aldeko apustua egitea, diru sarrerak handitzea baino zerbait gehiago bilatzen dutenak eta ekonomia konbentzionalari lekua hartuko diotenak.
10. Babesten diren proiektu ekonomikoak gizakien nolabaiteko segurtasuna bilatzera bideratu behar dira, ekonomiaren alorrean, eta, hortaz, lehentasuna eman behar diete komunitateen erabaki mekanismo propioak sendotzen dituzten jardueri, bertako produkzio moduak berreskuritzen dituztenei, ingurune naturala babesten dituztenei, etab. Elikadura subiranotasunaren proposamena funtsezkoa da erronka horretan. Beharrezkoa da ohiko jardueretan produkzio eta kontsumo eredu aldaketaren aldeko kontzientzia sortzea, era horretara, bioaniztasuna bermatzen eta baliabide naturalak bidegabe ebastea saihesten baita.

**Eremu soziopolitikoak**

11. Gizarte zibila eta tokiko erakundeak (teknikoki eta etikoki) sendotzeko prozesuekin jarraitzea, edo horiekin hastea, komeni dela ikusten da. Gainera, bi sektoreen arteko talde lana bultzatu behar da, sektore soziala eta sektore publiko-administratiboa. Hala ere, polarizazio politiko eta/edo ekonomikoak, edo tokiko erakundeen saldukeriak eta bezerokeriak tokiko erakundeen lana eragozten duen testuinguruetan, gizarte erakundeak indartu behar dira lehenik. Erakunde horiek herritarren eskubideak betetzeko eska dezakete, eta baita erakundeen demokratizazioa ere, aldarrikapenean oinarritutako partaidetzaren eta etengabeko gidaritzaren bitartez.
12. Garapen prozesuak birpolitizatu behar dira, eta pertsonen ongizatera bideratutako lankidetzak izaera politiko (ez alderdikoia) duela onartu behar da, lankidetzak desberdintasun eta asimetria premiazoenei aurre egin behar baitie. Beharrezkoa da beste lankidetzak ikuspegi batzuekin saioak egitea, garapen jarduerak ez daitezen foku bakarra izan,

TG Gera bideratutako aldekata subjektuak sendotzea ere bilatu behar da.

**Lankidetzaren estrategiak**

13. Proiektuak muga askoko tresnak dira epe luzerako prozesu eraldatzaileak inplementatzen laguntzeko orduan. Beraz, esparru zabalago batean kokatu behar dira, tokiko erakundeen eta euskal erakundeen plan estrategikoei gidatuta. Proiektu isolatuak saihestea izango litzateke kontua, eta proiektuen kateketan oinarritutako ideari jarraitzea, helburu estrategiko definituak lortzeko. Finantzatzen duten erakundeen erantzukizuna izango litzateke bi urtetik gorako epea duten programak edo hitzarmenak (gaur egun iraupen hori dute) inplementatzeko aukera zabaltzea.
14. Euskal GGKEei eta Hegoaldeko erakundeei lana errazteko, irizpideak bateratzea gomendatzen diegu euskal erakunde publikoei, eskakizun administratiboei eta txostenen eta formularioen formatuari dagokionez, gutxienez.
15. Lankidetzak politikak ebaluatzeko baliabideak bilatu behar dira, ebaluazioa funtsezkoa baita, ez bakarrik ekintzak aztertzeko, baita horiek hobetzeko ere. Erakunde publikoek, esaterako, funts bereziak gorde beharko lituzkete helburu horretarako eta GGKEei pizgarriak eman ebaluaketa hori egiteko denbora bila dezaten. Ildo horretatik, garrantzi handikoa da proposatutako ikuspegiekin (zeharkako ardatzak barne) bat etorriko den ebaluazioa egiteko aukera emango duten adierazle kualitatiboak eta kuantitatiboak bilatzea eta osatzea. Ebaluazio hori taldeko ariketa parte-hartzailea izan liteke, eta lan horretatik, gainera, proiektuen hurrenez hurrengo baremazioetarako argitasuna eta ekarpen adostuak atera litezke.
16. Oso positiboa izango litzateke eragileen artean lankidetzarako ikuspegi berriei buruzko eztabaidak sustatzea. Esate baterako, aldekatarako subjektu politikoak sendotzearen edo gizarte bakoitzean martxan diren prozesuekin eta horiek sustatzen dituzten eragileekin sinergiak bilatzearen aldeko apustua egin daiteke.

17. Erakundeek eta/edo GGKEen Koordinakundeak foro geografikoak edo sektorialak sustatu eta erraztu beharko lituzkete, euskal lankidetzaren eragile guztiek parte har dezaten. Horri esker, sinergiak, partzuergoak edo truke sariak eta/edo eragin sariak ezartzeko aukera izango litzateke eremu edo sektore berean lan egiten duten erakundeen artean.

Ikerketa proiektu honi esker, 1998-2008 urteetan euskal lankidetzak Ekuador, Guatemala, Peru eta SEADen egindako lanaren garrantzizko alderdiak sakonago eza-gutzeko aukera izan dugu, herritarren partaidetza eta generoaren ikuspegia funtsezkoak dituzten TGG prozesuen sustapenari dagokionez. Azterketa kuantitatiboaren zein kualitatiboaren azterketak ikasgai asko eta askotarikoak ateratzeko aukera eman digu, eta euskal lankidetzaren eragile guzientzat baliagarriak izango diren gomendioen zerrenda batean biltzen saiatu gara; edonola ere, egiteko gelditzen den lana are handiagoa da. Oso prozesu aberasgarria izan da bertan parte

hartu dugunontzat, eta itxaropena dugu aurkezten diren emaitzak interesgarriak izango direla euskal lankidetzaren hobekuntzarekin konpromisoa dutenentzat; eta orobat espero dugu baliagarriak izatea elkar-tasunaren eremuan egingo diren ahaleginak eta ikas-kuntzak modu eraginkorragoan biltzeko.



## 7. Taulen eta grafikoaren zerrenda

1. taula. Eusko Jaurlaritzak emandako funtsen bolumena (eurotan), 2002-2007	18
2. taula. Foru Lankidetzaren funtsak 2004-2008, laguntza motaren arabera	20
3. taula. Eusko Jaurlaritzak onartutako proiektuak eta aurrekontua, 1998-2008	24
4. taula. Foru Aldundiek onartutako proiektuak eta aurrekontua, hainbat urtez	25
5. taula. Batez besteko aurrekontua, finantza erakundearen arabera	26
6. taula. Euskal lankidetzaren sektorekako banaketa, 1998-2008	30
7. taula. Funtsen kudeaketa euskal erakundearen eta tokiko erakundearen arabera	31
8. taula. Aurrekontuaren ehuneko handiena kudeatu duten euskal erakundeak eta tokiko erakundeak	32
9. taula. Generoaren ikuspegia, herrialdez herrialde	33
10. taula. TGG ikuspegia, herrialdez herrialde	34
1. grafikoa. Emailearen garrantzia, herrialdez herrialde	24
2. grafikoa. Onartutako proiektuak, 1998-2008	26
3. grafikoa. Onartutako aurrekontua (eurotan), 1998-2008	27
4. grafikoa. Proiektuak eta aurrekontua, eremu geografikoaren arabera: Peru	28
5. grafikoa. Aurrekontua eskualdez eskualde. Guatemala	28
6. grafikoa. Proiektuak eta aurrekontua, eremu geografikoaren arabera: Ekuador	29





## 8. Bibliografía

Dubois, Alfonso; Guridi, Luis; López Belloso, María (2011): *Desarrollo Humano Local: de la teoría a la práctica. Los casos de la reconversión azucarera en Holguín (Cuba) y de los campamentos saharauís de Tinduf*. UPV/EHU, Hegoa. Bilbo.

Guridi, Luis eta Molina, Iván (2011): *Análisis de la Cooperación Vasca en Perú 1998-2008. Aportes sobre Desarrollo Humano Local, Equidad de Género y Participación Social*. Hegoa. Bilbo.

Guzmán, Gloria (2011): *Análisis de la Cooperación Vasca en Guatemala 1998-2008. Aportes sobre Desarrollo Humano Local, Equidad de Género y Participación Social*. Hegoa. Bilbo.

López Belloso, María (2011): *Análisis de la Cooperación Vasca en la RASD 1998-2008. Aportes sobre Desarrollo Humano Local, Equidad de Género y Participación Social*. Hegoa. Bilbo.

NBGP (1993, 1995, 2010): *Giza garapenari buruzko munduko txostenak*.

Villalba, Unai (2011): *Análisis de la Cooperación Vasca en Ecuador 1998-2008. Aportes sobre Desarrollo Humano Local, Equidad de Género y Participación Social*. Hegoa. Bilbo.



# Eranskina

## 1. taula. Proiektuen sektorekako sailkapena egiteko irizpideak

Hitzartutako Sektorea/Kategoria	Deskribapen laburra
<b>S1: Emakumeak / Generoa</b>	Emakumeen berariazko arazoak lantzen dituzten proiektuak. Emakumeen eta gizonen arteko botere harreman desberdinen azterketa, eta desberdintasunen egiturazko arazoak zalantzan jartzea eta aldatzea. Emakumeen OGAekin batera identifikatzea eta burutzea: autoestimua, ahalduntzea, autonomia, eskubideak aldarrikatzea, defendatzea, laguntza eta aholkularitza genero indarkeriaren biktima diren emakumei, emakumeen osasuna eta hezkuntza...
<b>S2: Haurtzarora</b>	Onuradun nagusiak haurrak dituzten proiektuak. Oro har, haurren garapen pertsonal eta osasungarriaren gaiari heltzen zaio; haurren, nerabeen eta gazteen garapen emozionala, kognitiboa eta soziala ahalbidetzen duten familia giroak bultzatzen dira.
<b>S3: Giza eskubideak</b>	Lege zerbitzuak sendotzea, eta, osagai nagusi gisa, justizia doakoa izan dadin bultzatzea. Lege defentsa bulegoetara eta juridikoei laguntza ematea emakumeen kontrako indarkeria, familia indarkeria, adingabeen kontrako indarkeria edo beste talde zaugarrien edo gutxiengoaren kontrako indarkeria kasuetan. Liderrak edo komunitateko pertsonak prestatzea eta gaitzea, pertsona horiek eskubideen bultzatzaile bihurtzeko daitezkeen beraien komunitateetan.
<b>S4: Landa / Nekaz. Garapena</b>	Landa eremuak garatzea, nekazaritzako eta/edo arrantzako ekoizpena hobetuz; horretarako, nekazariak eta/edo arrantzaleak gaitu, laborantza/arrantza teknikak hobetu, ureztatze sistemak hobetu eta baliabide hidrikoak eta itsasokoak kudeatu behar dira. Nekazarien asoziazioak eta kooperatibak bultzatzea.
<b>S5: Oinarrizko Osasun Arreta</b>	Osasunerako sarbidea bultzatzea; osasun gaietan arreta lana, hezkuntza eta sentsibilizazioa hobetzeko gaitzea, zerbitzu medikuak, STG kontrako borroka, etab.
<b>S6: Garapen Integrala</b>	Ongizatera hurbiltzeko sektorearen batera zuzendutako proiektuak; diziplinarteko gaitasunak ugaltzea (ez bakarrik teknikoak, baita analitikoak, harremanei, antolamenduari, emozioei... dagozkienak ere); agentzia erreflexiboa eta informatua bultzatzea; kontzientzia hartzea, gizartearen ahalduntzea eta talde ekintza, eskubideak aldarrikatzeko. Gizartearen ahalduntzeak izaera politikoa duela berrestea.
<b>S7: Tokiko Ekonomia Garapena (TEG)</b>	Ekimen produktiboetarako ekimenak sortu daitezkeen aktibatzea, sendotzea eta sustatzea, tokiko merkatuetan banatuz eta merkaturatuz. Subjektuak jardura horietan txertatzea eta tokiko administrazioei laguntzea, tokiko garapen ekonomikoaren estrategia antolatzea.
<b>S8: Azpiegiturak eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak</b>	Tokiko azpiegiturak hobetu daitezkeen laguntza (etxebizitzak, eskolak, ospitaleak eta osasun zentroak, uraren hornidura sistemak...) osagai nagusi duten proiektuak, gaitasunak eta trebetasunak sendotzearen kaltetan (prestakuntzaren eta gaikuntzaren bitartez).
<b>S9: Hezkuntza</b>	Hobekuntzak sistemaren eskaintzan eta hezkuntza politiketan, irakaskuntza maila dagokienez: lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, lanbide heziketa. Azpiegiturak hobetzea, irakasleen prestakuntzaren eta eguneratzearen bitartez, gazteen oinarrizko gaikuntza. Hezkuntzarako eskubideari buruzko ikerketa eta sentsibilizazioa.
<b>S10: Ingurumena</b>	Sektore honetan sartzen dira ingurumena babesteko proiektuak, ingurumen sustatzaileak gaitzeko eta prestatzekoak, basoen garapenera bideratuak, eta, oro har, tokiko baliabide naturalak modu bateratuan integratzeko eta gordetzeko proiektuak.
<b>S11: Gizarte Zibila Sendotzea</b>	Erakunde komunitarioak sustatzea. Eragin politikoa eta gizartearen ahalduntzea, herritarrek eraginkortasunez jarduteko laguntza. Gizartearen kohesioa, identitate kulturalak, nazionalak, etab. onartuz eta aldarrikatuz. Sarean lan egitea eta komunikabideak komunitatean eta modu demokratikoan erabiltzea, informazioaren kudeaketarako tresna gisa eta borrokan berri zabaltzeko eta horiek onartzeko.
<b>S12: Erakundeak Sendotzea</b>	Tokiko erakundeak sendotzea (udalak, eskualde gobernauak, departamentuak), baliabideak gizarteko talde baztertuenean eta zaugarrienen alde eraginkortasunez kudeatzeko. "Zerbitzu publikoen" eta zerbitzu horiek eskaintzen dituzten administrazioen balioa handitzea. Hobekuntzak gobernagarritasunean eta instituzionalitatean. Gardena izatea eta kontuak ematea.

Iturria: lan honetarako berariaz egina.

# LAN-KOADERNOAK

## CUADERNOS DE TRABAJO

### WORKING PAPERS

0. Otra configuración de las relaciones Oeste-Este-Sur. Samir Amin.
1. Movimiento de Mujeres. Nuevo sujeto social emergente en América Latina y El Caribe. Clara Murguialday.
2. El patrimonio internacional y los retos del Sandinismo 1979-89. Xabier Gorostiaga.
3. Desarrollo, Subdesarrollo y Medio Ambiente. Bob Sutcliffe.
4. La Deuda Externa y los trabajadores. Central Única de Trabajadores de Brasil.
5. La estructura familiar afrocolombiana. Berta Inés Perea.
6. América Latina y la CEE: ¿De la separación al divorcio? Joaquín Arriola y Koldo Unceta.
7. Los nuevos internacionalismos. Peter Waterman.
8. Las transformaciones del sistema transnacional en el periodo de crisis. Xoaquin Fernández.
9. La carga de la Deuda Externa. Bob Sutcliffe.
10. Los EE.UU. en Centroamérica, 1980-1990. ¿Ayuda económica o seguridad nacional? José Antonio Sanahuja.
11. Desarrollo Humano: una valoración crítica del concepto y del índice. Bob Sutcliffe.
12. El imposible pasado y posible futuro del internacionalismo. Peter Waterman.
13. 50 años de Bretton Woods: problemas e interrogantes de la economía mundial. Koldo Unceta y Patxi Zabalo.
14. El empleo femenino en las manufacturas para exportación de los países de reciente industrialización. Idoie Zabala.
15. Guerra y hambruna en África. Consideraciones sobre la Ayuda Humanitaria. Karlos Pérez de Armiño.
16. Cultura, Comunicación y Desarrollo. Algunos elementos para su análisis. Juan Carlos Miguel de Bustos.
17. Igualdad, Desarrollo y Paz. Luces y sombras de la acción internacional por los derechos de las mujeres. Itziar Hernández y Arantxa Rodríguez.
18. Crisis económica y droga en la región andina. Luis Guridi.
19. Educación para el Desarrollo. El Espacio olvidado de la Cooperación. Miguel Argibay, Gema Celorio y Juanjo Celorio.
20. Un análisis de la desigualdad entre los hombres y las mujeres en Salud, Educación, Renta y Desarrollo. María Casilda Laso de la Vega y Ana Marta Urrutia.
21. Liberalización, Globalización y Sostenibilidad. Roberto Bermejo Gómez de Segura.  
  
Bibliografía Especializada en Medio Ambiente y Desarrollo. Centro de documentación Hegoa.
22. El futuro del hambre. Población, alimentación y pobreza en las primeras décadas del siglo XXI. Karlos Pérez de Armiño.
23. Integración económica regional en África Subsahariana. Eduardo Bidaurrezaga Aurre.
24. Vulnerabilidad y Desastres. Causas estructurales y procesos de la crisis de África. Karlos Pérez de Armiño.
25. Políticas sociales aplicadas en América Latina. Análisis de la evolución de los paradigmas en las políticas sociales de América Latina en la década de los 90. Iñaki Valencia.
26. Equidad, bienestar y participación: bases para construir un desarrollo alternativo. El debate sobre la cooperación al desarrollo del futuro. Alfonso Dubois.
27. Justicia y reconciliación. El papel de la verdad y la justicia en la reconstrucción de sociedades fracturadas por la violencia. Carlos Martín Beristain.
28. La Organización Mundial de Comercio, paradigma de la globalización neoliberal. Patxi Zabalo.
29. La evaluación ex-post o de impacto. Un reto para la gestión de proyectos de cooperación internacional al desarrollo. Lara González.
30. Desarrollo y promoción de capacidades: luces y sombras de la cooperación técnica. José Antonio Alonso.
31. A more or less unequal world? World income distribution in the 20<sup>th</sup> century.  
  
¿Un mundo más o menos desigual? Distribución de la renta mundial en el siglo XX. Bob Sutcliffe.

32. ¿Un mundo más o menos desigual? Distribución de la renta mundial en el siglo XX.  
Munduko desbertasunak, gora ala behera? Munduko errentaren banaketa XX mendean. Bob Sutcliffe.
33. La vinculación ayuda humanitaria - cooperación al desarrollo. Objetivos, puesta en práctica y críticas. Karlos Pérez de Armiño.
34. Cooperación internacional, construcción de la paz y democratización en el Africa Austral. Eduardo Bidaurrazaga y Jokin Alberdi.
35. Nuevas tecnologías y participación política en tiempos de globalización. Sara López, Gustavo Roig e Igor Sábada.
36. Nuevas tecnologías, educación y sociedad. Perspectivas críticas. Ángeles Díez Rodríguez, Roberto Aparici y Alfonso Gutiérrez Martín.
37. Nuevas tecnologías de la comunicación para el Desarrollo Humano. Alfonso Dubois y Juan José Cortés.
38. Apropiarse de Internet para el cambio social. Hacia un uso estratégico de las nuevas tecnologías por las organizaciones transnacionales de la sociedad civil. Social Science Research Council.
39. La participación: estado de la cuestión. Asier Blas, y Pedro Ibarra.
40. Crisis y gestión del sistema global. Paradojas y alternativas en la globalización. Mariano Aguirre.  
¿Hacia una política post-representativa? La participación en el siglo XXI. Jenny Pearce.
41. El Banco Mundial y su influencia en las mujeres y en las relaciones de género. Idoe Zabala.
42. ¿Ser como Dinamarca? Una revisión de los debates sobre gobernanza y ayuda al desarrollo. Miguel González Martín.
43. Los presupuestos con enfoque de género: una apuesta feminista a favor de la equidad en las políticas públicas. Yolanda Jubeto.  
Los retos de la globalización y los intentos locales de crear presupuestos gubernamentales equitativos. Diane Elson.
44. Políticas Económicas y Sociales y Desarrollo Humano Local en América Latina. El caso de Venezuela. Mikel de la Fuente Lavín, Roberto Viciano Pastor, Rubén Martínez Dalmau, Alberto Montero Soler, Josep Manel Busqueta Franco y Roberto Magallanes.
45. La salud como derecho y el rol social de los estados y de la comunidad donante ante el VIH/ SIDA: Un análisis crítico de la respuesta global a la pandemia. Juan Garay.  
El virus de la Inmunodeficiencia Humana y sus Colaboradores. Bob Sutcliffe.
46. Capital social: ¿despolitización del desarrollo o posibilidad de una política más inclusiva desde lo local? Javier Arellano Yanguas.
47. Temas sobre Gobernanza y Cooperación al Desarrollo Miguel González Martín, Alina Rocha Menocal, Verena Fritz, Mikel Barreda, Jokin Alberdi Bidaguren, Ana R. Alcalde, José María Larrú y Javier Arellano Yanguas.
48. Aportes sobre el activismo de las mujeres por la paz Emakumeek bakearen alde egiten duten aktibismoari buruzko oharra. Irantzu Mendia Azkue.
49. Microfinanzas y desarrollo: situación actual, debates y perspectivas. Jorge Gutiérrez Goiria.
50. Las mujeres en la rehabilitación posbélica de Bosnia-Herzegovina: entre el olvido y la resistencia. Irantzu Mendia Azkue.
51. La acción humanitaria como instrumento para la construcción de la paz. Herramientas, potencialidades y críticas. Karlos Pérez de Armiño e Iker Zirion.
52. Menos es más: del desarrollo sostenible al decrecimiento sostenible. Roberto Bermejo, Iñaki Arto, David Hoyos y Eneko Garmendia.
53. Menos es más: del desarrollo sostenible al decrecimiento sostenible. Roberto Bermejo, Iñaki Arto, David Hoyos y Eneko Garmendia.
54. La incorporación de la participación y la equidad de género en las cooperaciones autonómicas. María Viadero Acha, Jokin Alberdi Bidaguren.  
Genero-ekitatea eta partaidetza, autonomia erkidegoen lankidetzetan. María Viadero Acha, Jokin Alberdi Bidaguren.